

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXXIII Zenbakia.

1995

Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Esaerak.— (Barruko azalean).	
Erdiároko Euskal izenen idazkera.— Latiegi tar Bixente.	1
Arzelus eta Toledo tar Ander.— Amale Arzelus.	16
Amale'ri erantzuten.— Zubikarai tar Augustin.	25
Bizkaiko Forua dala eta ainbat jakingarri.— Pedro Puxana.	27
Zigardíberrea baserria euskal iturrí.— Latxaga.	36
Euskal itzak Andola'n.— Latxaga.	43
Augustin Zubikarai euskal idazleen artean erraldoia.— Latxaga.	45
Paulin Solozabal, Euskeraren urrezko langillea.— Latxaga.	50
Gure Aita.— Zatarain dar A.	54
Duen eta duen.— Zatarin dar A.	56
Berango'ko koplak zarrak.— Legarreta tar Asier.	59
Zortzi Nobioak.— Asier Legarreta.	60
Esakera zarrak.— Malax-Etxebarria tar Jon.	62
On Jaime Kerexeta'ren gutun bat.— Laitegi.	63
Esaldí jatorrak.— Kanpo eta barruko azaletan.	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

GABON INGURUKO ESAERA ZARRAK


- Agura, gabonetan be logura.
- Bakoitza bere denborako, arbia Abenduko.
- Inñuzente potente, biar san Bixente.
- Gabon bon bon, Natibitate ase ta bete, San Estebantxe beti len letxe.
- Gabon, Jainkoak ala emon.
- Jesus Maria ta Jose, beti jaten eta beti gose.
- Abenduko eguna argitu orduko illuna.
- Abendua jai eta gau.
- Abendua eze ta otz, etxeko nausia udan bot.
- Abenduko laiñoak, egoa eta edurra.
- Abendu legorra, urte ugaritsua.
- Abendu beroak ez dau baserritarren poltsarik berotzen.
- Abenduko eguzki zuriakin eta ostatuko neska ederrakin, ez fiatu.
- Abendu laiño lanbrotsu, sagar asko gero.
- Gabonil, otzak il.
- Olentzeroz leioan, pazkoetan sua.
- Eguberri argitsu, ogia gero lastotsu.
- Eguberrietan eguzkia, pazkoetan edurra.
- Eguberri, arimak ere berri.
- Eguberri, zoroak be igarri.
- Eguberri itargirik bakoetan, soloetan gari asko.
- San Txilibristo, besigua espanetatik dindilizka.
- Gabon, daukanak eztaukanari emon.
- Gabon, dagonean bon bon, eztagonean egon.
- Dringilin don, gaur gabon
- Gabon gabontzeta, gabon erreseteta, Jauna jaio da ta jo daigun krisketa.
- Inñuzenteen ogia, Jauna miserikordia
- Urte barri, urte zar, Martzeliño praka zar.

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia



Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L.- Bilbao



ERDIAROKO EUSKAL- IZENEN IDAZKERA (II atala) BALPUESTA'KO GOTZAI DIAREN LARRUKIAK (IX mendea)

SARRERA

"Euskerazaintza" deritzan gure aldizkari au sortu zanetik, aiez-alez, Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxean gordetzen ziran IX mendeko larrukiak aztertzen aritu gera; eta, azkenik, balta bukatu ere! Burutu aal izan bait dugu gure eginkizun ori.

Bada, ordea, Euskalerrian, IX mendeko dokumentuen beste iturri yori bat: Balpuesta'ko gotzaitegian idatzi ziran larrukien sorta.

Errioxa'n zegoan, eta dago, Kukulla'ko lekaidetxea; Araba'n berriz Balpuesta gotzai-uria. Naiz, gaurr-egun erritxo au, politika zikiñaren trakeskeri baten erruz, Burgos'ko Probintziak Araba'ko Baldegobi edo Gobiaran'en sartzen duan adar luze medarraren muttur-mutturrean egon.

Errioxa Euskalduna zan IX mendean; Politikaren aldetik, erdia, Naparroa'rena (Naparroa bait zan, berez, orduan Muskari (Tudela) (1) eta Kalagurri'ren inguruan Beni-Kassin'darrek eraturik zeukaten Laterritxo musulmana) beste erdia, Araba'rena zan. Naxerilla ibaiean egiten zuten muga Araba'k eta Naparroa'k Errioxa'ko lurretan; eta, Araba, andik egoalderuntz gora joz, Oka Mendietaraiño iristen zan. Eta baita kilometro batzuk mendi aien beste aldera ere, bertako topomiak erakusten diguanez. An daude ainzuzen Zalduendo, Orbaneja, Ubierna, Urbel, ibai onen ertzeko Bibar erria Zid'en jaiterria, Kotar, Arlanzon, Urbion...

(1) Orain Tutera esaten dio Euskaltzaindiak. Erri-izenen berriztaketan egin dituan ainbeste txapelkeri iñozoetako bat. Tutera, izen arabitarra da. Bazuan arabitarrek ara agertu baiño askoz leenago uri bikain orrek erromateko izen euskaldun ederrik! Muskari, ainzuzen, edo, agian, Muskari; erromatarrek, idazterakoan, oso-oso maiz naasten bait zituzten "R" eta "RR". "Gracurris"-"Gracuris"; "Iliberris"-"Iliberis"; "Calagurris"-"Calaguris"; "Garrai"-"Garai"... Naasketa ori, erromatarrek euskaldunen ezpaifñetatik, ez "R" ez "RR", eztaarritiko "GR" frantziarraren antzeko zerbait entzun zutelako ote?

Ainzuzen, mendi aietan zegoan eta OKA zeritzan uria. Eta izan ornen zuan Uri orrek Balpuesta'rekin zer-ikusirik. Arabitar musulmanek España artu zutenean ezabaturik gelditu zan Oka'ko gotzaigoaren jarraipena izan zedin sortu ornen zan b Balpuesta'koa. Bai ote?

Emañiegun begi orduango gertakizunei:

BiSIGOTAK, EUSKALDUNAK, MUSULMANAK: NERE ABURU BAT:-
711'garren urtean sartu zan España'ra Tarik, ogei millaren bat gudari musulmanekin. Naikoak izan zituan Bisigotiarrek garaitzeko.

Bisigoten erreñua (ez al zan b benetan indartsua? Bai, VI mendean España'n beren erreñu ori gotortu zutenez gero. Frankiarrek, adibidez, naiz beraiek ere gotortasunik peitzen ez, Frantzi'ren egoan Mediterranertzaren erdia artzen zuan Septimani'tik Bisigotak botatzeko ez ziran beñere gauza izan. Ezta, Musulmanak España'ra sartu baiño urte batzuk leenago, Banba Bisigoten erre zala, errege onen aurka Septimani iraultzan jeiki zanean ere.

Nola bá urte batzuk geroago ain errez menderatu ote zituzten arabitarrek? Iritzi asko agertu oi dira gertari ulerkaitz ori ulerterrez biurtu naiez. Nik ere badut nerea. Iritzi utsa, bai noski, baiñan ez besteak baiño balioz anitz kaxkarragoa:

Bisigoten erregea, Errodrigo, (nola ez?, euskaldunen aurka zebillen Naparroa'ko lurretan borrokan, aiei Iruña'ko uria arrapatu naiean. Ez zuan bere guraririk lortu aal izan. Musulmanak itxasotik Andaluzi'ra sartu zitzaizkiolako mezua iritxi bait zitzaion.

Ez zan ura, musulmanek ori egiten zutela aurreneko aldia. Marok'era iritxi zira-nez gero, Tanger'ko kaltetik irtenda, maiz jausten bait ziran Andaluzi'ko itxas-erzteetara. 710'e'an ainzuzen azkeneko aldiz Tarif buruzagiarekin, aren omenez Tarifa esanen zitzaion urira. Eraso oiek danak errez izan ziran garaituak.

Erasotxo aietako bat besterik ez zala izanen 711'ko au ere, iruditu zitzaion noski Errodrigo'gori. Baiñan oraingo au beste aiek baiño arrisku geiagokoa zala oarturik, euskaldunen aurka gudan jarraitzeko gero ere betarik aski izanen zuala-ta, mauro aiek Andaluzi'tik len-bait-len bota bearrak zituala pentsatu zuan, aien atzetik mauro geiago etorri ez zitezen.

Eta euskaldunen aurka berekin eraman zuan gudarozte sendo artan gudaririk trebe, yayo, bizkorrenak aukeratuz talde arin bat bilduta, laisterka joan zan aiekin, Tarik'en musulmanak itxasora errez jaurtiko zitalakoan.

Baiñan oker atera zitzaizkion bere uste guztiak. Garaitua izan zan bá, eta, seguruaski, borrokan bertan illa. Ez zuan jasotzerik izan, bere aurreko errege bisigotiarrek, Leobigildo'z gero, jaso izan zuten goiaipua, —Bisigotiarrentzat goiaipurik aundiena dirudianeaz—: edestilariek, beren erregeen oroipena goresteko bein da berriro erabilij zuten goiaipua: "Domuit Vascones": "Menderatu zituan Euskaldunak".

Baiñan Bisigoten indarra ez zan (Guadalete? ibaiaren uretan odolustu. Ara al zuan azkarren iristearren, zaldundi-talde bat besterik ez zan izan b, Errodrigo'k berekin iraduz eraman zuan indarra. Bisigot-Erreñuko gudaroztea Euskalerrian geratu zan, Errodrigo, Tarik itxasora jaurtiz gero, ostera euskaldunen aurka borrokan jarraitzeko noiz itzuliko zai.

Baiñan Euskalerrira musulmanen garaitzaren eta Errodrigo'ren ondamenaren berri iritxi zanean, bururik gabe gelditu zan gudarozte bisigotiarra. Txunditurik, Iruña artzeari azken-agurra egiñik, Euskalerritik lur ziurragora baztertzen asi zan azkar-azkar, Toledo'ra joan da an errege berri bat aukeratzeko asmoz.

Euskalerriko gudariek ikusi zuten alde-egite ori; jakin zuten, an urruti, Andaluz'n, mauroek Errodrigo garaitu ta erail zutela; eta, apentza-goseak eraginda, igesi zijoakien gudarozte bisigotiarren gaiñera erori ziran, errañetan kiskalgarri zeramaten iru mende luzeko gorrotoa iges zijoazkien gudari aurrez-garaitu aien odoletan ito nairik.

Izugarria noski aien artean egin zuten sarraskia. Mauroak ez baiña euskaldunak izan ziran Bisigoten Erreiñua bein betirako ezereztu zutenak, mauroek ez baiña euskaldunek porrokatu bait zuten Bisigoten gudaroztea. Euskaldunei zor diete musulmanek Españi ain errez berenganatu izatea. Ain errez! Ez bait zuten aurrean, kixazko borrokarik egin bear izateko, kixazko gudarozterik aurkitu.

Españi, Españi osoa, Euskaldunek doan egindako emaitza bat izan zuten musulmanek.

"El hundimiento aparatoso de la España visigoda frente a unos miles de rabes y bereberes constituye uno de los mas grandes enigmas de la historia española" diosku opusdeitarrek zuzentzen duten G.E.R iztegian M. Gonzlez Jiménez edestilariak". Eta, berealaxe, musulmanen gurenda "una fácil y rápida victoria" izan zala.

"Fácil Y rápida", (zergaitik? Aurka egin bear zien gudaroztea, ordurako euskaldunek desegiña zutelako.

Guzti au uste utsa besterik ez dala? Egia. Uste utsa besterik ez da. Baiñan, orrela dira, gai oni-buruz, beste guztien iritziak ere. Ezagutzen ditut III Alfontso Asturietako errege bisigotaren "Kronika"rekin, berreun urte geroago, IX mendearen azkenean agertzen asi ziran aburuak; sinistu ere ezin daitekean porrota lotsagarri ura zuritzeko bisigotek asmatutako aitzaki-maitzaki-sorta txoliña, eta, aiek asmatuz gero, españiar guztiek ontzat arturik daukatena:

—Juduen judaskeria. Españi'n, Kristaudiko beste bazterretan bezala, juduei jaurti izan zaie ondamen guztien errua.

—Jaungoikoaren zigorra, —¿nola ez?—. Aundiak ornen ziran bá aspaldiz gero **Bisigoten eta bereiziki Bitiza ta Errodrigo azken bi erregeen pekatuak**, III Alfontso'ren "Kronika"k dioskunez. (2)

—Bitizatarren asarrea ta apentza, Bitiza il ondorean buruntza aietako batek ez baiña Errodrigo'k artu zualako.

—Naiz azkenean Bisigoten serbitzura biurtu, berez Bizantziotarra zala uste dan Julian kontearen apentza, "Tudensis" esan oi zaion gotzai idazlearen ustez: (3)

—Lukas Tudensis izan zitzaigun kondaira guztiaren berri dotore eman ziguna. Eleberri bat geiago dirudi edestia baiño gai oni-buruz idatzi ziganak:

Zeuta zan Bizantziotarrei Afrika'n gelditzen zitzaien azkeneko uria, eta Julian ornen zan ango jaurlea.

Bai ornen zuan konte onek Florinda izeneko alaba gazte pertxenta bat. Bein, Tajo ibaiean bañuketan ornen zebillen billutsik neska polit ura, eta ala ikusi ornen zuan uretik irtetzen, Errodrigo erregeak. Ta, nola ez?, neskaz maitemindurik gelditu ornen zan erregea.

(¿Ez al zaigu or, argi, Dabid eta Betsabe'ri gertatutakoaren bikoiztapen bat agertzen?).

- (2) Nik, IX mendearen azkenean idatzi zan liburu au, Antonio Ubieta Arteta'ren "Crónica de Alfonso III'n erabili dut: 1961'ean Balentzi'n egindako argitalpenean. EgIn-berri dedan aipua, 16-19 orrietan dago.
- (3) Bere izenez, Lukas. Tude edo Tuy'ko gotzaia izan zan XIII mendean. Bere lana, "Cronicon Mundi", Enrike Florez'en "España Sagrada"ren XXII tomoan, Madrid 1766.

Jakin ornen zuan Julian konteak Florindatxo bere alaba Errodrigo Erregearekin naasirik zebillela..., ta, gorrotoz sutan, Zeuta'tik Toledo'ra etorri, eta berekin eraman ornen zuan neska.

Españi'n, bitizatarrekin jarri ornen zan izketan; eta Afrika'n, Muza Marok'eko Jaurle musulmanarekin, alabari egindako iraiña Errodrigo'ri larrutik ordaiñerazi naiez. Julian kontea, noski, aita maitekorra izakita, ez bide zitzaion gogora etorri ere, egiazko erruduna, bere alaba izan zitekeanik.

(Beste kondaira batek, bitizatarrak izan zirala, esaten du, Zeuta'ra joan ziranak, eta an Julian'ekin izketan asi. Onek, aiekin bat egiñik, Muza'ri eta Tarik'eri, Espāni errez artu zezaketela sinisterazi ornen zien eta, esaten ziena egiztatzeko, baituran bere alabak eman ornen zizkien bi buruzagi musulman aiei. Dirudianez, alaba bat baiño geiago bai bait zuan Julian konte bizantziotarrak).

Espāni'ra itzulita Galietako Frankiarrekin ere asi ornen zan mintzaketan, aiek ere Espāni'ri ekin zezaioten.

¿Zeren billa ote zebillen jardunkera orren bitartez? ¿Errodrigo bere gudarozte osoarekin, —Frankiarren erasoari erantzuteko— Auñamendietara eraman nai ote zuan, egoan mauroek bidea yare aurki zezaten? ala Frankiarrek iparretik, eta egotik mauritarrek, erasotzen ziotela, soilki Errodrigo'ren ondarena nai ote zuan?

Ez digu, ortaz, Tude'ko Lukas'ek deus esaten. Esaten digu, ordea, ordurako asia zala Toledo'n bertan erregea txorabiatzen. Espāni-barruan bere nagusitza batere arriskurik gabe ziur zegoala-ta, gudarozte guzia Galietara eta Afrika'ra bidali bearko zuala, maxiatzen ornen zion belarrira.

Frankiarrek in eta Musulmanei batera gudan asten ba'zan, Errodrigo'ren ondarena ziurra izanen zalaren ustean? Tude'koak ez digu, berriro ere, ezer esango, bai ordea erregeak sinistu ziola eta, "ondorioz, erreñuan aurki zitezkean izkillu eta zaldi bizkor oro, jabeei indarrez kenduta, Afrika'runtz edo Galietaruntz bidaltzeko agindua eman zuala": "Tale unc ad hoc Rodericus Rex dedit edictum ut ubicumque arma invenirentur vel equi fortissimi, violenter dominis auferrentur et in Africam vel in Galias mitterentur".

Bereala jakiñerazi ornen zion Muza'ri, azkar ibiltzen ba'zan, ez zuala Espāni'n garrantzizko gudarozterik aurrean izango; eta ala ausartu ornen zan Muza jaurle musulmana Espāni'ko lurretara, Tarik buruzagiaren esanera gudarozte aski txiki bat bidaltzera.

Ez al da politta?

Baiñan, onozkero oartu zera noski, guzti orrek kondaira utsaren itxura geiago duala edestiarena baiño.

Aregeiago, (¿z al dituzu kondaira ortan eleberri baten aztarna guztiak ikusten.

Egiazkoa izan daiteke, eta ala izanen da seguruaski, Errodrigo'ren aurkako bitizatarren etsaigoa, baiñan bitizatar oiek ez zuten sekulan indar aundiegirik in, ez ziran beñere erreñua arriskuan ipintzeko gauza izan, ezta kaleetan zalaparta edo matxinada txiki bat sortuerazteko. Aregutxiago Erreñuko gudarozte sendoa iraultzara eramateko edo bi zatitan puskatzeko.

Baiñan naitanaiezkoa zuten Asturietako Bisigotek Errodrigo'ren izena zuritu bearra, eta parragarria ere gertatzen zan, errege aren porrot orokorra ulerterreza biurtzeko, porrot arentzat errudun bat aurkitzea; eta naitanaiezkoa gertatzen zitzaien, baitare, ondamen osoaren errua bitizatarrei bota bear izatea. Zergaitik? Pelayo Asturietako lenen errege Bisigota, Errodrigo'ren illoba zalako!

Ez dute bá Espāni'ko edestilarien aburuek oiñarri ziurragorik: Edestiaren alde-tik indar sendoegirik ez duten kondairaxoak. Alako zilipurdi lotsagarri baten zio utsa izateko baliorik aski ez duan bi erregesendien arteko, ots errodrigotarren eta

bitizatarren arteko aierkundera, eta ipuiak, eleberri kaxkar bat eratzeko ere apika gai egoki izan daitezkean ipuiak.

Beste era batekoa da, eta baita, agian, beste oina bezain sendo —edo sendoa— ni aurkeztera ausartu nazaizuten aburuaren oiñarria: Euskaldunen psicologia.

Bai al dakizu nolakoa izan daitekean errabiatutako euskaldunen gorrotoa? Usmatzen al duzu nolakoa izango zan, iru mendeko txarkerien ondorean, euskaldun aien gorrotoa, txarkeri, zikinkerri ta ondamen eta ainbeste odolkeri ta erjotzen errudun zan gudaroztea, milla bider madarikatu zuten gudaroztea, txunditurik lur-jota ikusi zuten unean?

Bai? bá... ori gogoan artuz, erabaki ezazu zuk zerorrek, nere aburu onek españiarrenak aiñako sinesgarritasunik ba'duan edo ez.

Zergaitik ez zaien b, Espāni ankaz gora iraulia izate aren errua euskaldunei jaurti izan?

Zer diozu, adiskide? Entzun españiarren aburu guztjen lenen oiñarri bakarra izan dan, Iñi Alfontso Asturietako errege Bisigotaren "Kronika"k, ondamen artaz mintzatzerakoan dioskuna:

"Omne agmen Gothorum in fugam sunt uersi et gladio deleti" (23 or.): "Gotiarren gudarozte osoa joan zan igesi, eta ezpataz ezereztua izan zan".

Orrelako lotsagarrikeri baten errua, nor eta Espāni'ko jakintsuek... (euskaldunei bota? Ezta pentsatu ere! Espāni'ren ondamen ura egi ukaeziña dala aitortu bear ba'da, bitez Espāni'ren garailleak Afrika'ko musulmanak, bitez inpernuko deabru berberak, baiñan... euskaldunak? iEuskaldunak ez!!! (4)

Balpuesta'ko Goitzaigoa, musulmanek Oka uria artu zutenean, ango gotzai-goaren ordeaz sortu zala diote.

Baleike, baiñan ez zait oso gauza ziurra iduritzen.

Okamendiak Euskalerrriaren egoaldeko muga ziran. Burgos'ko uritik 20'ren bat kilometrora daude. Ainzuzen mendi oietan dago berilbillez ibilli oi diranek ederki ezagutzen duten "Bruxula'ko Mendatea": "El Puerto de la Brújula". Ainzuzen mendi oien erdi-erdian bait dago, "Sortaldeko Okamendiak" eta "Sarkaldeko Okamendiak" bereiziz.

Okamendi oiek dira, euriak jaurtitzen dituan urak bitan ebakitzen dituztenak: Ibero aldera iparreruntz; Duero aldera, berriz, egoruntz. Oraindik ere lurralde ura euskal-toponimi argiz beterik ikus dezakezu. Baita Okamendietatik aruntz ere kilometrotxo batzuen luzaroan.

"Bruxula" ori bera, ez ote da "Buruxola", edo orrelako zerbañt? "Brújula" esan oi zaio, baiñan orratz imankoi orrek an zertaz agerturik ez du

¿Antziñate artan ainbesteko garrantzia ote zuan Oka izeneko uritxo arek? Egia da Burgos ez zala oraindik sortu. Baiñan iru-leguaz iparrera, an zegoan Bureba'ren erdian askoz aundiagoa eta askoz toki erosoagoan eraikia Bribieska zaarra, erromatarren Birovesca, Tarrako (Tarragona)'tik Ibero ibaia gora zetorren lenen maillako bidezabala Bordele'tik Astorica (Astorga)'ra zijoan lenen-lenen maillakoarekin alkartzen zan leku ber-berean.

Bribieska, Burunda'ren uriburua, aran osoaren erdian eta ain bidegurutze egokian egonik, zer-zala-ta izan ote zan Euskalerrriaren ertzean eta mendi-tartean

(4) Geiagotan ere agertuko zaigu itz au: Gothi. "Gotiarrak" esan bait zioten beti Bisigotek beren buruari.

izkutaturik zegoan Oka basa-erritxoa gotzaidun-uri biurtua? Bisigotek sortutako gotzaidia zalako ote?, eta bisigotek erritxo ura, ainzuzen mendi-tartean zegoalako, eraso orotik babest'errezagoa etsitzen zutelako?

Noren erasoetatik? Euskaldunen erasoetatik, an ez bait zuten bisigotek beste areriorik.

Zana zala, Bureba edatsu, zabal eta lautsuaren erdian, baiñan Bureba osoa bezala euskaldun etsaien mendi ta basoz inguratutik aurkitzen zan Bribieska dotorea ez baiña OKA erri kokkor basatia izan zan gotzai-uri biurtua.

Bere izena, AUKA ikusiko duzu dokumentu zarretan, baiñan badakizu noski "AU" oiek "O" irakurtzen zirala, gaurr-egungo frantzeraz bezala.

OKA ZAARREKO GOTZAIK:- So dagiogun gotzaidi zaar ari, soalditxo ortatik zerbait jakingarri atera dazakegu-ta.

VI mendearen azken-urteetaz gero, zortzi dira Oka'ko gotzai aulkiak eseritako gotzai ezagunak. Aurrenekoa, Asterius, 589'garren urtean igo zan Aulki artara. Azkenekoa, berriz, Paulus, 802'garrenean. Oso gutxi dira 8 gotzai oiek, 213 urte luzatu zan eperako.

Ikus ditzagun, -ikusketara orrek gauza asko erakutsiko dizkigu-ta-, ikus ditzagun banan-banan eta urtez-urte gure 8 gotzai oiek, ortarako: Gams beneditarren "Series Episcoporum" deritzan liburu mardula erabilliz: (5)

ASTERIUS, esan-berri dugun lez 589'an gotzai agertzen zaiguna. Ez ote zan aurretik Oka'n beste gotzairik izan? Bi aipatzen ditu Gams'ek; TEODORO eta ESTEBAN, baiñan "ezegiazkotzat baztertuz": "Excluduntur Theodorus eta Stephanus".

Baiñan bi oiek ez zirala Oka'ko gotzai izan, ontzat artuta ere zillegi bezaigu galdea: Asterio'ren aurretik ez ote zan an gotzairik izan?

Egoki ta ederki gertatuko litzaiguke ori ezagutzea, Oka'ko gotzaigoa Bisigotek sortua izan ote zan edo ez jakiteko.

589'an bildu zan Toledo'ko III kontzilioa; danetan ospetsuena, Rekaredo erregeari jarraituz, Bisigotek arianikeriari bizkar-emanik katoliko biurtu ziralako. An izan zan Asterio eta an ezarri zuan bere izenpena: "Asterius Aucensis Ecclesiae Episcopus subscripsi": "Eliz Okatarreko Gotzai onek, izenpetu dut".

Izan ziran an Euskalerra zarreko beste gotzai batzuk ere:

Urgel'ko Sinplizio, Ueska'ko Gabino, Kalagurri'ko Muño, eta Iruña'ko Liliolo ("Liliolus Pampilonensis Ecclesiae Episcopus subscripsi")..., ziurki esan bait daiteke artalde euskaldunen artzaiak zirala. (6)

(5) Pius Bonifatius Gams O.S.B. "Series Episcoporum". Leipzig. 1931.

(6) Leku oietako genduan VI mendean euskalduna zala entzutean arritu ez zaitez, naikoa izanen duzu eundaka urteak geroago XIV mendean erdi-erdian Ueska uriko azokan euskeraz itzegiten zala gogoratzea. Uri ortako udalak emandako erabaki bai eskerrak, ori eskier badakigu. Ona 1349'ko erabaki aren doiñua, orduantxe jaiotzen, eta sendotzen, ari zan Aragoi'ko erromantzez: "Item nyul (ez iñor) corredor sía usado que faga mercadería ninguna, que compre ni venda entre ningunas personas faulando en algarabía (arabieraz), nin en abraych (eberkeraz) nin en banscuens". Ori izango da noski Agintaritza batek euskeraren zabalkundearen aurka emandako agindurik zarrena: lenengo agindua. Oartu zaitez, ordea, lege ori "corredor" edo "artekarientzat" izan zala aldarrikatuta: Salerosketak, beren liburuetan, euskeraz jasotzea ote zan debekatzen zitzaiena? Ori egia ba'litz, a! nolako altxorra galdu zitzaigun liburu aiek galtzearekin batera!

Ori oraindik beren artaldeetan ere agian oraindik mendi ta basoetan beintzat ardi euskaldunak izan zezaketen beste Artzai batzuk zenbatzeke: Zalduba (Zaragoza)ko Sinplizio, adibidez, eta Lerida'ko Polibio, Ausona (Vich)'eko Akilino, Karkasona'ko Serjio, Gerona'ko Alizio, Anpurietako Fruktuoso, Elna'ko Benenato... (7)

"El año 610 se reúne un nuevo concilio en Toledo, —diosku José Goñi Gaztambide edestilari yayoak (8) —con la participación de veinteseis obispos de las provincias eclesiásticas de España. Entre ellos está el de Pamplona que firma "ego Johannes", pampilonensi ecclesiae (episcopus) subscripsi" ("Yo Juan obispo de la Iglesia de Pamplona firmé). El concilio se reunió antes de la expedición contra los vascones y sus decisiones no contenían nada de chocante".

Baiñan urte ortan ez zan Toledo'n Kontzilorik izan. Ez Toledo'n ez beste iñon. 614'ean bai izan zan bat Egara'n, ots, Tarrasa'n, eta baita, bertan Johannes izeneko gotzai bat ere, baiñan ez du Johannes orrek "Pampilonensis ecclesiae episcopus danik esaten. Tarragona'ko eliz-probintziaren kontzilioa izan zan artako gotzaiek ez bait duten beren egoitzen izenik ematen.

Kontzilio ori gaiñera, Ueska'koan artutako erabakiak idatziz bearrak zirala agintzeko bakarrik bildu zalarik, besterik gabe Iruña'ko gotzaia araiño joan zitzai-gula ez zait uste izatekoa danjk iruditzen. Ueska'koa, berriz, 598'an egin zan, gure Johannes ori 610' Iruña'ko Aulkira igo baiño bi urte leenago, eta kontzilio orrek gaiñera ez —aski oituraz kanpoko gauza— bertan bildu ziran gotzaien izenik ematen.

Urtez eta gotzaiez atzipeturik dabil noski Goñi Gaztambide, kontzilio ori 610'ean ez baiño askoz geroago, 681'ean, bildu bait zan, eta an egon zan gotzaia, "Ego Johannes Pampilonensis ecclesiae eps" ez bait da 610'ean Iruña'ko Aulkian eseri zan ura, Aulki artara 680'aren iguruan igo zan beste Jon bat baizik (9).

(7) Bearbada arriturik ikusiko zenuan, azkeneko urietatik bat baiño geiago Mediterran Itxasoaren ertzean dauden uriak dirala. Egizu kontu, ordea, dirudianez, Erroma'ko Inperiotzaren amaieran, euskera Auñamendiak-zear Itxaso orren uretaraiño iristen zala. Ainzuzen, zerrenda ortako azkeneko uria, Elna, frantzeraz Elne, Itxaso orren ertzean dago, gaurr-egungo espaiñar-frantziar arteko mugatik oso-oso bertan. Bai al dakizu nola deitu zioten erromatarrek? ELIBERRIZ. Euskalerrian bazan beste Eliberris edo Iliberris bat ere: Akitania euskaldunaren erdi-erdian, gaur Frantzi'ko erderaz Auch esaten zaion uria. Agian, orrek ez duala ezer esan nai, erantzungo didazu, Betika'n ots, Andaluzi'n ere bazalako, oraingo Granada dagoan tokian ainzuzen, Eliberriz zertzan beste uri bat, gero arabitarrek Eliberri laburtuz eta aldatuz Elbira biurtu zutena, eta, IV mendearen asieran Sarkaldeko lenen kontzilioa bertan egin zalako, arras uri ospetsua billakatu zitzaiguna. Izenen berdintasun ori zergaitik? Ez dakit; baiñan izenak non dauden jakiteak amaten digula giltza -esango nuke nik-, izen bakoitza zer izkuntzakoa dan jakiteko. Adibidez, Japoin'en, Ameriketako indi-lurralde askotan, Asi Txikian, eta Espaiñ'n, Frantzi'n, eta nun-nai, asko bait dira euskerazkoak dezaketena. Orrek ordea ez du esan nai euskaldunak diranik. Era ortara, Arangutxi Japoin'en japoindarra, da, eta lbargutxi, Bizka'i'n, euskalduna. Urmia Asi Txikin asitarra da eta Urmia, euskalerrian, euskalduna. Eta Iliberris Euskalerrian, euskalduna, eta Iliberris Betika'n... izkuntzalari espaiñarrek esan bearko digute zer izan daitekean.

(8) "Historia de los Obispos de Pamplona. I. Siglos IV-XIII". Pamplona 1979.

(9) Oraingo ontan Gams da iruzurturik dabilkiguna, ez bait du Jon ori aipatu ere egiten. 610'ko Jon aren atzetik, 73 urteko utsune bat eskeintzen digu, 683 damaigun Atilano'ra arte. Baiñan gauza eskierra da Atilano'ren aurretik Iruña'n Jon bat izan zala, bere izate orren aztarna uka-eziña XIII kontzilioan ain argi laga zigulako. Era berean ukaeziña da Jon au eta lengo Jon ura, izen bera duten bi Jon ezberdiñak izan bear dutela, bestela, bizirik jarraituz ere, en urte baiño geiago izango bait zituan 683'an.

Itzuli gaitezen

Iru urte geroago, 592'an ospatu zan Zalduba'ko II kontzilioa, eta, naiz kontzilio ortako agiria izenpetzerakoan gotzaiak beren uriaren izenik eman ez, Oka'ko Asterio, Iruña'ko Liliolo, Urgel'eko Sinplizio, eta Kalagurri'ko Muño dira agiri arek dagerzkigun Asterio, Liliolo Sinplizio eta Muño. Ez dakigu Ueska'ko Gabino zan agiri artan Galano lez dakusgun gotzaia.

Toledo'ko III eta IV kontzilioen artean, izan zan un artan 597'an kontzilio txiki bat. An izandako gotzaien artean, Gure Astenio dakusgu. Ez ordea Iruña'ko Liliblo'rik Kalagurri'ko Muño'rik, eta Urgel'ko Sinplizio'rik. Ezeta Ueska'ko Galano edo Gabino'rik.

era ditzagun albiste oien otarretik lendabiziko zituak:

— 589'an Toledo'ko III kontzilio ospatu zanetik 597'an uri bereko kontzilio txiki arte, OKA Bisigoten mendean egon zala. Noizdandik? Ez askoz leenagotik, naiz Leobigildo'ren gure aurkako guduak 574'ean eta 580'ean izan, 386'ean gertatu bait zan Rekaredo Errege Bisigotaren aurkako eraso. Iru urte geroago ordea, Toledo'ko III kontzilioaren urtean, Bisigoten menpean aurkitzen ziran, ikusi dugun lez, OKA ez ez kontzilio artan beren gotzaien bidez aurkezturik ikusi ditugun beste uri euskaldun aiek.

597'an Kalagurri, Iruña, Urgel eta Ueska Bisigotenak edo ostera Euskaldunenak ziran ezin jakin dezakegula, naiz gure lau uri oietako gotzaiak Toledo'ko kontzilio txiki artan agertu ez.

Zergaitik ez? Urte bat geroago, 597'an, Ueska'n "Rekaredo gure errege jaun txit aintzakoiaeren erregetzaren amairugarren urtean", "anno tedio decimo regno Domini nostri gloriosissimi Reccaredi regi" (ikus nola en dan latiniaren deklinabidea trakesten) kontzilio bat egin zalako. Kontzilio orrek ez digu an izandako gotzaien izenik ematen baiñan argi adierazten digu Ueska'ko erregea urte artan Rekaredo Bisigota zala.

Kalagurri'ko Muño, berriz, urrengo urtean, 599'an Bartzelona'ko II kontzilioan dagerkigu: "Munius in Christi nomine ecclesiae Calaorretanae episcopus" (Ikus or ere erromatarren Calagurri edo Calagorri nola ari dan Calaoirri biurtzen).

Ez dakigu noiz il zan 589'an Oka'ko gotzai agertu zaigun Asterio, baiñan urrengo gotzaia, Amanungus, 636'koa da. Bi urte oien artean 47 daude. Geitxo, oka asti ortan gotzairik gabe egoteko, zarrak oi ziran bá orduango gotzai aiek, geienean lekaidetxeetako Abaten artetik aukeratuak oi ziralako.

47 urte oietan Oka'n gertatu zitekeanaren albisterik ez dugu. Izan ziran kontzilio bi epe ortan: Katalauni'ko Egara (Tarrasa)'n bat 614'ean, eta Sebilla'n bestea, uri artako II, 619'an. Ez batan ez bestean ez da Oka'ko gotzairik agertzen. Ez da arritzekoa bi kontzilio aiek soilki lurralde aietako arazoak zuzentzeko antolatu bait ziran.

Norbaiten nongotasuna jakiteko norbait orrek eraman dezakean izenak ez du geienetan ezer askorik esan nai baiña, etimologigintzan ere pittin bat saiatzea ez zaizu, noski, ezatsegiña izango.

Asterio gotzai arek euskalduna al zuan bere izena?

Gotzai aietako geienek laterazko izenak dituzte: Litorius (653-656),

Constantinus (693-?), Valentinus (759-771); Paulus (802-?). Beste iru izenetatik bat, Santius, ots, Santxo, euskalduna da. Laister aztertuko dugun beste bat zero oituraz kanpoko. Asterius eta Amanungus bakarrik dira zalatzaren bat sortzeko gai izan daitekeanak.

Aste-ri-o'k bezala bi atzizkiz (10) amaitzen diran izenak pilloka ditugu gaur ere, eta ugari "Ast" aurrizki lez daramatenak, baiñan ASTERIUS, erdiaroan ez ez Erroma Zarrean ere giza-izena izan zalarik, gure Asterio ark ere latiñezko izena zeramala esan bearko dugu.

AMAÑUÑGUS bi urtez (636-638) Oka'ko bigarren gotzaia izan zitzaigun.

Tarte ortan, iru urtez aurretik ospatutakoa ere zenbatuz, iru izan ziran Bisigoten erregeek Toledo'n eraturako kontzilioak -uri artako IV'a, V'a ta VI'a-.

Aurrenekoa, IV, 633'an Sisenando'k bere erregetza legeztatzeko eraturia izan zan, -Bisigoten artean maiz gertatu oi zan bezala- aurreko erregea, Suintila, errege-aulkitik indarrez kenduta eseri bait zan an bera.

Kontziljo ortara ez zan Oka'ko gotzairik urbildu. Aulki ura utsik aurkitzen zalako? Arritzekoa gertatzen zaigu, esan dugun bezala, 47 urteko utsune luze ori.

Garai artako gotzai ezezaguna gaixo zegoalako? Ez da arrazoi naikoa, orrelakoetan ordezkari bat bidaltzeko oitura bait zuten gotzai bisigotiarrek.

Oka euskaldunen eskuetan zegoalako? Ez dirudi; ez beintzat era bat, iru urte geroago an bait zan Amanungus Toledo'ko V'ean.

Baiñan baleikeana da, bai, kontzilioa bildu zan une artan euskaldunen eskuetan egotea, Oka muga lurrean zegoalako batzuen eta besteen erasoak maiz sortzen bait ziran an.

Esan dugun lez, Kontzilio ontan ez zan Oka'ko gotzairik izan. Oraindik orduan Oka euskaldunek zeukatelako seguruaski.

Izan zan ordea Toledo'n gure Amanungo uri artako V kontzilioan, eta bere izena lateragotuz eta kristau itxura goleagorekin agertuz, onela izenpetu zigun kontzilioko agiria: "Ego Amantius Aucensis ecclesiae episcopus subscripsi"; "Nik ere, eliz okatarraren gotzaia onek izenpetu dut.

Bisigoten aroan Eliz-Laterri arteko batasuna noraiño iristen zan aditzeko, ikus V kontzilio orren sarrerako zatitxo bizkor bat: Vzilio ortan gotzaie eginkizuna, batez ere, erregeak aurkeztu zien aurua-taldea aztertu ta onatzuea izan zan, gotzai beraiik dioskutenez:

"Jainkoaren errukiari eskerrak eta Chintila gure errege aintzatsuak eraginda gaude Btzar ontan bildurik, eta bere osasunaren eta zorionaren alde jainmkopariyi otoiketari ari gera. Izan ere, orixe, arren gure oriotzak eskatuz agertu zaigu gure batzarrera bere inguruko aitorrenseme eta jauregiko laguntzaillez iguratutik. Eta bere inguruko aiek ere bezegian gaza bea egiteko, ots berekin batera gotzaion otioitzak eskatzeko, agindu zien itzaldi donetsu baten bidez, eta Jainkoagandiko goiizpiz argiturik aurkeztu digu ARAUDI au, guk bere agindua betez eta gure geron erabakiz lege biurtzen dugun araudia".

(10) "RI" (piñe-ri), "DI" eta batzuetan "31" bezala atzizki ugaritasun adierazlea da. Toki adierazlea, berriz, "O" "NO"ren laburpena (Arri-o, Ar-no): Arrio, Araba'ren sarkaldeko Kuartango deritzan aran politean Basabe ibaitxoaren iturrian errixka baten izena da. Arno, Motriko'ko mendi batena.

Apaiz irakurleek ikus bezate aapaldi luze ori VI mendeko lateraz:

"...gratiarum actiones Omnipotenti Domino persolvimus propoter suam magnam misericordiam, cuius nutu in hanc convenimus concordiam, et gloriosi principis nostri Chinthiliani regis initia, ob cuius salutis et felicitatis constantiam supernam imploramus clementiam, qui medio nostri coetus ingressus cum obtimatis et senioribus palatii sui supplex se omnium orationibus commendavit, suosque fideles ita facere sancta exhortatione coegit, atque HANC INSTITUTIONEM, quam ex praecepto eius et decreto nostro sancimus, DIVINA INSPRATIONE pæmisit" (azpimarrakertak, nereak).

Gotzaien, Erregeaganako, losintxakeri lotsagarria? Ez. Biotz-biotzez esandako itz ederren sorta, guzia. Bisigoten Eliza lilluraturik gelditu bait zitzaigun, Leobigildo'k zerbait gogortu zuan arianikeriaren ondorean, bere Errege Bisigotak, eta erregeen atzetik Laterria bera ta Eliz Arianitarra bere elizkideekin batera katoliko bihurturik ikustean. Orixe bera gertatu zitzaion Erroma'ko Elizaari ere, Inperatore jentil, zigortzaille zipotzen ondorean Kostatino eta onen osteko Inperatoreak kristau bihurturik ikusl zituanean.

"Distigue tempora et concodabis mora" esan oi zuten erdiaroko legiztilariak: "Bereizi itzek aroak, ulertuko'ituk oiturak".

Guri, ordea, euskaldunoi, arras garrantzi aundjkoa zaigu Bisigot-Elizaren eta Bisigot-Laterriaren arteko batasun ori jakitea —eta euskaldunei-buruzko bisigoten albisteak irakurtzean batasun aren oroitza gogoan beti erne pizturik eukitzea— albiste oien egiztasuna egoki neurtu aal izateko. Eliz-gizonak izan bait ziran bisigoten erdestilari guztiak!!!

Eta elizgizon edestilari Bisigotiar aiek esandakoan oiñarritzen bait arrezkero edestilari guztiek orduango euskaldunei-buruz esan dutena!!!

Euskalerrri Zar edatsu aren albo-albo'ko gotzaiak bai, izan ziran V kontzilio artan. Ez asko. Zalduba'ko Braulio, Donebraulio, Eliz Bisigotiarreko gotzairik onpetsuenetakoa, VI mendeko gure Donemillian lakaidde euskaldun bakartasun-zalaeren bizia idatzi ziguna; eta Zalduba'ko Donebraulio orrekin batera, orduan seguruaski erdi-euskalduna izanen zan Tarazona'ko Elpidio.

Euskal-urietako gotzairik orea, Oka'koaz landa ez zan bat bakarrik izan: ez Iruña'korik, ez Ugel'korik; ezta —naiz Tarazona'tik ain bertan egon— Kalagurri'korik ere.

Uri oietan gotzairik ez zalako? Ez da sinistekoa. Gams'ek ez digu urte ortarako Iruña'ko gotzairik ematen. Baiñan 610'ean ematen digun Joannes'tik 683'ean ematen digu Atilanus'era 73 urteko zuloa dago. Zulo zabalegia Iruña, "Caput Basconiae", "Euskalderriko Burua", gotzairik gabe egoteko.

Urgel'en bai, seguruaski bazan gotzai ezaguna: Ran uarius, 633'an ango mitra jantzi zuan Jaun ori, andik iru urtera, 633'an illik zegoala, ez bait da errez sinistekoa.

Kalagurriko gotzaigoaz gauza bera esatera bearturik aurkitzen gera.

emeten Urgel'en bezala, 633'an eseri bait zan Gavinus ango gotzai-aulkian. Urrengo gotzaia, Guimius 638'koa da. Pentsatzekoa da beraz 8 bien tarteko 8 urte oietan Gabino'k jarraituko zuala Kaglaguryko gotzai.

—Zegaitik ez ziran 636'ean V kontzilio toletar artan agertu?

Ez beintzat joan nai izan ez zutelako. Ori iñolaz ere uste izaz ez daitekan gauza baita:

Lendabizi, kontgzuliorfako gastu guztiak Laterriaren kontura izaten ziralako;

Bigarren, Laterria ta Eliza ain bat eginda egonik, bata aiña maite bait zuten bestea gotzai bisigotek;

Irugarren, Laterria ta Eliza ain naaslrik zeudelako, Batzar aiek bat batera Laterri'ko Parlamentu eta Elizaren Kontzilio izaten zitalako, eta, ondorioz, Elizaren Kanonak eta Laterriaren legeak bertan ematen ziralako bertan, eta ori, go-tzaiantzat izan zezakerten arazorik garrantzitsuena zalako.

—Iruiek, alabearrak emanda, urte artan gaitxorik aurkitzen ziralako? Eztare. Orrelakoetan ordezkari bidaltzen bait zuten. Kontzilio aietan noizkz nai ikusiko dituzu gotzaien ordezkariak. Toledo'ko V argtan bi izan ziran. Ezda arritzekoa: gastuak Laterriaren konturfa izateaz gaiñera, laterriko eta Elizako legeak kontzilio aietan ematen ziralako an aaagauzak nola ibilli ziran jakitea bear-bearrezkoa bai-t zan edozein gotzaiarentzat.

—Uri aiek urte ortan euskaldunenak ziralako? Baleike, lrfuña, bera zuten aspal-di beren mendean.

Ta... ("Amanungus" —ablatibu-eraz AMANUNGO— dan izen orren etimologjaz zer esan, eskatzen al didazu, irakurle?

Gaurko nere mintzaketa luze au, bearbada astunegia joanen da-ta, sartu gai-zezen alaiki ta jostalari, izen orren etimologira.

Zu, irakurle, Mazedoni'ko Aleksander Nagusiak ezpataz jota "korapillo gor-diar" ura askatu zuan lez, arazoak zirti-zarta kolpe batez askatuzale ba'zera, izen orren etimologia gauza erreza dala esango didazu:

—Amanungo? Bai, Bixente, bai. Ona izen orren etimologia: "Ama"- "Ñungo": "De Donde"- "La Madre". Gauza errezagorik!

Bapo! Baiñan etimologi orrek, adiskide, zure billobatxoekin izkirimiri-jaurtika jostatzeko izan ezik... ez dizu beste ezertarako balio.

Beste bide batetik ibilli bearko dugu, beraz, baike euskaldun-antza artzen dio-dan izen orren etimologi-billa saiatu nai ba'dugu.

Egia da "Ama"z eta "Aman"ez asten diran itzak Erroma zarreko laterak bazi-tuala, baiñan atzerritar-itxurakoak danak, eta geienez mitologiko sasijainko ta sasijainkemeenak.

Burura datorkit mitologikoa ez dan izen bat, naiz izen ori zeraman tokia Erroma'tik naiko urruti zegoan tokia izan: "Portus AMANUS", alegia: Gure Ibai Zabalean zegoan kai ura. "Aman-us" Portus? Kai "Aman-darra"? ala Ama-nus" Portus, Kai "Amatarra"? Erantzunge utzi bearko ditugun galdeak. Ez bait dakigu Amanus orren aurrizkia gizakume baten —"Aman" zeritzan gizakume baten-izena, edo "Ama" esaten zitzaion lurralde baten izena dugun.

Guztl ori, "Aanus"en enbor-itza "Ama" edo "Aman"n ba'da, agian enbor ori "Amaiean" izan bait daiteke gure gotzai aren Amanungus'ena bezala.

Dana dala "AMA" izan edo "AMAN" izan "Amanus"en enbor-itza, AMUNU-S orrek aidetasunik aski baduala dirudi gure gotzai Okatar aren izenarekin: AMANU-ngus, edo, beste era batera idatzi oi zuan lez, AMANU-nko".

Era ortan, Bizkai'ko kaia "Amanu-s" eta Oka uri zaarreko gotzai "Amanu-ngo" nolabait izenen bidez senideturik egongo lirake.

"Amadeus", "Amantius", eta orrelako izenak erdiaroan kristautasunetik sar-tuak ditu laterak. Ez dute gaiñera gure Amanungus orren itxura aundirik.

Ama-nungus edo Amanu-ngus'en atzizkia "ungus", "nungus", "norentasuna" edo "nongotasuna" adierazten dun atzizki latindarra dala dirudi.

Ortiz, "Amanungus", euskeraz "Amatarra" edo "Amarena" izan daiteke noski. "Maternus", lateraz.

Baiñan indarka aterea dala iduritzen zait etimologi ori. Gaiñera, orrela ba'litz, ez da ikusten zergaitik ez zaigun izen onekin agertzen gure gotzai ura Toledo'ko V kontzilioan (636), bearbada Amanungus bere izena "barbaruergia" iritziz, Maternus ez baiña Amantius izenpetu bait zuan: "Ego Amantius Aucensis ecclesiae episcopus subscripsi": "Izenpetu dut nik ere, eliz Okatarreko gotzai onek".

Agian orixe ainzuzen, Amantzio, (izanen zala bere egiazko izena?)

Ez bá; berealaxe, Toledo'ko VI kontzilioan (638) bere izen ori AMANUNCO idatziko bait digu: "Amanuncus ecclesiae Causensis (sic) episcopus".

"Ama", ordea, aurrezki toki adierazle bezala ere, oso-oso sarritan agertzen zaigu Euskalerrian: adibidez "Ama-ra" donostiarra datorkit gora, eta Eibar'ko Ama-ña, Tolosa'ko Ama-roz, Naparroa'ko Ama-yur, Araba'ko Ama-rita... Araba'n bakarrik berrogeitik gora aldiz agertzen da "Ama" ori, ainbat bider aipatua dugun Gereñu'ren liburu ezagunean. (11)

Zer esan, azkenik, izen orri-buruz? Ez dakit. Nik euskaldun-itxura aundia artzen diot. Danadala, izenek, batez ere eliz-gizonen izenek, ez dira oso giltza ziu-rra gertatzen izen oiek daramazkitenen jatorriari dagokion illunbea iriki ta argitu aal izateko. Antziñako gizon aiek, gaiñera, adintsuak zirala bataiatzen ziran, eta ez da arritzekoa, bataiatzerakoan edo beintzat apaiz sagaratuak izaterakoan edo lekaidetxe batera sartzerakoan beren jatorrizko izenaren gaindik Eliza-baitan ospetsua zan Doneren baten izena artu nai izatea. Berealaxe ikusiko duzu izen-aldaketa oietako baten adibide bikain bat.

Aski arrigarria gaiñeral

Esan dezagun, gotzai onen ataltxo oni amaia eman ez, Amanungo Toledo'-ko V eta VI kontzilioetan an bildu zan gotzai-taldekoa izan zala. Urte oietan, (363'an eta 638'an), Oka, berriro, Bisigoten menpean zetzalako adigarri ziu-rra.

V'en kontzilioan, eta baita IV'ean eta VI'ean ere, izan zan aipatzea merezi duan beste gotzai bat. Zergaitik aipatu bearra? Bere izena "Basconio" zalako: "Vasconius ecclesiae Lucensis episcopus". (Vives'ek 1.c.224) "B"z, Basconio, gaztelaretzen digu gotzai aren izena).

Nik, beintzat, IV kontzilio ortan ikusi dut aurreneko aldiz Basco edo Basco'tik datorren Basconio -giza-izen bezala erabillia. Gero bai, Iberiarra esaten zaion erdi-ugarten onen sarkaldean maiz agertuko zaizkigu, Portugal'en adibidez, "Vasco" izen-duten gizasemeak. Oroi Vasco de Gama Urrun-Sortalderako bide iriki zuana, Vasco Pereira margolaria, Basco Núñez de Balboa Ameriketako lur-atzilari estremaduratarra... Ez aztu Ispanietan sarkaldekoa zala gure gotzai ura ere: "Lucensis": "Lugotarra".

638'an il zan Amanungo. 653'an agertzen zaigu Oka'n gotzai berri bat: Litorio. Bi urte oien artean beste 15'eko utsunean dago.

648'an egin zan Toledo'ko VII kontzilioa. Baiñan ez zan joan kongtziklio arte-ra eusaklurietako gotzairik.

Euskalerrria bere semeen eskuetan yare aukitzen zalako adigarggi egokia, nere eta bste askoren usstez.ust

(11) Gerardo López de Guereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa seguido de los Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses". Euskaltzaindia". Barcelona 1989.

Bai ordea Basconio zeritzan bat: "Vasconius etsi indignus Lucensis ecclesiae episcopus": Baskonio, naiz duintasunikge, eliz Lugotarreko gotzaia"

STERCORIUS (683-688):- Orra or, oso-oso oituraz kampoko izena zuan eliz gizona: "Stercorius", "Kakontzi". Bá bost urtez izan zitzaigun Kakontzi ori Oka'ko gotzaia, "Stercus", latiñez, "zimaurre" da, "kaka"; eta "sterkorius", "lлено de estircol, lлено de porqueria" Raimundo De Miguel'en iztgegia: ots, "kakaz betea", "kakontzia".

Parregarria? Kontuz! Garai artan, izen ori zuala-ta, ez uan iñortxok gotzaia are lepotik parrik egingo. "Distingue tempora...!"

An, Okamendi'n, izan zan IX mendean itzal aundiko lekaidetxe bat, Bilibio'ko Donefelize V mendean anakoreta edo bakarti euskaldunaren omenez sortua. Eta ango lekaidetxe ori VII mendean ere an zegola eragopen aundirik gabe sinistu daitekean gauza dugu. Nik dakidanez, IX mendearen erdian, Kukulla'ko Donemillan'en lekaidetxe dokumentu batean 862'an agertzen da aurreneko aldiz lekaidetxe ura: "Monasterium Sancti Felicis Aukensis".

Bai ote zan lekaidetxe ori VII mendearen azken aldera? Baietz esango nuke nik, ordurako zarra bait zan Kukulla'ko. Eta Kukulla'koa sortu zuan Donemillan'en maixu izan bait zan Bilibio'ko Felize Donea.

Oiturazkoa zan, berriz, Gotzaia lekaidetxeetako abaten artetik aukeratzea. Seguruaski Donefelize'ren Lekidetxe artako abata izago zan gure gotzaia au, eta eskierki lekaide-bizitzara sartzerakoan, apaltasunez artu zuan beretzat alako izen parragarri ura.

Eta ez uste, ori egitean txolinkeriz ibilli zanik. Seguruaski bai bait zekian izen ori bera, "stercora", Paul Doneak erabilli zuala bere epistoletako batean, filipostarrei (111,8) onako oiur bikain au ozenki jaurti zienean: "omnia arbitror ut stercora ut Christum lucrifaciam", "Kristo nai dut irabazi; zimaurre dut etsi, gaiñerako guzti"

Okamendiko gure lekaidetxo ark ere, Kristo irabaztea besterik ez zuala nai, eta ortarako eta gaiñerako guztia kaka etsi bearako zuala iñoiz aztu ez zezan, eta, bai noski, bere apaltasun-egarriari amore emanenez artu-bide zigun izen bitxi ori, Donepaulen esakizun ura gogoratu.

Bisigotak bere gotzai-uraren nagusi jarraitzen zutela jakiñerazten digu Esterkorio 683'an eta 688'an Toledo'ko XIII eta XV'garren kontzilioetan, egon izateak.

XIV'ean ez zan egon eta ez zuan ordezkariarik ere bidali. Ez da arritzekoa, XIV ori, 684'ean, Toledo'ren eliz-probintzi utseko kontzilioa izan bait zan.

OKA, ETA EUSKO-BISOGT GUDATEA: Euskalerrri'ko muga-mugan zegoalako, eta euskaldunen eta bisigoten gudaketa, 572'an Leobigildo'k Toledo'n burutza jantzi zuanez gero amaigabea izan zalako, ederki eman dezaigukete borroka aien berri Oka'ko gotzaiek, beraiek oartzeko. ikus nola:

Leobigildo'k Bisigoten buruntza jantzi zuanetik 711'ean Tarik Gibraltar ("Gabal-Tarik" ots, "Tarik-Mendi")n agertu arteko epea, 15 kontzilio bildu zituan Bisigoten Elizak (eta Bisigoten Laterriak), gotzaiak eta agintariak batean biltzen zituzten Batzar ospetsu aiek, Elizaren kontzilio aiña izan bait ziran Laterriaren lege-batzar.

15 oietatik itzaljk aundienekoa III jzan zan. 589'an Rekaredo errege zala ospatu zana. Ordura arteko arianikeriari uko egiñez kontzilio ortan biurtu bait ziran katoliko Bisigotak, erregea bera aurreku zutela. Kontzilio ortara ez zan Oka'ko gotzairik joan, orduan oraindik Aiekin gotzairik ba'zan ere ez bait dakigu, dokumentuetan aurrena agertzen zaiguna 589'ko Asterius dan ezkeru.

ZAZPI dira, Oka'ko gotzaiak izenpetu zituzten Toledo'ko kontzilioak:

—589'an, III'a, ARSENIO'k.

— 597'an, kontzilio txikia, ARSENIO'k.

—(633'an, IV'ean ez zan Oka'ko gotzairik agertu).

—636'ean, V'a AMANUNGO'k.

—638'an, VI'a AMANUNGO'k.

—(646'ean, VII'era ez zan Oka'tik gotzairik joan).

— 653'an, VIII'a LITORIO'K.

—(655'ean, IX'ean; 656'ean, X'ean; 675'ean, X'ean; eta 681'ean XII'ean ez zan Oka'ko gotzairik izan).

—683'an, XIII'a, ESTERKORIO'K.

—(684'ean XIV'ean ez zan Oka'ko gotzairik izan.

—688'an, XV'a, ESTERKORIO'K.

—693'an, XVI'a, KOSTANTINO'K.

— 694'ean, XVII et azkeneko kontzilio toledotarrera ez dakigu Oka'ko gotzairik joan zan, kontzilio ortako agiriek ez bait dute an bildu ziran gotzaien izenik ematen, soilki "Ispanjetako eta galietako gotzairik geienak bildu zirala" diote: "Pleriqu Hispaniarum et Galliarum pontificas convenisse".

Oka gotzaien Toledo'n egote ori naikoa dugu an egon ziran urte oietan Oka Bisigoten mendean zegoala ziurki jakiteko.

Baiñan beste 8 kontzilioetan ez zan Oka'ko gotzairik agertu:

III'ean ez izatea, ez da arritzeko gauza, esan dugun lez, 589'an Oka'n gotzairik ba'zanik ere ez bait dakigu.

IV'era ez zan joan Asterio. Izan zuan joateko betarik aski, naiz bera gotzai sagaratua urte ortan bertan izan ba'zan ere, kontzilio ez bait zan Abenduaren 5'a arte asi. Eta urrengo urte guzian jarraitu bait zuan.

VII'a, IX'a, XI'a, XII'a, XIV'a eta XVII'a ere Oka'ko gotzairik gabe bildu ziran. Ez dakigu, ordea, urte oietan (646, 655, 656, 675, 681, 684, 688, 693, 694) Oka'k gotzairik izan zuan.

Alare gertatzen dira gauza ulerkaitzak. Adibidez:

683'an, Esterkorio'k, izenpetu zuan XIII kontzilioa. Urrengo urtean, 684'ean, ez zan XIV'ean agertu. Bai ordea andik lau urtera, 688'an, XV'era. Zergaitik ez ote zan joan bien erdikora?

693'an XVI kontzilioan zan Kostantino, baiñan urte bete geroago, 694'ean, ez zan XVII'era agertu. Urte beteko epe labur orren barruan il ote zan?

Euskal-urietako gotzaiak, adibidez Oka'ko gotzaiak, Toledo'ko kontzilioetara joan ez ziran urte aietan Euskalerriko uri aiek—Oka, zeazki, gure iker-lan oni dagokionez—, Euskaldunen eskuetan aurkitzen zirala esan al daiteke?

Ezin izengo dizut erantzun eskierrik eman. Kontzilio guzti aietara ez bait ziran Bisigotiarren erreiñu ber-bereko gotzaietatik ere ez bait ziran kontzilio guztietara gotzai guztiak agertzen. Ez dakigu zergaitik, esan dugun bezala, bai Eliz-legeen aldetik bai Laterri-legeen aldetjk garrantzi aundikoak bait ziran kontzilio aiek.

Baiñan iñorentzat arras garrantzitsuak izatekotan euskal-urietako gotzaientzat ziran arras garrantzi au aundikoak, amarik gabeko borroka-mugan zeuden uriak bait ziran ajek. Orregaitik, biziki bearturik zeuden uri ajetako gotzaiak, beraiek

joanda edo ordezkariak bidaliz, batzar aietan batzarkide izatera; bai an agindutako-
en jakitun izateko, bai erregeen asarrerik ez piztutzeko beren buruen aurka.

Orregaitik bajetz esango nuke nik: Nere aolku au estuegi artzeke, uste izan deza-
kezula gure urietako gotzaiak Toledo'ko kontzilioetan ez agertzea, uri aiek Bisigoten
menpetik yare euskaldunen eskuetan zeudelako siñale naiko ziurra dugula.
Bestalde, ori izan oi da edestilarj geienen ustea.

Ta, mitra bururatu zuanean berriro bere gotzai-uriaren nagusi bisigotak zirala jaki-
ñarazten digu Esterkorio'k, Oka'ko gotzai lez Toledo'ko

XIII (983) eta XV (688) kontzilioetan partaide izatearekin.

Latiegi'tar Bixente





ARZELUS ETA TOLEDO'TAR ANDER, "LUZEAK" IZENORDEZ EZAGUTUA

Donosti Zarrea'an, San Jerónimo kalean, Dagornilla'k 15, Ama Birjin egunean, jayo zan.

Gurasoak, Arzelus'tar Andrés eta Toledo'tar Naxari. Gure aitona, lenengotako abertzalea, Arana Gori'tar Sabin'en asierako jarraitzalea izanik, kristau eta euzko giroan jayo zan, eta biak ondo bereganatu zitun. Aitona Euzko Abenda'ren Ereserkia abestuaz il zan; bere abertzaletasuna adierazteko naikoa dala uste det.

Gure aitak, len esan dedanez, ondo jaso eta barren barrenean sartu, Kristautasun eta Abertzaletasuna alegia; bai eta bere bizi guzirako jaso ere.

Amabi senide izan ziran eta bera zan zaarrena. Ikasketak Marianiste'tan egin zitun, 15 edo 16 urte bete arte. Andik aurrera, bizibide edo "carrera" egin bear zan eta egun batean, aitari au esan zion:

"Aita, zein ikasketa egin nai ditugun galdetu digute eta nik "ingeniero" izan nai nukela esan det".

"Baña ezin da —erantzun zion aitak, saminduta— lenean asi bear dezu tal"

Gure aitarentzan oso gogorra izan zan au, baña bera ezagututa, laister adaratu edo "konformatuko" zala ziur naiz. Orduan, Donosti'ko Aurrezkitegian sartu zan eta antxe jarraitu zun lanean 1936'ko guda arte.

1923 ngo. Ilbeltza'k 26'an, Arrieta ta Zunda'tar Amalia'rekin ezkondu zan eta lau seme-alaba izan zituzten. Ni Amale, Itziar, Ander eta Iñaki.

Baña ez uste izan, Aberri eta Euzkera'ren alde jo ta ke lanean jardun arren, gu, bere sendia aaztuta edo alde batera utzita geudenik, ez orixe. Nolabait gurekin egoteko, ibiltzeko astia ateratzen zun. Ez geneukan gure aita saltzeko, ez orixe!

Gure etxeko euzkera arazoa adierazi bearrean naiz, gure aita eta baita gure amaren omenez. Gure ama, jayotzaz donostiarra zan banajatorriz naparra. Aita Iruna ingurukoa eta ama Elgorriagarra. Amal Donosti'ra neskame eta aitona irar-kintzara etorri ziran. Donosti'n ezagutu eta bertan ezkondu ziran.

Aitonak, Iruña ingurukoa izanik, etzekin euzkera; amonak berriz, Elgorriagarra zaraez, gara; adan, euzkera besterik etzun jakingo Donosti'ra etorri zanean. Nolabait elkar ulertu zuten ala ere, ezkondu eta bi alaba izan zituzten ta... Onekin, gure amak euzkera etzula ikasi adierazi nai det. Elkar ezagutu zutenetik, aita, amari euzkera irakasten asi zitzaion, baña gure amak izkuntzak ikasteko ezintasuna zun; eresirako ere oso belarri txarra zun eta onek zer-ikusi aundia du, itxuraz, izkuntzak ikasteko. Dana dala, alegin guzia egin arren ezin ikasi izan zun eta

atsekabe aundia izan zan au beretzat. Irakaslea zan, garai artan "maestra nacional". Ikaslandua zan beraz, baña izkuntza eta eresi arazoan eziña zun. Aurreko au, euzkerari buruzko gure etxe giroa adierazi aurretik esan nai nizuen; senide artean, ez degu inoiz ere, ez len eta ez orain, erderaz itz egin eta au aitari esker noski baña asko amari zor diogu. Txikitan gurekin itz egiteko aña ikasi zun noski eta ondo sayatu zan eta iritxi ere, guk asieran, txikitan berarekin ere bai, eta gure artean, beti, euzkera erabilli genezan. Gure etxean, kristau, euzko eta euzkal giroa eutsi izana, aitari eta amari zor diegula adierazi nai det ba edeskizun onekin.

Guda aurretik idazle zanez egin zitun lanak adieraziko dizkizuet:

Bere lan geyena izparringi eta aldizkarietan egin zun. "El Día" izparringian eus-kalorria zun bere gain, bertako zuzendari zan eta baita idazle ere. Ona izparringi ontan idatzi zun lenengo idaz-lana.

TXOKO BER'ITIK, AGUR

Ortze ta lur, dardarez ikara bizian euki zituan europar guda izugar'i artan, amaika aldiz irakur'i degu: alako muño gureganatu degu, aruntzagoko tontor ura kendu diegu etsaiari". Alako muño ta aruntzagoko tontor'a etzituen izenez inguru er'itako geienak ere ezagutzen ordurarte. Ta ainbeste ta ainbeste gazteren bizi truk irabazitako muño koxkor edo tontor kaxkar aiek menderatzean, mundu oso zear zabaltzen zan garaipen or'exen ber'ia.

Europar guda, gogor'a izan zan. Egundaño ikusi gabeak bai genitun, ainbeste deabruzko tresna, gizakalterako batera lanean. Europar guda gogor'a izan zan. Baña ez uste gogoz ba'rendik ain mingar'ia euskal izate alde darabilgunn lanbidea.

Lanbide ontan, askotan arki oi ditugu (geiegitan esango genuke) atzerapideak. "Gaizki gabiltza... Onela jar'aitzekotan gureak egin du... Egiñal guztiak alper'ikakoak dituzute, ez dezute ezer iritxiko... Amar urte bar'u ez da euskera apurik entzungo..." itzetik ortzera entzungo dituzute, gai au ikutu bezin laister. Epel dagona oztuko luteke, ar'anoak ezpadu, gure arteko igarleok. Ez noski gauza ber'ia esaten digutelako: ¿Ez ote ditugu ba gure mugak gero ta estuago nabaitzen? Baña ez ba zaio inori on itxaropen _gabeko ekin bear'a.

Ona ba gaur, europar gudateko buruak egin oi zutena egiteko garaia eldu. Gure gaurko "partia" auxe izan bedi: "Euskaltzaleok gaiur bat geigo menderatu degu. Gaurdaño gure kalteko izan dan txoko bat gureganatu degu. Aur'erantz, euskerak, Gipuzkoa'n zabalpide ber'i bat izango du. Zabalpide berezia, eguneroko zabalpidea. Gorantz biotzak, itxaropena sendotu, ta aur'era".

Ez ditzagun beti begiak galbidetara itsatsita euki. On da Itxuitxuan ez jokatzea, baña ez ordea itxaropena galtzeko ar'ixkuan jartzea.

Sinistu beraz, gaurkoa aur'erakada aundia degula ta gaurkoz ez aur'erantz besterik begiratu. Noizbait bear degu guk ere, alako pozaldiren bat.

-o-o-

Ona beraz gure lumak (idazkortzak), eguneroko lanbide ber'iarri lotuta.

Gaurtik aur'era, zuekin, irakurle maiteokin, etengabeko jardunaldia izango degu. Goizero, goizero, zuen etxetara iritxiko da guk iunabar'etan nolabait jositako itz er'enkada. Udaber'iko intz izango al zaizute, zuen euskaltzaleatasun erne-aroan batzuei. Ta udaraldeko bustialdi atsegin, euskaltzale egiñak zeratenoi.

Gaurtik aur'era, euskal idazle maiteok, zuen laguntz bearrean nazute. Leku aundirik izango ezpadegu ere, egunero bete bear'a naiko aundi.

Zuek, er'i izperkariok, ain oparo eskeñi oi dezuten lana ukatuko ez diguzutela esango genuke. Bialdu beraz zuen ber'i idazkiak, baña ar'en, laburki idatziak eta ondo ornituak bitez.

Elertidazleok (literatook) ere bear zaituztegu ordea. Ez da naikoa, norbaitek egin izan duan bezela, er'itako ber'iak euskal irakurleak asetzeko gai ez dirala esan, eta berak euskeraz ederki egin ar'en, laguntzik apur'ena ez eskeintzea. Atozte, atozte, zuek ere, ta zuen adimen-irudimen argiz euskera edertu ta irakurleak ase. Ez ordea, ber'i idazleen lan txalogar'iari par egin eta etxean gelditu. Oiek dagokjena betetzen dute beintzat.

Guziok maitasun batek elkartu gaitzala. Ta idazleok, idazkiz, eta irakurleak abegi onez, indartu zugun lañ uxatzale datorkingun or'itxo alai au.

-0-0-

Agur ba, txoko ber'i ontatik.

Lendik ezagun zeratenoi, lagun zar baten besarkada.

Adiskide ber'i izan bear dezutenoi, bostekoa.

Ta agur, ber'iro ere, euskaldun anaiok.

LUZEAR

"Argia" aldizkarian ere idazten zun, eta bertako zuzendari zan Garitaonaindia apaiz jauna gaxotu eta il zanean, aldi batean zuzendari edo zuzendari-ordekoa izan zan.

Irratian, "Radio San Sebastián" en, besterik etzan orduan, gure aitan eta Zubimendi'tar Jose k, asteazkenero, euzkal irratsayoa antolatzen zuten; aste batean gure aitak eta bestean Zubimend'k. Oso irratsayo polita eta atsegiña izaten zan. inguruko errietatik etortzen ziran eta abestu e.a. egiten zuten. Aitak eraturtasakoetan, askotan ni izten nintzan aurkezle "espiker" orduan esaten zan bezela. Irratsayo auetarako euzkal irakas-bidea ere gertu zun eta irrati bidez ematen asi. Gara; artarako oso aurrerakoya zan ekintza au, 1932-36, gutxi gora bera; garai artaz ari natzaizue, gero! Irratiz ematen genuen ba, aita irakasle eta ni ikasle, onela galde-erantzunak egiñaz. Etxerako ariketak ere ematen zitun eta egingidakoan gure etxera bialtzeko.

Antzerki arazoan ere jardun zun. Lengo Kursal'en azpian, "Poxpoliñak" zeuden, au Laborda'tar Ramón apaizak, beste batzuen laguntzaz noski, aurrak biltzeko sortu zun. An biltzen zan aur pilla! Euzkeraz abestu, itz egin, baita dantza ere ikasten zuten; guzia jolasen bidez. Antzeztokia ere ba'zan eta urtean bein edo, antzerki leyak eta egiten zan. Auen antolaketan ere sartua zan. Urte ayetako batean, azterlari edo iritziemalle (crítico) izan zan, baña geyago ez izateko asmoa artu zula gogoratzen naiz. Norbaitek berak esandakoa gaizki artu eta naigabetu egin zan. Ixtilluak izan zitun eta oso kezkatuta gelditu zan eta baita asper-tuta ere.

"Neskamearen marmarrak" izeneko bakar-izketa bat idatzi zun, nik antzezteko. Oso bakarrizketa polita eta parregarria da. Ezagutzen ez genuen "Gibelaundi" izeneko elkar-izketa azaldu zaigu, edo eman didate obeto esanda. Lengo urtean izan zan noski, D. Toribio Alzaga'ri omenaldia egin ziotenean, orduko beste idazle batzuen lanak erakutsi zituzten et neregana etorri zan Eugenio Arozena, Udal-

etxeko Antzerki sailleko zuzendaria, gure aitaren lanen billa eta gero berak ekarri zidan aitaturako elkar-izketa ori. 1929'an idatzia.

Itzaldi batzuek ere eman zitun baña etzizayon oso atsegin eta ni —itxuraz-berritxu eta lotsagabe xamarra nintzan eta orduan itzaldjak idazten zitun, nik esateko. Pozik joaten nintzala oroitzen naiz eta an egoten nintzan, gizon eta emakume artean nere txanda iritxi zai.

1936'gn. urtea iritxi zan eta Uztailla'k 18'an guda ikaragarri arek bizi guztia goitik bera jarri zigun. Gure aita Euzko Alderdi Jeltzale'ko Uri Buru Batzarrekoa zan eta asjera artan, oso naastua zan guztia eta lana izan zuten zein bide artu jakiteko. Egoera aztertzeke batzarrak egiten zituzten eta azkenean artu zezaketen bide bakarra artu zuten, nere ustez.

Donosti'ra "requetek" inguratzen ari ziran eta aita kanpora joana zan. Ez genekin non zebillen eta Alderdi'ko lagunak laister etorriko zala zioten. Ia gañean genitunean, (requetek) Zarautz'a joateko mezua eman ziela eta ara joan giñan. An giñala etorri zitzaigun aita. Ez genun jakin orduan, guk beintzat, nun ibilli zan, —ba'diteke amak jakin izatea, ez naiz oroitzen— Gero jakin genun, José Antonio Agirre eta ez naiz oroitzen bestea zein zan, Madrid'en izan zirala Euzko Araudia edo "Estatutua" legeztatzeke zuzemenetan (trámite) eta izenpetzeke. Pentsa zein arrixkutsua zan bidaldi ura, garai artan. Orduko egazkiñez, Franco'tarrak zuten Burgos gañetik... Obe izan genun bai ez jakin izana!

Zarautz'tik Deba'ra, an egun batzuek egin eta Lekeitio'ra eta gero azkenik Bilbao'ra. An zazpi'ren bat illabete egon giñan. Ez genun askorik ikusten gure aita, egoera artan, egoera ikaragarri artan, Euzko Alderdi'ko Buruetakoa zanez, etzun egoteko astirik izaten eta. "Eguna" egunkarjan ere zerbait jardun zala ba dakit baña garai artako lanen zeaztasunik ez dezaket eman.

Bilbao'n zazpiren bat illabete egin ondoren, gure ama eta senideok, Habana itsasontzian sartu eta lenengo Frantzi'ra eta bereala Ipar-aldera edo "beste alde-
ra" ordun esaten genunez, joan ginan. Aita Bilbao'n gelditu zan. Gero "faxistak" gañean zituztela, iges egin bear izan zuten, jakiña! eta Laredo'raño iritxi ziran. Euzkadi galdua zanez, euzkotarrentzat guda bukatua zala ta aal ziran guztiak erbesteratzeke alegiñak egin zituzten, baña asko ziranez ezin guztiak alde egin. Orduan, an ziran buruetakoak, gelditzen ziran gudariak ezin zituztela bakarrik utzi eta bereetako bik beintzat gelditu egin bear zutela erabaki zuten. Zein gelditu jakiteko zozketa egin zuten eta beste batzuekin, ez naiz ondo gogoratzen zenbat ziran gure aitari gelditzea atera zitzaion.

Oso gogorra izan zan guretzat, geyena gura amarentzat noski, gu oraindik oso gazteak bai giñan.

Laredo 'n atxilotu zituzten. Italiar gudari mende jarri ziran. Auek, italiarrak alegia guda- atxilotuentzako legea beteko zutela agindu zieten, baña jakiña!, agintea zutenak Franco'tarrak ziran eta bereala iritxi eta agintea artu zuten, Italiarrak alde batera utziaz. Laredo'tik Santoña'ra eraman zuten, andik Bilbao'ko Larrinaga'ra, azkenik "errudun" aundienakin Burgos'ko Penal'era. An bost urte t'erdi igaro zitun, lenengo urtea eriotz-zigorra gañean zula. Urte aren barruan asko erail zituzten, aien artean, Markiegi'tar Polentzi, Deba'ko Alkatea. Erailtzera zeramatela, bere agurra onela izan zan, gutxi gora-bera:

"Ni ezkerro, zuek ere laister izango zerate, gero arte ba". Eriotz egunean au idatzia utzi zun, "Nere emazte eta alabagatzk ez ba'litz, gaur nere egunik zoriontsuena izango litzake" —au ere gutxi gora-bera—. Il aurrean, "en capilla" erderaz esaten danez, beste zortziren bat lagunekin egon zan; denak edo geyenak beñe-pein, sinisgabeak. Gau artan, berari esker, aitortu eta Jaunartu zuten. Onelako gizona zintzo, adoretzu eta kementsuak jil zizkiguten!

Nolabait igaro zun ba gure aitak, eta bera bezela ziranak ere bai noski, eriotz zigorra ganean zuten urte ura. Gauero norbaitzuk, urrengo goizean erailtzeko aterazten zituztela. Guda baño len, gure aitari entzuna nion eriotz-zigorra ikaragarria zala; berakirjatan bear izango zula esan ba'liote...!

Etzun espetxean astia galdu. Euzkera irakasketan jardun zun eta irakasten ari zanakin batera Euzkera Irakas-bidea ere idatzi zun. An izan zitun ikasleen artean bat Koldo Mitxelena izan zan.

Bi edo iru antzerki idatzi zitun; "Diru gosea" bat eta "Kilkir abestia" izeneko eresantzerkia bestea. Azkeneko au Shakespeare'k idatzitako "El grillo del hogar" eleberritik jaso. Eresia, berekin espetxean zegoen Bilbo'tar Bengoa jaunarena da. Oso maitea zun lan au gure aitak, eresia eder ederra zala esaten zun. Eresia pixka bat besterik ez det entzun, baña entzun nuna atsegin izan zitzaidan. Antzerkia oso pokta da; eresia, dantza... bete betea da, baña orain arte ez degu ezer egiterik izan. Gure aita il da gero, ez dakit zein urtetan, Bengoa jauna, San Anton abesbatzako zuzendaria zala, gure aitaren omenez abestaldia eman zuten. Orduan ez genun jakin baña gero au jasota zegoen eres-idatzia norbaitek ekarri zigun. Aspaldi xamar da eta ez naiz oroitzen nor izan zan, baña pozgarria izan zan guretzat au jakitea.

Abesbatza, ez nolanaikoa, eratu zun Bengoa jaunak, bera zuzendari zala. Gure errian abesbatzak eratzea ez inoiz zalla izan, pentsa ba, an espetxean ainteste gizon, egun guziaz beretzat zutela nolakoa izan ziteken, eta baita izan ere! San Pedro egunean Burgos'ko jayak izaten dira eta egun ortan, San Pedro egunean alegia, Eliz Nagusi'ra edo Catedral'era eramane zituzten Mezetan abestera. Zer derizkozute? Onek ondo adierazten du, zalantzikgabe, nolako abesbatza izango zan! Ala ere garai artan au gertatzea arrigarria dala esango nuke!

Bost urte t'erdi igaro zitun espetxean, len esan dedanez. Ezin det espetxe-aldionen berri bukatu, berriz ere gizon ayen adorea, kemena, zintzotasuna gorai patu gabe. Gure aitak, bere eskutzetan gu zuzperten gindun, alderantziz izan bearrean!

1943'ngo. Ilbeltza edo Urtarrila'k 12'an, lendik ezer gaztiatu gabe, etxean azaldu zitzaigun! Ez diteke inola ere adierazi une ayetako... nola esan?... zarrada... biotz-ikara... poza... ez ezin da adierazi. Susmurrak ba-ziran bai, baña gauza garbirik ez zanez, ez genun sinisten; benetan uste-gabekoa izan zan beraz.

Egun oni buruzko gertaera bitxia esango dizuet. Bitorene, aitaren arrebarekin bizi ginan orduan. Aita illuntzean etorri zan, bederatzia aldera; an geuden ba eta txirrina entzun zunean, izeba joan zan atea irikitzea, bana berak ere etzeekin zergatik, aita, aita da esanaz joan zan. Ikusi egin bear zan aren arpegia, bera zala ikusi zunean!

Aita etxean genun ba! Lenengo egunak igaro ondoren, lana billatzea zan arazoa. Ontan zebilela, Nemesio Leal jauna arkitu zun kalean. Au lengo ezaguna zun eta Garaje Leal'eko nagusia izaten gañera, Ernani'ko "Obras y Construcciones Elizaran"go nagusitakoa. Aita ikusi zunean, asko poztu zan eta bere bearra zula esan zion. Españi guzian etxegintza eta orrelakoak zitula eta Madrid'en Idazkola edo Etxe Nagusia. "Ango arduradun edo Zuzendaria izateko bear zaitut" esan zion. Gure aitaren erantzuna au izan zan: "Ez al dezu uste, Euzkadi'tik kanpo naikoa ibilli naizela? Eskerrikasko baña nik orain emen gelditu nai nuke". Irabazi, an ondo irabaziko zun, alde ortatik oso gokiera ona zan, bana gure aitak etzun inoiz ere diru arazoa bere goiasmoen (ideal) aurretik jarril Baña azkenean, indarrean Madrid'a joan bear izan zun. Donosti'ra etorri ta andik iruen hat illabetera, erberteratzeko agindua jaso zun, gutxienez 250 kilometrora gutxi gora-bera.

Espetxean igari zitun urteak etziran naikoa, itxuraz, eta urruti ikusi nai zuten. Orduan Nemesio Leal jaunari idatzi zion gertatzen zanaren berri emanaz eta eskeñi zion lana artuko zula adieraziaz. Bayezkoa jaso zun eta onela adu bear izan zun Madrid'runtz bidea.

An dezute ba Madrid'en. Baña ezin zan bakarrik egon; beti oso sendi malta-lea izan zan eta guda zala eta denbora asko eman bear izan zun senditik urruti. D. Nemesio berak idatzi zigun, guretzat etxe billa zebiltzala esanaz. bestela gizon au erotu egingo zait. Izan ere espetxean baño okerrago zegola esaten zigun; an euzkotar talde aundia zala eta Madrid'en bakartasuna besterik ez zula. Etxea arkitu zuten ba, eta bereala joan giñan sendi osoa. Loraila'k 15'ean, San Isidro eguna, Madrid `ko jayak ziranean irjtxi ginan, ain zuzen.

Urte t'erdi inguru egin genun Madrid en. An, ondo irabazten zun eta alde ortatik ondo bizi ginan, baño Madrid'en!... An, bere lanaz gañera, ba dakigu Ixilpekolanean jarraitzen zula, naiz berak ezer esan ez. Iru edo illabete generamazkznenan, erbesteratze zigorra jaso zioten; adarra jotzeko aña izan zan beraz. Berealaxe idatzi zun Donosti'ra lenbatlen lana billatzeko eskatuaz. Bizi izateko aña irabazi ezkeron naikoa zun. Andik jllabete gutxira, Ernani'n zan "Alm;dones Remy" olan, idazkolako lana eskeini zioten eta aguro asko bayezkoa eman ere!

1944'ngo. Irailla'n etorri giñan Donosti'ra, poz-pozik. Aita, esan dedanez, Ernani'n asi zan lanean. Lan ontatik kanpo, bereala asi zan gaztedia biltzen. Santa Mari'ko gaztediko akin lenbizi. Antzerkiak gertutzen ere bai; asieran au ere Santa Mari'ko gaztediaren aretoan egiten genun.

Ernani'n lanean ari zala, Donosti'ko Aurrezkitegi'ko Zuzendari zan Lamfus jaunak deituzun. Len Esan dedanez, orlxe, Donostz'ko Aurrezkitegian jardun zan lanean, 16 urte zitunetik 1936'gn. arte. Lamfus jaunak deitu zun ba eta bertan lanean asi bear zula esan zion. Gure aitak par egin omen zun, ori ezinezkoa zala esananz, bana Lamfus jaunak ba'zun indarra, itxuraz, eta bertan lanera sartzea lortu zun. Benetan eskertzekoa izan zan gure aitaren alde egin zuna! Baña onegia zan luze irauteko!

Iru illabete gutxi gora-bera izango zan an lanean ari zala eta alako batean bi "polizi" igo ziran Zuzendaria'rengana, Lamfus jaunarengana alegia. Gure aita eramatera zijoazen; orduan Lamfus jaunak ixtillurik etzula nai eta berak igoko zula esan zien, eta bera jetxi zan aitaren billa. Beregana iritxitakoan, goyen bere zai, bi "polizi" zeudela esan zion eta orduan gure aitak ezin igo zala esan zion. "No me haga Vd. eso!" esan omen zion Lamfus'ek, baño gure aitak iges egin zun. Gero, bere billa zergatik joan ziran jakzn zuten, Lamfus jauna berak noski, eta gauza aundirik etzala jakzndakoan. bera loan zan Auzitegira edo eta berriz asi zan lanean.

Andik illabete batzuetara, gau batean etorri ziran, etxera, berriz atxilotzera. Etxean etzala, esan zien gure amak eta orduan etxea arakatzera sartu nai izan zuten, baño gure amak, "El fuero de los españoles" ek zionea, etxera sartzeko epai-agindua edo "mandato judicial" bear zala, eta erakusteko eskatu zien. "Poliziak" orduan; "Señora, si su marido no está en casa déjemos entrar para comprobarlo" —"Sin mandato judicial no entran en mi casa"— gure amak. "Poliziak" asarre, aginduaren billa joan ziran. Ausarta izan zan gure ama, eta gero jakin genunez "El Fuero de los Españoles" ez omen zun oraindik indarrik, bana "poliziak" ere etzekiten ori zorionez. Joan ziran ba aginduaren billa bana atean beretako bat geldiotu zan eta beko atarian bestea. Gau ura nik gogoan dedan gaurik txarrenetakoa izan zan. Aita, etxean zan nosh, eta inoiz ez nun ikusi orduan bezin urduri. "Ezin naute arrapatu" zion. Ixilpeko lanen berri asko bai zekin eta zigortu ezkeron ixilik zenbat iraun dezaken iñor ez dakila pentsatzen bai zun!

Ori zan bere ardua aundiena, besteak zalatzea alegia. Gertakizun auek, Donosti'n San Jerónimo kaleko 23'an 3gn. bizitzan izan ziran. Gure etxeko bal-koyak, batzuek San Jerónimo kalera ematen dute eta bik Puedo kalera. Orain esango dedana ulertzeko au jakn bearra da. Gure aita oso urduri zan, esan dedanez, eta "poliziak" itzuli bano len, nolabait iges egin bear zula. Irugarren bizi-tzan giñan, esan dedanez, eta soka baten bidez bigarren etxeko balkoira jetxi zedin sayatu ginan, bana alperrik. Ain larri ikusita zerbasit egin bear zala ikusten genun, baña zer?

Andik aurrera gertatutakoa ulertzeko al dedan ondoen, etxea, zati batean nola-koa zan adierazi bear det. Irugarren bizitza zan gurea, eta etxea laubizitzakoa zan, eta da noskc. Baña orain esango dizuedan zatia orain aldatuta dago. Orduan, zati batean gure gana tellatua zan. Goiko, laugarren bizitzako bi leyok gure etxera ema-ten zuten. Orduan norbaiti, tellatuaren irten bide batetik ateratzea bururatu zitzyon. Goiko leyoak gure arne-bide edo pasillo batera ematen zuten eta an arasa aundi bat genun, oso garaya edo goitua. Tellatura irixteko laugarren bizitzara sartu bear zan lenbizi; aiatu dedan arasara igota leyora sartu ziteken eta gure bi anayak lagunduta igo zan arasara eta laugarren bizitzara sartu. Esan dedan au guzja, kale-ko edo zurubiko atea oso urbil genula egin bear izan genun, ixilik eta an zegon "poliziak" entzungo ote zun bildurrez. Etzun ezer sumatu Jainkoa'ri esker eta sartu zan ba, esan dedanez laugarren bizitzan. Gero gure anayak esan da dakigu an zer gertatu zan. Sartu ziran ba laugarren bizitzan eta an ere etzan inor esnatu Jainkoa'ri esker, bestela naiz eta oso ezagunak izan, bat batean gauean etxe barrenen inor sumatzean, erreza zan karraxi edo zerbait egitea eta orduan kanpoan zegon "poli-ziak" entzun zezaken ba orrelakorik gertatu eta iritxi ziran tellaturako Iden-bidera. Oso estua ornen zan eta gure anayarentzat errez ateratzeko modckoa izan, berak orduan 16 urte izango zitun, gure aita oso gizena ez baña zulo artarako geyegi; naiko lan izan ornen zuten jrteteko, baña irten zan eta tellatuan utzita aal zun piz-korrena jetxi zan Ander, gure anaya, jantzi guziak eta bera dena beltz beltz eginda-tellatuko zikinakin, jantziak kendu eta oxta oxta sartu zan oyea "poliziak" iritxi baño len. Ordurako guziak oeratu giñan eta etxe guzia arakatu zuten, txoko guziak begi-ratuaz, baita arasen atzeko aldeetan eta azpikoalde guztietan ere. "Polizi" aien jaknduria adierazten dun gertaera esango dizuet.

An ziran idaztiak ere aztertu zituzten eta ayetako bat artuta gure anai Ander'i: "Qué es ésto?" galdetu ornen zion "polizi" batek. "Un libro de contabilidad" eran-tzun zion berak. Iriki eta barrenen, orduko zerbaiten "declaración" en bat ornen zan eta "poliziak" au esan ornen zion: "Es listo este hombre eh? Mira que diplo-ma tiene!" Aita an ez zala argi ikusi zutenean eta alde egin baño len: "Por qué no nos ha dejado entrar antes si su marido no estaba aquí" esan zion buru zanak noski, gure amari: "Señora, por qué nos ha hecho traer el mandamiento judicial si su marido no estaba en casa?" —Porque me atengo a mis derechos, según el Fuero de los Espanoles"— erantzun zien berak. Etziran oso pozik joan, ez orixe, marnarrean baizik!

Baña etzan onekin, gure larrialdia bukatu; an gelditu giñan gau guzia gure aita tellatuan utzi eta zer egin zun ez genekila. Benetan estu eta larri igaro genun gau ura! Len esan det, San Jerónimo eta Puedo kalearekin ixkina egiten dula etxeak. Gure aita orduan tellatutik Puedo kaleko etxeko tellatura joan zan, ango balkoi batera sariu eta gaua an igaro zun. Eztekin ziur noren etxean sartu zan, ori ere beste arriskua zan. Goizean etxekoak irten ziranean, ezagunak zirala ikusitakoan lasaitu zan, bana guretzat gau txarra izan ba-zan, zer izan ote zan beretzat! Gero lasai lasai, Puedo kaletik irten zan eta kanpoan zala eta lasai egoteko mezua biali zlgun.

Ez al da egia gertaera aue- eleberri edo "zinea" dirala? Gure aitak beti esaten zun eleberritan edo "zinean" gertatutakoak, gu-iak, benetan ere gertatzen zirala esaten zun.

Au ala dala egiztatzeko beste gertaera bat edestuko dizuet. Gure aita Ernani'n lanean ari zala, Joseba Rezola Madrid'tik atxilotuta zekartela jakin zun. Orduan bultzi artan igo eta Joseba, bi "guardia civil"ekin eserita zegon aurrean jarri ziran, aita eta Iñaki, gure anaya. Donosti'ra iritxi ziranean, bietako "guardia civil" bat, norbaiten billa geltokira jetxi ornen zan, etzun arkitzen, itxuraz, eta bultzian gelditu zana oso urduri jarri ornen zan eta Joseba'ri "Espere un momentó" esanda jetxi egin ornen zan. Orduan gure aitak Rezola'ri: "Alde egin zak azkar esan eta bultziaren beste aldetik jetxi zan. Gero gure etxera, San Jerónimo kalera joan, eta burdingille baten deitu, laguna izan bearko zun noski, eskubiurra (esposas) autsi eta onela egin zun iges. Ez da asmatutakoa, gertatua baizik.

Ondoren, Donosti bertan illabete batzuetan gordeta egon zan. Ala ere asitako antzerki sayoakin jarraitu zun eta Aldakonea'n Usandizaga'tarren etxean biltzen giñan lan ontarako. Talde artan gebiltzanen izenak, geyenak gogoan ditut. lizaralde'tar Eufeni, Mitxelena'tar Agustín, Etxaide'tar Yon, Otaegi'tar Juanito, Arzelus'tar Itziar, e.a. Aitak alde egin zunean, gure aldetik jarraitu nai bana ezin izan genun. Zuzendari billa ibilli giñan baña azkenean utzi egin bear izan genun.

Illabete batzuetan gordeta egon ondoren, "beste aldera" joan bear izan zun, mendiz eta aal zan bezela noski. Gertaera auek, geyenak beintzat 1946'an izan ziran.

Bi urte inguru egin zitun Ipar-aldean. Donibanbe'n lenbizi eta azkenan Bayona'n, Anglet auzoan. An bere lanean jarraitu zun eta besteak beste ixilpeko Euzkadi irratiko arduradun izan zan. Rezola jauna zan "izenez" arduradun, bana gure aitak atera zun aurrera, bere izena inun azaltzen ez dan arren.

1949'ngo. asieran ondoezik jarri zan. Etzirudin gauza aundia zanik baña ondo jartzen etzanez, gure ama, "muga" nolabait igaro eta beregana eraman zuten. Bere azkeneko lau illabeteetan beintzat etzan bakarrik egon. Etzuten argi ikusten zer zun eta Paris'a eraman ango sendagille ospetsu batek ebakuntza egin zitzaion. Iriki arte, minbizia izan zitekela iruditu arrebm ez zuten au argi ikusten, baña iriki zutenean ondo zabaldua zegola arkitu zuten.

Gaizki zegola jakinik, nere aizpa Itziar eta ni berarengana eramateko era egin zuten, ezin bai giñan bide zuzenetik joan. Ondarrabi'n itsasontzi batera sartu eta itsas barruan, Donibane `ko beste itsasontzi batera salto egin eta onela joan giñan Donibane `ra. Uztaila `ren asiera zan eta oso galdua arkitu genun dagoaneko, baña buruz argi eta kementsu ala ere. Aste bete egon giñan an eta itzule-ra etzan oso alaya izan. Endaya'n artu genun Ondarrabi'ko itsasontzia eta onela etorri giñan berriz Donosti'ra.

Urte artan, 1949'an alegia, Dagonilla'k 15'ean bete zitun 51 urte eta 27'an il zitzaigun.

Bi edo iru egun aurretik, iltzeko zorian zala jakinik, nere anai-arrebak, mendiz joan ziran. Mendian zakurrak ere bota zizkien eta oso gaizki ibilli ziran baña garaiz iritxi ziran beintzat. Ni aurdun nintzan, oso aurreratua; aita il eta andik amar egu-nera jayo zan gure lenengo semea; egoera artan ezin nintzan "bide" oyetan ibilli.

Zortzi egun aurretik, illaren 15'ean, Ama Birjin Egunean eta bere urtemugan ain xuxen, nere senar, Zinkunegi'tar Andoni eta neri 48 orduko igaro-txartela edo "pasea" eman ziguten, eta amabosta eta amaseia berarekin egon giñan. Onek, azkeneko orduan bearekin ez egon aal izateak sortutako naigabea pixka bat arindu zidan.

Ez genun inola ere Donosti ira ekartzeko era izango genunik uste, bana

Muñotarrak, orduko Donosti `ko sendi ospetsuenetakoa, Donibane'n bizi ziran eta ayeke egin zuten gure aita Donosti `ra ekartzeko bear zana.

Ekarri zuten ba gorputza Donosti'ra, bana il da gero ere ezin izan zuten pakean utzi. arratsaldean ekarri zuten. Gure ama eta Itziar, aizpa berarekin etortzeko baimena izan zuten. Ander eta Iñaki, anayak, berriz ere mendiz etorri bear izan zuten. Arratsaldean ekarri, esan dedanez eta urrengo egunean, amarretan illobiratzeko gelditu giñan, iritxi giñanean arritueta minduta illobiratu zala arkltu genun. Ango apaizak esan zigunez, goizeko zazpirak aldera "poliziak" azaldu ornen ziran illobiratzeko aginduz, izkillu eta gzti azaldu ere; apaizak, bidurtuta ezin izan zun ezer egin.


Ez uste onekin guzia bukatu zanjk, elizan ere izan genitun ixtilluak. Illetak Donosti Zaarrean dagon Santa Mari elizan, goizeko amaiketn izango zirala gelditu giñan, baña arratsaldean Santa Mari'ko parrokoak deitu zigun, Gobernadoreak deitu zula, goizeko zortzi t'erdietan egiteko esanaz. Urduri zan eta oso bildurtuta eta guk eskubidea genula esan arren, alperrikzala ikusi genun. Bereala irratira detú genun; Angel Molina zan, orduan esaten bertako "eskiper", aita oso maitea zun eta gertahutakoa adierazi eta irratiz ordu adieraztea nai genula esan genionean, zutena bukatu orduko.

|| da gero ere, eztakit zeren bildur ziran, gizoste edo jende geyegi bildu eta en asmoa jende gutxi biltzea izan baldin ba'zan, al axe zan eta, oso gaizki atera zitzayen. Irratia entzunda, goizean, eliza bete beterik izan zan. Goizean Kalmerdarrak Amara'n duten egoitzara deitu genun, gertatutakoa adierazi eta amabitan meza emango ote zuten galdetu genien; ezpairik gabe bayetz esan ziguten. Orduan, errietatik batez ere, ordu aldaketa jakin gabe, amaika t'erdietan, jendea etorriko zala jakiñik, nere senarra eta anayak, Santa Mari éliz atarian jarri ziran, azaltzen ziranai gertatutakoa adierazi eta amabitan Kalmeldarren elizan, meza izango zala esateko. Amabitan ba, berriz ere eliza beteta ospatu zan elizkizuna. Orrela baten orde z bi elizkizun izan ziran eta biak bete beteta. Ez det uste nnorbaitzuk" oso pozik geldiluko ziranik.

Oitura zanez, etxe atarian maya jarri genun izenpeak jasotzeko, emen ere jende asko zan "cola" luzeak egiñaz.

|| da gero ere ezin izan zuten pakean utzi, bere bildur zirala esan diteke.

Amale Arzelus





"AMALE"RI ERANTZUTEN

Gaztetu egin bear naiz, Arzeluz tar Ander, "Luzear"en ezaupidetara eltzeko. Irugei urte bai beñik bein.

1.930'ko Maiatzaren 30'n, Donosti'n kaleratzen zan El Pais Vasco egunkaria mututu zan eta Bagilla'ren 1'an "El Día" kaleratzen asi. Bertako zuzendari Jose Lekaroz Goñi, lesakarra, 30 urteduna zan.

Gerra ostean alemaniarrak arrapatu eben Iparraldean eta ona bialdu. Lenengo epaia eriotzakoa zan, gero 30 urtetakoaz trukatu, baiña, izparkaritzza betirako galerazita.

Lekaroz aipatzean tartetxo bat egin bear dautsat adiskide min eta lankide zintzo izan neban Jose Mari Arizmendiarriritazi.

Jose Mari beti baikor eta fede oneko zan. Gerra ondoren abade egin eta Arrasate'ra bialdu eben ango parroko laguntzalle. Eta bereala asi zan katoliki Ekintzako gazteekaz lanean, Biteri eskolak lanbidekotan biurtu nairik eta abar... eta Euskalerrirako egunkari bat sortu nairik, Eleizak aldi aretan eukazan aukerekin baliatuta. Eta izparitzza betirako galerazita eukan Lekaroz eukan zuzendaritzat aukeratua, eta an sartzen ginduzen Luzear eta ni be. Baiña garai aretan Gesteizko gotzan zenak Bellester zala uste dot, asmo orreik burutik kendu eutsazan eta ez maitasunez berak apaiz demagogorik ez ebala nai eta gogor egiñaz baiño.

Ikusten dozuenez, erek be gogoan eukan Luzear.

Gizon ixila zan Ander, baiña langillea, beargin aspergabea. Eguneroko lanetan nekerik bakoa. El Día'n euskal ardura euki eban geien bat.

Aldi aretan Garbizu tan Jon, "Zibigar" lez ezagutzen zanari omenaldi bat eskeini eutse Lezo'n. Gregorio Mujika izan zan omenaldiaren eskintzalle eta "Luzear" izlari. Ordukoen esanetan itzaldi sakon eta mamitsua egin eba.

"Euskal Esnalea" aldizkariaren irizpidez elerti lan ederra izan zan berea, olerki arauen zeaztasun ugaria erakutsiaz. Beti ere itz egoko eta apaiñez.

1932 inguruan ais zan Donosti'n euskalzale tringarra inder ertzen.

"Euskerazaleas" sortu zan.

Or egozan, besteak beste, Aitzol, (Ariztimuño), Arozena, Arzeluz, Barriola, Ellas Etxeberria, Txomin Olano, Zubimendi eta abar. Parkatu norbait aaztutea. Eta Euskal egunak gertuten asi ziran, Antzerti egunak, Olerti egunak, eta abar.

Guk Ondarroan, Euskeltzale Bazkkuna sortu gendun, batzokiaren barruan.

Eta Donostitik Antzeztaldean leiaketa iragarri ebenean, emen agertu giñan gu ere Kursaaal'ek bere alboan eukan Antzoki txikian. Antxe ezagutu neban Luzear epai maiko zalako.

Guk, ondarrutarrok, "Oleskari Biak", Jemein-Errazti'rena ekarri gendu, baiña benetako mokoloia egin gendun.

"Oleskari biak" ek bertsolaria agertzen zan kantari. Origaitik ekarri gendun geienbat, paper ori egiten ebanak, gurari bizia agertu euskulako. Abots gozodu-

na zan, aozkera arbikoa. Baiña... bertsoak astu eta or bera ta danok larri, orrelako utsunak sortzen dabe estutasunean.

Txaloak jo euskuezan errukiz eta borondate onez, baña punturik barik. Orduntxe, ondorengo solasaldian ezagutu neban "Luzear".

Antzerki zale eta zuzendari nitzanez, urte orretan irakurri neban Labauen'ek ataraten eban "Anntzerti"n aldizkarian, Ander'en "Neskamearen marmarrak", gatz eta bizitasunez beteteko lantxoak.

1935'n "Libro de Oro de la Patria" argitaratu eban Espel'ek eta an agertzen zan baita Luzear'en "Euzkadi, Agur" orrialde bitako lan gartsuna.

Merezi dau zatitxo bat irakurtea, bentan unkiagarria da-ta.

"Agur, aberri maitagarria,

zere arkaitzak astintzen ditua itsaso sumiña bezin kementsua, ego aizeari jasotako ormatzar antzera zaintzen zaituzten mandi eder aundiak bezin irmoa, mendi oietan jaio ta murmur ixilkaitza lagun dutela, aitez-aitz, egi zear, zillar aritxo iduri ibarreratu, ta exker eskubi datozkien errekatxoek eskein zaz gizendurik a inbeste ola darabizketen ibaiak bezin langillea,

ugolderik burrunbatsuena baño abeslariago alaiadia, eresi ta dantza iturria, biyarko euskoen seaska ta atzokeon illobia,

agur".

1936'en gure gerra sortu eta Urrillean, Eusko Jaurlaritzaz sortuagaz batera, Euskadiko Agintaritzako Egunerokoa argitaratzen asi zan. Urrilla'ren 7'an agertu zan lanengo zantakia eta Ekainillaren 17'an azkena.

Ba dakit Eguneroko onetarako, bizkaitar bateri eskatu eutsela itzultzalle buru izatea, baiña a ez zan aurreratu legerako bearko ziran itz asko itzultzen eukiko zitun zailtasunen bildurrez, ea ori ikusita Tolosa'ko Azkue tar Jesúsés lege gizona artu eben orretarako ta gipuzkoarrak ataraten eben, gipuzkera, Egunkari ori. Luzaear'be tarteko sertzten zan, baiña nire ustez Euskadi Buru Batzarreko zanez, bere zeregiñetako bat orko ardura izango zalako.

Euki neban Bilbaon iru-lau aldiz berarekin egoteko aukera, auskal jai edo baztar edo etzurakoetara agertzen zalea zalako eta gure jarduna beti izaten zan orduan gerabilguzan euskal ekintzen goraberan.

Ba nekien, zuk esan dozun lez Burgos'en espetxean egon zanean, euskera erakusten arduratu zala; bertan egon ziran espetxeratu batzukandik jakin neban ori.

Nik, azkenengoz, Angelu'ko Endara etxean ikusi neban 1948'ko udabarrian, orduan gaitz lortzen ziran ogetalau orduko pase bitartez ara latzek aukera billatu nebalako.

Eta ezan neike kezka eta naigabeak menderatuta iruditu yatala. Andik para bat urteetara jakin nevan il zala.

Berrogei ta sei urte il zala eta ez da mirari zana zalko oraindik bizi gareanok bera oriotza bizi ta gogoratzaa.

Jaunak bizi luzea emon dagitzula, Amale, ain gizon ona zan zure aitaren urratzetan aspergae jarraitzeko.

Zubikarai tar Augustin



BIZKAIKO FORUA DALA ETA AINBAT JAKINGARRI

I.— BIZKAIKO FORUA ETA BERTAKO JAURERRIAREN (JAUNERRIAREN) ASKATASUNA

Bein baiño geiagotan entzun izan dodana: Euskalerrriak ez dauala egundaiño askatasunik edo jabetasunik izan.

Itaun auxe egin dagigun, bada: Erri bat -Bizkaiko Jaurerria, esaterako-, aske eta bere buruaren jabe izan daiten, zer ete da bearrezko?

Legeak beretzat berak egin eta lurralde beratan diran ondasunak berak erabilli eta banandu.

Au da: legegintza eta ondasunen erabilkuntza eta banakuntza. Zeregin biok erri baten ardurapean badagoz, erri ori ez ete da izango besteakandik aske ete bere eskuko? Ez ete dau izango egiazko askatasunik eta jabetasunik?

Legeak beretzat egikeran eta bere eukiak berak erabilkeran beste erriri lotu barik bizi dana, erri ori bere buruaren jaun eta jabe dala esan daitekela dirudi. Ori bai, legeak beretzat berak egiteko eskubidea erri bat, edozeini, ken bada-kio, erri berori ezin ezelan ere aske eta lokabe izan. Besteren morrontzapean eta buztarripean bizi bear izango dau, bestek ezarritako legez bere erri-bizitza eratuz eta etorbideratuz.

Erri-bizitzearen antolabide eta erabide legeak dira, izen ere. Gizarte-bizitzak bere frutuak emon dagizan edo taiuzko bizikidetasun bat gauzatu daiten, legeak nai-ta-naiezkoak dira. Legerik baga naastea letorke berealaxe. Erri-bizitzearen auste, ain zuzen.

Erri batek, ondorenez, legeak beretzat ber-berak egitea eta dituan ondasunak berak erabiltea eta banantzea, beste ezer baiño leenago lortu bear dauan egitekoa da.

Aal-izate b,ok izan zituan Bizkaiko Jaurerriak, foruak indarrean iraun eben artean. Au argitzeko eta egiztatzeko Bizkaiko Forua irakurri baiño ez dago.

I Ataleko I Legeak onan diño:

"Bizkaiko Jaun Bakotxak, naiz aurreko Jauna ill,ok dala eta, naiz beste edozein bideren batez, Jaurreriaren jarraipena eskuratzean, adiñez amalau urtekoa baldin bada, Bizkaira ber-bera etorri eta, zin egiñez, agintzak barriztatu egin bear dituala... Eta bizkaitarrak ori eskatuz gero, aitaturiko onartzea eta ziña egiteko, urte-barruan etor ez badadi, bizkaitarrak naiz Errialde Zabalean, naiz Enkartaldean eta Durangaldean b,izi, ez dag,joela erantzun, ezta urte-sar,peko diran errietako eta baserrietako artuenik eta urte-saririk Jaunari eroateko joan

ere... Eta Jaun onek agindurik eta betebearrik bitartean bialdu badagi, men egin bekio, baiña ez beite gorde".

Atal bereko XI Legeak auxe diño:

"Bizkaiko Jaunak bertako Legeen eta Foruen aurka emondako edo emon eragiñiko Errege-Eskutitzik edo Erabagirik, edozer dala ta ere, edo-eta Legeen eta Foruen aurkakoa izan badaiteke, zuzenka naiz okerka, ez daitela bete, baiña men egin bekio".

Men egin eta bete ez? Zelan jzan lei ori? Gauza bat baieztatzea eta era batera berau ukatzea ez ete da izango berbete ori? Onantxe djrudi begiratu batez. Ez da orrelan, baiña. "Resistencia pasiva" dalakoaren jarrera edo izango litzateke, au da, agirian eta jendaurrean aurkarik ez egin, baiña jaramonik ere ez.

Beste adiera bat ere jzan legikela esan eustan Frantziako Ikastetxe Nagusi baten irakasle dan batek, ots, Erregek bialdu dauan erabagi ori onartzen dala. Ez daitela, baiña, lege egin, edo salbuespen bat baiño ez daitela izan, euskaldunak euren eskuko izatea galdu ez dagien.

Foru-liburu barriak 268 dakarz. Eta legeon asiera geienetan urrengo berbok irakurten doguz:

"Foruz ebela eta legetzat ezarten ebela..."

Legetzat ezarri nork? Jaun Aundiak? Ez. Gaztelako Erregek? Ezta. Batzarre Nagusian alkartuta egozanak, au da, erri-ordezkariek eta Batzarreko beste legegilleak.

Gernikako Zugatzaren pean egin oi ziran Batzarre Nagusiak, beraz, bizkaitarrentzat egiazko legegille ziran. Bizkaiko Jaunak, ots, Gaztelako Erregek -bizkaitarrak onantxe nai izanda, Jaurerriko Jaun askotan berau izan arren-ez eukan ezertarako aginterik, Bizkaiko erriak orretarako eskubidea eta aalmena emon barik.

Gutziz argigarri da gai oni buruz I Ataleko VIII Legeak dakarren au:

"Baita esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela, mendi, usa eta erriko baso guztiak Bizkaiko Aitonon Semeenak diranez, Jaunak ezin daikela uririk egin, ezta egiteko agindu ere... Gernikako Batzarrak eta bizkaitar guztiak onartuz izan ezik"...

Nork egiten zituan Biakairako ziran legeak? Gernikako Batzarrak, edo beste berba batez, Bizkaiko erriak.

Nonori entzun izan dausat, Korrejidoreak, Bizkaiko Jaunaren ordezkari zanez, Legeak onartu arte, Legeok ez ebela indarririk izaten. Badaiteke onan izatea. Baiña baldintza onek ez eban deusezten erriaren agintea, agintariak legeak onartu egin bear zitalako eta, eskubide ori izatekotan, erriak berak emona izan zalako.

Ondasunen erabilkuntzari buruz beste orrenbeste esan daikegu.

Irakurri dagigun I Ataleko IV Legea:

"Baita, esan eben: Legez eta Foruz Bizkaiko Jaunek etxe eta baserri batzuetan urtean onenbesteko errenta eta urte-saria beti izan ebela... Bizkaiko, Enkartalde eta Durangaldeko oletan, ostera, lantzen dan burdin kintal bako txeko amasei diru zaar... Eta beste eskabiderik ez dabela iñoiz izan, ez arieljk, ez bidasaririk... ez dirurik... ez serbitzurik. Bizkaitar guztiek... beti izan dirala

euren eskuko, zitu eta zergabagako, eskabiderik, morrontzarik... eta jzan leiten beste edozein eratako betekizunik izan baga, zein Bizkaian, zein erbeste-an".

Bazituan, bai, Bizkaiko Jaunak bere eskubideak Bizkaiko ondasunai gago-kiezala, baiña eskubide eta zerga orreek Bizkaiko erriak, berak onantxe nai izanda, onartuak izan ziran, nagusitasuna eta jabegoa daben jaun biren artean egin izan dan itunaren eta alkar-artzearen ondorioz ebatziak, ez bestek aginpi-dez ezarriak eta artuerazorikoak.

Foruak bir-eskuratu nai izatea, beraz, orixe besterik ez da. Euskaldunok geuretzat legeak egiteko eskubidea izan dagigula, eta geureak diran ondasunak geuk erabilli eta banandu dagiguzala.

Gure egunotan Foruak bir-eskuratu nai izatea tentelkeria utsa, Erdi-Arora itzultzea dala, orain bosteun urte edo bizi izan ziranez bizi gura izatea, leize-bizitza eroan nai izatea eta onango ergelkeriak inoiz entzun izan djtut.

Onan berba egiten dabenak Forua zer dan ez dakie- Eta ain Foruzale izan dan Euskal erriak zer gura dauan ez dakie. Edo jakin badakie, bearbada, baiña eskubide nagusi ori autortu baiño leen esatekoak esan bear.

Aldian aldiko legeak izango litzatekez. Amaiseigarren mendean mende oni egokiozanak. Ogeigarren mendean beroni dagokiozanak. Beste mende baten mende berorri legokiozanak, eta abar. Besterik esaten ekitea, bitarik bat da: ezer ez jakitea edo Foruen aurka edozein ergelkeri jaurti nai izatea.

II.– FORUA-LEGE ZAARRA-ERRI-ESKUBIDEAK

Forua eta Lege Zaarra bardin ete dira? Edo gauza bat eta bera adjerazoten ete dabe?

Batzuk baietz diño, Forua eta Lege Zaarra bardin dirala.

Bai eta ez, erantzungo neuke nik, edo zeatzago esanda: ez eta bai.

Leenengo eza argitu dagigun, eta urrengo baia.

Orretarako Forua beraren jatorrik izate berezian eta zeatzean zer dan jakin bear dogu.

Foruaren zertasan zeatza mugatu gura bagendu, auxe esango genduke: Forua erri bateko usuarioak eta oiturak dirala, idatzi aurretik ete lege egin aurretik, erriaren erraiñetan sortuta gero, urtetan eta urtetan eta, bearbada, mendetan eta mendetan erri orrek gorde eta bete izan zituanak.

Forua, ondorenez, beronen sortzezko zer bereziari begira bagakioz, ez da lege bat, legearen aurretikoa baiño, ez da idazkun edo izkribu bat, ezer idatzi baiño leenagokoa da. Foruak, esan ere, aspaldidaniko oiturea esan gura dau, edo oiturazko legea.

Au egiztatzeko, ondo letorke Bizkaiko foruak ainbeste bider aitatzen dauan esakera gogora ekarte. Ikusi, argibidez, IV Atala, I Legea:

"Foruz ebela eta legetzat ezarten ebela...".

Foruz ebela, au da, aurretiaz ebela, usuarioz eta oituraz ebela, eta aurretiaz eben ori lege egiten ebela. Orregaitik diño Adrián Celaya jaunak: "Antes de que se escribiera una sola letra, el Fuero existía". (Derecho Civil de Vizcaya y Alava, 15 orr.).

Forua idatzi eta lege egin baiño leenago, errian bertan sorturik, erri-bizitze-

ari egokiozan ainbat eta ainbat oitura zaar ziran, ez inoren aginpidez etorriak, erriaren sabelean berez-berez eta bizibearraren indarrez sortuak baiño. Oituron eta usarioon bitartez mugatu eta eratu eban erri orrek bere gizartearen izanbidea eta bizibidea.

Bizkaiko forua zer dan itandu badagigu, ondorenez, esandako au Bizkaiari egokitu baiño ez daukagu.

Au da:

Bizkaiko Forua Bizkai erriko usuario eta oitura zaarrak dira, usuario eta oituron arabera bizkaitarrak euren erri-bizitza eratu eta zuzendu eben eta.

Bizkaiko errjaren gun-gunean sortzea izan eben antxiñako oiturok eta usariook geroago, urte asko garrenean, Gernikako Zugatzaren pean egin oi ziran Batzarre Nagusietan, idatziz ezarri eta lege egin zituen, eta, arrezkero, esangura zabal baten, Foruari Lege Zaarra ere esan daitekio. Sortzezko esanai mugatua eta zeatza, alan ere, ori ez dala jakin beite. Forua berez lege egin bako eta lege aurretiko usarioa da, agertu dogunez. Ojiturazko legea ere deitu lekiokio Foruari, edo Lege idatzi bagea. Onangoa ei da gaur Inglaterrako legea, nik irakurri dodanez. Eta Euskalerrian Arrantzaleen Kofradiak usarioz eta oituraz ebazten ei dabez euren auziak.

Beste izen bat ere emon dakiokela uste dot Foruari: ERRI-ESKUBIDEAK. Orra berba labur batez dana esanda.

Eskubideok Batzarre Nagusietan legetzat ezarri aurretik, usarioz eta oituraz errian gorde ete bete izan ziran, esan dogunez. Eta gero, errjak bere ordezkarien bitartez Batzarre Nagusietan lege egin.

Forua erri-eskubideen bilduma da, orrexegaitik. Eta erri-eskubideok, legetzat ezarrita gero, liburu baten daukaguz bilduta. Orixo Bizkaiko Forua deritxan liburu.

Euskaldunak izan zituen Foruak -eta Bizkaiak zituanak ere bardin -Erregek emonak izan zirala irakurri izan dot inoiz. Eta Erregek emonak izan ziran ezkerro, Erregek berak bere naierara ken dagikezala.

Bizkaiko Forua irakurri ez daben seiñalea da ori. Lege-bilduma au irakurri izan balebe, ez leukee era orretara berba egingo, ez idatziko.

Bizkaiko Foruak asieran dakarren sarrera luze aretan argi eta garbi dator Bizkaiko Forua nondik datorkigun eta non eta zelan sortu ziran bilduma orrek dakazan legeak.

Ez, ez! Eskubideok ez ziran inork emonak izan, ez Bizkaiko Kargudunak, ez Jaun Aundiak, ez Erregek berak. Erriaren gun-gunean izan eben sorrera.

Ez ziran goitik beera ezarriak izan. Alderantziz, bai, ostera. Beetik gora etorri jakuzan. Lege-indarra lortzearaiño etorri ere, erriak bere ordezkarien bitartez Batzarre Nagusietan lege egin zituen eta. Eta urrengo agintariak onartu, Bizkaiko Jaunak ere bai, Erregek berak ere bai.

Orra erria agintedun eta agintari. Eta bere buruaren jabe, orrexegaitik. Eta demokrazia erriaren aginte era baldin bada, orixe egiazko demokrazia.

III. – LEGE-BILDUMA BI

Bizkaiko Forua BEIN idatzia izan zala irakurri dot oraintsu aldizkari baten. Bizkaiko Foruaz ori esatea eta jendaurrean idaztea errakuntza aundia da Kondairaren aldetik. Azter dagigun, bada, jakingai au.

1526-garren urtean egin zan azkenengoz Bizkaiko lege-bilduma. Eta bilduma oni foru Barria edo Barriztatu deritxo. Ez barria dalako -orduezkero lauren eta irurogeta bederatzirte igaro dira- leenago beste lege-bilduma bat izan zalako baiño, ots, 1452-garrenean osotua eta Foru Zaarra eritxana.

1452-garreneko bagillaren bigarrenean, Santo Domingoko Pedro Gonzalez Korrejidore zala, Gernikako Andra Mari elizan, Foru-Alkateak eta beste Aldun batzuk eskari auxer egin eutsoen Korrejidoreari: Bizkaiko usarlo eta oiturak idazteke egozan ezkeror, jzkribuz ezarte a guztiz mesedegarri izango litzateke-la, idatzi barjk egozalako, erriari kalte aundiak etorkiozala eta. Korrejidorearen aurrean gizon batzuk izendatu ziran, Bizkaiak ebazan usuario eta oiturak izkribuz ipiñi egiezan. Foru edo lege-bilduma au Gernikan aurkeztu zan urte bereko garagarrillaren 21-garrenean.

Irurogei eta amalau urte igaro ondoren -gizaldiaren lau zatitatik iru baiño ez -Forua aldatu eta barriztau bearrea etorri zan.

Zer dala eta ori?

Irakur dagigun zer diñoskun Foru-ljburuak:

"Bizka-jaurerriko Forua antxiña jdatzia, eta ez bakerik, ez zuzentasunik, ez Letrau ugarirjk ez zan aldian, eta Jaurerrian orain daukagun auziei buruzko jakiterik (Jainkoa goratua izan daitela) ez zan aldian eraturia izan zala, esan eben. Ori dala eta, gaur bear ez dan ainbat gauza idatzi zan foruan; beste batzuk, ostera, denporak aldatu egin diranez eta ikusien gaiñera dakigunez, alperreko egin dira; beste batzuk, barriz, erriaren bakebide eta nasaibiderako bearrezkoak diranak eta usarioz eta ojaturaz bete izan diranak ezarri baga dagoz bertan"... (Bizkaiko Foru-liburua, 8 orr.).

Zer jazo ete zan orren epe laburreran -irurogei eta amalau urtetan- Foru Zaarrak ebazan lege batzuk alperreko egiteko eta aldi beratan usuario eta oitura barriak agertzeko?

Erdi-Aroaren amaieran gagoz. Kondairaren aldi barri bat daukagu jaiotzen, antza. Aro barri au ager dakigunean, aldakuntza sakonak eta gora-beera aundiakoak izango dira Bizkaian. Eta aurki etorriko diralakoeran itxurak dagoz. 1452-garren urtean birbildu eben lege-bilduma eguneratu eta barriztatu egin bear, beraz, aldi barriari egokiturik, garai aretako bizkaitarren eritxjz. Orixe izan benetan zuurkiro jokatzea!

1526-garreneko apirillaren bostgarrenean Gernikako Zugatzaren pean egin-dako Batzarre Nagusian, Foru Zaarraren barriztatze-lana egiteko Batzorde bat izendatu eben, amabi gizonez osoturiko Batzordea. "Gizon eskolatu, jakitun eta barru garbikoak eta Bizkaiko Foru, usuario, oitura eta errj-eskubideetan adituak ziranak izendatu bear zirala", esan eben (Foru-liburua, 9 orr.).

Baturik egozan guztjen izenean "bear ainbateko aalmen osoa emon eutseen, eta errja ondo zaintzeko barriztatu egiela (Forua), bertako auzibideak garbitzeko eta bizilagunen nasaibide eta bakebiderako bear zan guztia idatzirik, alperrekoa eta bearrezkoa ez zana kendurik, erantsirik edo mozturik, eurak zelan eritxen eta alantxe" (Foru-liburua, 12 orr.).

Bilboko uri ondo-ondoan zan Najako Martin Saez-en etxean batu ziran langintza orretarako, eta goizean seiretatik amarretara eta arratsaldean ordubate-tatik bostak arte ekin eta ekin egiñez, amar egunetan burutu eben euren egitekoa. Batzarre Nagusiak ogei eguneko epea izendatu eutsen, eta Batzordeak

amar egunetan amaitu eban lana. Barriztatze-lan astun eta garrantzitsu a amar egunetan bukatu!

Foru Zaarretik zer kendu eta Barrian zer erantsi zeaztu ebenean, Batzordeak gizon bi izendatu zituan Foru-liburu barria idazteko: Jaurerriko Letrau zan Martin Perez Batxillerra eta Jaurerri bereko Sindiku zan Iburgüengo Iñigo Urtiz.

Batzordeak agindu zorrotz au emon eutsen aukeraturiko gizon bioi: Gernikara joan zeitezela, eta Antxiñako Andra Mari elizan alkaturik, eurak barriztau zituen lege zaar eta barriez liburu bat egin egiela, legeak atalka banandurik eta lege bakoxtaren adiera idazkera on eta garbiz azaldurik. Eta langintza au amaitu arte, ez egiela euren gain beste eginkizunik artu.

Ordezkarri biok joan ziran Gernikara, eta euren egitekoa burutu eta gero, ogei eta lau ordu barru, barriri Bilbora biurtu ziran eta Batzordearen aurreran euren lana aurkeztu.

Zelan egin ete eben Bilbotjk Gernikarañoko eta Gernikatik Bilboraiñoko bidaldia? Oñez? Zaldiz? Zalpurdiz? Ez dakigu. Baiña joan eta etorri, eta Foru Barriaren berreun eta irurogeita zortzi lege idatzi, guzti ori ogei eta lau ordutan egin ebela diño Foru-liburuak. Sinistu ere!!

Foru Barri au 1527-garreneko apirillaren zortzigarrenean onartu eban Valladolid-en Carlos Enperadoreak, Bizkaiko Jauna bera zan eta, eta irarteko baimena emon ere bai. Urrango urtean -1528-garrenean- irarri zan leenengoz Burgosen Bizkaiko Foru Barriztatua.

Foru Barri onek indarrean iraun eban 1839-garrenean II Isabelek emon eban legea arte. 1876-garrenean, barriz, urte orretako garagarillaren 21-ean Canovasek emon eban legearen indarrez, ia guztiz deuseztua izan zan.

1526-garrenean ondu zan eta Foru Barria edo Barriztatuta deritxan bilduma onetan ez datoz Bizkaian gordeten eta betetan ziran usuario eta oitura guztiak, orduango legegilleen eritxiz, beñenak eta garrantzizkoenak ziranak baiño.

IV.— "ERRIALDE ZABALA"ren ("TIERRA LLANA"ren) FRUTU U MOTUA

Bizkaiko Forua antxiñako gure asabakandik datorkigun ondarrerik arrigarriena eta baliotsuana dala, diño batzuk. Euskera bera baiño beinago ez ete dan ere irakurri dot (Jose Lasa Apalategi, "Gernika, cuna de la democracia vasca", 30 eta 31 orr.).

Nortzuk egin ete eben Foru arrigarri au? Bizkaiko Jaurerri guztiak artu ete eban parte Forugintza onetan?

Itaun oni erantzun baiño leenago, "ERRIALDE ZABALA" edo "TIERRA LLANA" zer izan zan adierazotea argigarri izango litzakigula uste dot.

Eta bide batez, neure errakuntza bat agertu gura dot ementxe.

"TIERRA LLANA" esamoldea sarri dakar Bizkaiko Foruaren gaztelerazko testuak. Eta nik Bizkaiko Forua euskeratu nebanean -1981-garrenean kalera-tu zan Bizkaiko Forua euskeraz eta gazteleraz- "Tierra Llana" esakuna ez neban zuzen euskeratu. "LURRALDE LAUA" itzuli neban orduan, itzen azalari lotuegi, ain zuzen. "Lurralde Laua" baiño "Errialde Zabala" itzultzea askoz

obeto dagoala uste dot euskeratuta, esakera orren esangureari eta mamiñari begira bagakiez. Lan onetan "Errialde Zabala" darabilt, orrexegaitik, neure aurreko errakuntza autortuz.

"TIERRA LLANA" gaztelera-zko esakun onek ez dau esan gura lurraldea laua danik. Bizkaialdea ez da laua, lautada estu eta medar batzuk euki arren. Menditsua eta erripatsua da.

Esapide orrek beste zerbait dakarsku burura: erri-erakundea, ots, erri sakanatua, zabala, irekia, baserriz eta elizateez edo elixaldeen osoturikoa, "VILLA" edo ERRIBILDUARI buruz-buru dagoan errialdea.

Kondairan zear iru erri-erakunde izan dirala dirudi Bizkaian, eta Euskalerriko beste aldeetan ere bai, antza.

Leenengo erri-erakundea auzoa izan zan. Erri-erakunderik zaarrena, antxiñakoena. Menditarte baten edo lautada baten ziran basetxeak eta bertako familiak noizik-bein alkartu egiten ziran euren arteko arazoak garbitzeko eta konpontzeko. Orixe izan zati erriaren leen-alkartea, ondoan edo urrean ziran beste etxeak artu-emonetan ipjñi zituana. Batzarrak geienetan zugaitzpe baten egiten ziran, "árbol asambleario" edo batzar-leku eritxan arbolape baten.

Gautegiz-Arteagako Zendokiz auzoan, esaterako, antxe daukagu oraindik zutunik eta indartsu onango zugaitz-ARBOLA bat, antxiña-antxiña batzar-leku izan zanetarikoa. Zugatzaren inguruan antxe dakusguz gaur ere jendea jesar-teko ziran arrizko maillak.

Geroago, urteak joan eta urteak etorri, kristau-biziera baztarretan zabaldu zanean, lekuan-lekuan elizak egin ziran. Orduan elizaren inguruan alkartzen asi ziran ingurumariko auzoak, eta batzarrak elizpean agiten ebezan. Elizako atean ipinten eben batzarrerako deia eta kanpaiak jo. Batzarra amaituz gero, atean josten zituen artu ziran erabagjak. Ortikk dator, diruadianez elizate -elizako atezena, gazteleras "anteiglesia" deritxana.

Orra bigarren erri-erakundea, auzoa baiña zabalagoa eta aundiagoa, eta Bizkaia-ri gagokiozala bejñik-bein, guztiz garrantzizkoa.

Bizkaian "Lurralde Zabala" izan zan zanaren luze-zabaleran ainbat erritan eta elizetako elizpetan ikusi daiteke gaur ere Eskribaua jesar-ten zan lekua eta lan egiten eban arrizko edo nabarrizko maia, alboan batzarkideentzat jesarle-kuak zirala.

Badakigu Bizkaia ERRIALDE ZABALA edo "Tierra Llana" sei ibar-alde edo meriñaldetan zarituta egoana: Busturi, Uribe, Bedia, Zornotza, Arratia eta Markina. Foruak zazpitan egoala bananduta diño: aitaturiko sei-rok eta Durango. Baiña Durangok ez eban Foruaren egikuntzan esku-artu, geroago esango dogunez.

Elizate edo elixalde erri-erakundea ez zan Bizkaikoa soillik. Leintz aranako Eskoriatzara joan bazaitez, bide-ertzetan onoko zuzenbideak ikusiko dozuz: "Bolibar elizatea", "Apotzaga elizatea", "Gellao elizatea", eta abar. Kaleaz gain-ñera, zazpi auzok (elizatek) osotzen dabe Eskoriatzako udalerrria. Arabako Aramaion ere auzoai elizate deritxe. Bizkaian izan ziran elizateak eta Leintz ibar-rran eta Aramaion diranak ez dira bardiñak baiña. Leintzen eta Aramaion auzo-ai deritxe elizate. Bizkaiko Jaurerrian, barriz, erri osoa zan elizatea. Ori dala eta, Bizkaian elizate ziran erriak gaur udalerrri dira. Leintz aranakoak eta Aramaio-koak, ostera, ez, auzo uts diraue gaur ere.

Elizateak edo elizpetan egin oi ziran erriko batzarrak zabalak eta agiriak izan

oi ziran. Edonor joan zeitekean. Geroago -amaseigarren mendean asita edo-udaletxeak egin ziranean, etxe oneetara aldatu zituen elizpean egiten ziran batzarrek. Arrezkero antxe egiten dira.

Irugarren erri-erakundea "Villa" edo ERRIBILDUA (ERRIALDE BILDUA) izan zan. Au da: Elizatea baiño beranduagoko erri-erakundea da. Bilboko Erribildua, esatera, Begoñako elizatearen lurrretan eraikia izan zan, Gernika Lumo elizateak emoniko lurraldean, eta abar.

Erribildua edo "Villa" elizatearen izatetik bestelakoa zan: bildua edo itxia, ez jrekia eta zabala, elizatearen antzera.

Bizkaian Foru izena emon dakioke Erregek edo Jaun batek eregitako Erribildu bati. Auxe da Foruak daukan bigarren esangurea.

Gogoan artzekoa da, alan ere, E. Labayruk diñoña: "La villa en Bizkaia es contra el modo de ser de su solar, y las bases de su formación de procedencia extraña... El carácter de Bizkaia es el de ser tierra llana, lo que no significa otra cosa que carencia de población recogida y murada. Por su naturaleza las villas fueron antiforales. Por tanto, el gobierno tenía que ser distinto" (Historia General de Bizkaia, Tomo I, Libro II, Cap. XX).

Erregek edo Jaun batek Bizkaian Erribilduren bat -"Villa"-ren bat- eregiten ebanean, geienetan Logroñoeko forua ezarten eutsan.

Orain erantzun geinkeo leen egin dogun itaunari.

1526-garreneko apirillaren 5-ean Gernikako Zugatzaren pean egindako Batzarre Nagusian artu eben Foru Zaarra barrizatzeko erabagia.

Ain ospetsu eta garrantzitsu jzan zan Batzarre Nagusi aretan Errialde Zabaleko edo "Tjerra Llana"ko berrogei eta amazortzi (edo emeretzi) elizatek esku-artu eben, Bizkaiko ordezkari lez. Ez Erribildu edo "Villa" ziranak, ez Bilbok, ez Gerniak berak, ez Bermeok, ez Lekeitiok, ez... beste Erribildu zanak, ez Durangaldeak, ez Enkartaldeak, Errialde Zabaleko elizateak besterik ez.

Foru-liburuaren sarreran (4-6 orr., ikus baita 450-452 orr.) dator zeatz-meatz zein elizatetako ordezkariak esku-artu eben, elizatearen eta ordezkariaren izen eta guzti. Guztiz berrogeta amazortzi (edo emeretzi) elizatetako erri-ordezkari.

Geiagorik ez? Gendetza urria, esango leuke bearbada norbaitek arelango Batzar garrantzitsu baterako.

Besterik ere bazan.

Onan diño Foru-liburuak:

"Batzarre Nagusi jakin baterako deia artu ondoren, Zugaitz onenpean guztiz Noble dan Loaisako Pedro Giron Lizentzidun jauna, Jaurerri onetako Korrejidorea, eta Muxika eta Butrongo Don Joan Antonio, Arramaioko Jauna, eta Arteaga eta Gangoako Don Joan, Arteaga Etxe eta Sortetxeko Jauna, eta Bizkaiko beste Zaldun, Eskutari eta Aitonon Semerik asko, ainbeste eta ainbeste diranez, euren izenik ez da aitatzen"... (Foru-liburua, 2 orr.).

Bazan, bai, jendetzarik. Baiña errietako ordezkariak Errialde Zabaleko berrogei eta amazortzi. Besterik ez.

Orrek ez dau esan gura Errialde Zabalean beste elizaterik ez zanik. Batzarre Nagusi aretan ez ebela esku-artu baiño.

Bizkaiko Errialde Zabalean edo "Tjerra Llana"n bizi ziran bizkaitarren frutua da, beraz, Foru Barriztatua.

Guzti au gogoan dogula, Bizkaiko Foru Barriari zuzenago eta zeatzago ez ete leritxoke ERRIALDE ZABALEKO FORUA baleritxo?

V.- GEIGARRIA


Foru Zaarra barrizatzea erabagi eben 1526-garreneko apirillaren 5-ean egindako Batzarre Nagusi entzutetsu aretan ERRIALDE ZABALEko edo "Tierra Llana"ko zein elizatek esku-artu eban jakitea gogoko izango leuke bearbada norbaitek.

Jakin-min onen asegarrri elizateen izen-zerrenda dator urrengo, Foru-liburuak dakarrenez (4-6 orr.).

"Mundaka, Sukarrieta, Axpe-Busturia, Murueta, Ugarte-Muxika, Arrieta, Mendata, Ajangiz, Arratzu, Ereñu, Ibarrangelu, Gautegiz, Kortezubi, Ispaster, Natxitu, Bedaru, Murelaga, Nabarnitz, Gizaburuaga, Mendexa, Berritu, Zenarruza, Arbazegi, Jemein, Etxebarria, Amorebieta, Etxano, Barakaldo, Begoña, Abando, Galdakao, Arrigorriaga, Arrankudiaga, Lezama, Erandio, Getxo, Sopelana, Urduliz, Lemoiz, Maruri, Gatika, Laukiniz, Basigo, Meakaur, Mungia, Fruiz, Fika, Meñaka, Lemoa, Yurre, Arantzazu, Dima, Zeanuri, Castillo-Elejabeitia, Olabarrieta, Ubidea".

OARRA.- Foru Barri au, Jaun Aundiak onartuta gero -Carlos Enperadorea izan zan- 1527-garreneko garagarrillaren irugarrenean egiñiko Batzarre Nagusi an aurkeztua izan zan eta irarteko erabagia artu zan. Agiri onetan beste elizateen izen-zerrenda bat dator, eta elizate oneek geiago: "Foru, Luno, Leioa, Lujua, Gamiz, Zamudio". (Foru-liburua, 450-452 orr.).

Pedro PUXANA





ZIGARDIBEREA BASERRIA EUSKAL ITURRI

Lan onen elburua garbia da; euskal kulturaren aldetik baserri berexi baten eredu aipagarria azaldu ta emaitzaren xeetasunak agertu.

Zigardiberea baserria Bera'n (Ñaparroa'n) dago Suspela'ko auzoan, Zigardi baserriaren azpiko aldean. Etxe sendoa da; abere ugari, zelai onak, landa ederrak, baso galantak, ura naikoa bertan.

Sendia guztiz argia ezagutu dut. Aita zenak, Klementek ikastetak, Donosti'ko "Escuela de Artes y Oficios" delakoan egin zituen, zurgintza ain zuzen, baita saritua ere izan zen. Onen semea apezka, Juan Errandonea (1917-1966), ekialdeko izkuntzetan jakintsua goimaillakoa, "Complutense" Ikastetxe Nagusian irakasle bezala artu zuten.

Maria Dolores Errandonea, emengo ipui ta jolasen esalea, buru guztiz argia du. Euskara aberatsa dauka, gaiak ugari. 1920'garren urtean jaio zen eta etxera ezkondu Zigardi'ko semearekin. Bost seme-alaba ditu; seme bat irakasle Iruña'ko ikastolan eta alabagiarreba andereño Ondarrabi'n.

Maria Dolores, gazterik ezagutu nuen eta emen agertzen diren ipuiak eta jolasak, ordukoak dire. Gaur, amatxi dela, etxean dauzkan billobei erakusten dizkie. Nik aztu nituen, berak argitasun osoarekin dakizki. Ementxen agertzen ditut, esan zizkidan bezala.

Euskara du egokia. Esandako ta jasotako berriak, aurren ipui bilduma bezala agertuko ditut. Etxe bateko erri elertia edo literatura nolakoa zen erakutziko dīgute. Orregatik esaten genuen Zigardiberea zela "euskal ipuien iturri berexia", eta Maria Dolores "esale egokia".

AURREN JOLAS TA IPUIEN BILDUMA

Entzun bezala idatzi ditut; Bera'ko euskara estitsua agertuko da, argi ta garbi.

PATXIKO TA ANTON

Zalantzako izkuntza ikusten dugu emen; lasaitzeko yosteta. Ipuiak zalantza eragiten du. bideak asieratik ixten zaizkigu, gero azkenean irikitzeko. Itxaropen sakona nabaritzen da. Maria Dolores'ek auxe esaten zidan: "Zu mutiko txar bat ziñan, eskaletan denak jarri ta zutik kontatzen zenizkigun". Ni ipui ortaz ez naiz oroitzen. Maria Dolores'ek orrela esaten du ipuia:

"Patxīko ta Anton, bi anai ziren: bat zintzoa, bestea tete-loskua ta gabatik goizera, zintzoa (Patxiko) il zen eta urrengo egunean Anton (teteloskua) asi zen sua pixten eta egurrak falta zituen. Yoan zen aizkora eske ta etzion arrautu. Pensatu zuen (Anton'ek) gordia izanen zela ta pensatu zuen, auzoko gizon zar ura lenbiziko ilko zela eta gizon xar arek galdetuko ziola ana;ari (Patxiku'ri): "Zu ni biño lenago ilko zera ta etzara ;lko, baña iltzen ba zera, etzara paraisora yoanen, baiñan joaten ba zera, ez duzu nere anaia ikusiko, biño ikusten ba duzu, ez du yakinen nun utzi zuen aizkora txikia, baña -porsikado-. galdetu ezaiozu ta anaiak, zerura yoan zenak (Patxiko'k) oi u eg;n zion: "Or bi agaien tartean, ote erdixka batean, ortxen dagola".

(AGAIA, makil aundia da, iratze metak egiteko).

KUKURRUKO

Ipui soila dugu; kristau mezuzko izkuntza agertzen zaigu:

"Zer diozu? Buruan min.
Zer egin? Axeriak?
Nun da axeria? Errota azpian.
Zer ari da? Arto ta ogi pixarra biltzen.
Zertako? O1luari emateko.
O11ua zertarako? Arroltza egiteko ta arroltza zertarako? apezari emateko.
Ta apeza zertarako? Meza emateko.
Meza zertarako? Zu ta ni, mundu guzia salbatzeko".

ASTO ZARRA MUKIZU

Izkuntz lotsagabea, gordiña ta beldurgarria; ipuia, ume mukizuarena da:

"Astoa ta otsoa elkar arrapatu zuten.
Otsoak erran zion: "AGUR, AGUR ASTOKO
TA ONGI ETORRI OTSOKO
GAURKO NERE AFARI
IRE BURU TA BIARRI".

Astoak: "EZ, EZ OTSOKO
AN GOITIAN ARTALDE
ARTZAIK EZ DITEK BATERE
BALDIN JOATEN BA ZIÑAKE
ZIKIRU PARE ZENDUKE".

Otsoak: "OÑAN DIAT ARANTZE
EZIN FRINKATU BEZELAXE".

Astoak: "AN BETTIAN ERMITA
MEZA ENTZUN BEAR DIT ETA".
(Astoan yoan zen eta ostiko batekin atia jtxi).

Otsoak: "ASTO ZARRA MUKIZU
SOBERA MALIZI DAKI
BERRIA ERREKALBIAN
ARRAUTZEN BA ZAITUT...
MEZA ENTZUTEKO LANIK
IZANEN EZ DUZU".

KIA KIA

Lo artzeko ipuia:

"KIA KIA MENDIRAT
OLLUA OLLATEGIRAT
ANDRE EDERRA TOLOSARAT
IDI EDERRA EROSTERA".

TRULE JOXEPE

Sabel aundiaren ipuia; ezin ase ta nola egon jan gabe da buruausterik makurrena.

"TRULE JOXEPE
ARI ZEN ASTOARI URA EMATEN
ZAUDE, ZAUDE JOXEPE
NIRE ORRAT NOA
GIZONA DUT AUNDIXKO
ARTU YALE TIKIXKO
GOIZIAN ESKAS DITU
ZAZPI GOSARITAKO
ZORTZIGARRENA KOLKOKO
GOSETZEN DENIAN JATEKO".

ZIRRIZTI MIRRIZTI

Baztertu ta aukeratzeko jolasa. Sorgin edo azti izkuntzaren aztarnak. Itz gogorak daude. Aukera zailla. Ezkututzen ikasteko bidea ematen zaigu:

"ZIRRIZTI MIRRIZTI GRENA PLAU
OLIO ZOPA
URRUN PLERUN KLIK
GAZTAÑA GORA BERA
TXIKITUN TXAKITUN FUERA".

(Ori, -A KUKOS- kontatu ta fuera bota nai duzuna. -A KUKOS- itz ori erdaratik dator. Kuku txoria bezala, kuku aritzera dijoaztela, beti gordetzen delako).

IZARREN EUSKAL YAKINTZA

Arrigarria baino egia, nolakoa den AMATXI baserritar baten yakintza; izarlarria dugu. Euskaraz ematen ditu berri aunitz izarrei buruz.

|| unabarrian eta arratsian, etxeko atea ixterakoan, zeruko edertasuna ikusita, arrituta gelditzen da. Izarren izen aunitz euskaraz ezagutzen ditu, lengo arbaso zarrak erraten zituzten bezala. Orrekin, yakintza berexi berexia dauka.

Banaka begiratzen eta izendatzen ditu euskal izenekin. Maiz, den denak ikusten gelditzen da eta izarleri buruz berri aberatsak ematen ditu:

"ARGIZARRA.- Goizeko izarra da, Sara'ko errekaldean, agitz ederra".

"| RUERREGK.- Lerro lerroan dire. Erregetako, Labiga gañian daude. Urria aldian, Sarro gañian (Malkorra). Neguan urruntzen dijoa. Gero gordetzen da".

"OLLOKOLKAK XITUAKIN.- Bortz xito izaten dire, multzo mulzoan, Errege aintzinean".

"| PAR ALDEKO IZARRA.- Toki berean dago beti, Sarro gainean. Arrantzaljak gidatzen ditu. Txiki xamarra da".

"MARTE.- Armas zar gorria da, itsusia".

"JUPITER.- Polita iduritzen zaigu, inguruko illargiarekin".

"SATURNO.- Polita; illargi erdi bat izaten du".

"SAÑTIGO'KO BIDEA.- Lerro guzia, Meaka aldetik, Sarro ta Larun tartean izaten da, zerrenda agitz aundia, izarrez bete".

Izarren jokabideak ongi ezagutzen ditu: "Aizegoekin, orma egiten dunean, izarrek ikaragarrizko dardaiak izaten dituzte".

|| argiaren onbidea, baita ere aitortzen du: "Azitako, illargiaren gorapenak eta berapenak izaten dire-Batzuek, berapenari begiratzen diote, belarrak idortzeko, azjak ereiteko zerria jltzeko, baita illea yendeari mozteko".

|| argiaren ipuja, berak erraten duna, guztiz polita da:

"Amak bidali zuen mutikoa otatxa eske ta otatxa zama egin ondotik

asi zen oiuka: "Argizak illargia" (bis). Azkenean, "kaka dela illargia", erran zuen. Orduan, illargiak artu ta eraman zuen beregana. Orduzkerotzkan antxen dago bere otatx zamarekin". (OTATXA = Ote landareari sua ematen zaio ta egur utsa gelditzen da, ona ogia egiteko, baita labea berotzeko).

Izarren zaletasuna ez da "AMATXIREN" doaia bakarrik. Maiz erraten du: "Aitari atsegin zitzaizkion izarrak".

Amatxiren borts seme-alabak ongi xamar ezagutzen dute, daukan izarren zaletasun andia ta orajin dela zortzi urte, bere urtebetetzerako, egitazko teleskopio eder bat opa zioten. Amatxiren zorionak ez zeukan neurrik. Bere teleskopioarekin illargijra begira ikusi genula, amatxik ala zion: "Zeihen ongi ikusten den mutjko kokkorra otatxa zamakin".

Nork erran bear zigun, baserriko amon⁹ jzariana ikusiko genula. Benetan ba djtugu gizon emakume arrigarriak gure errian eta gure baserrietan. Amatxi au bezala, -goatzerakoan etxeko atea ixten ditu ta aspergabe, balkoitik teleskopioarekin begira gelditzen da, eta izarrekin euskaraz izketan.

ATSESKIA: AOZKO IPUI BERRIAK

Lan onen asiera, nolakoa den esan bear dugu. Nere aurtzaroa, Ugainborda baserrian igaro nuen, Bera'ko suspela delako auzoan eta gaztetxo nintzalarik oraindik, andik alde egin nuen.

Azkeneko ogei urteak erbestean izanik, geientsuenak Amerlk'etan, andik itzulita, adiskide zarrak Bera'n ikusi nituen. Beste askoren artean, Zigardibere'ko Maria Dolores eta esan zidan: "Zutaz aunitz oroitzen gera, ta erraten ditugu zure ipui politak".

Ze ote ziren "nere ipui politak" jakin nai nuen. Beste egun batean, lasai elkarrekin egotekotan gelditu giñan. Etorri zen egun ori ta antxen agertu ziren banaka, orain dela berrogeitamar urte esaten genituen ipui zarrak, baita neri buruz sortutako berriak.

Garrantzi aundiko ipuiak, zarrak dire. Orregatik denen aurretik eman ditugu danozkero. Bainan "nere ipui berriak" ezin ditugu galtzen utzi. Nola gaiotzen den aozko literatura agertzen digute, ain zuzen. Gaiñera, "Nere ipuiak" entzunda, neri buruz aozko literatura bat sortu zela, oartu nintzen. Egitan, ortxen zegoen ipujen bilduma egiña ta aoz esaten zutena. Ori, ala sortzeko, errestartasuna eukj bear ipuiak esateko, baiño, danez gain, begia ta dasta ipuiaren mamia zuzenean ikusteko. Nunbait ni izakj mutil bizi bizj ori, baita gaia egokiarekin, nere adiñeko ateraldi jatorrekin. Maria Dolores'ek berriz gogotik ikusten ditu gaiak, baita buruan jasotzen eta batez ere esaten jakin. Berez da esale egokia. Orrela jaio da, neri buruz, erri literatura, aozko elertja ain zuzen.

Ipui oiek berriak dire, berrogeitamar urte dituzte ta oraindik gaur arte iraun dute. Ortxen dabilta, aoz ao.

Ipuitxo antzekoen zerrenda motza da:

KALAKARROTEA

Aurren jolasa da: pote bat paratu ta makilakin urrundik bota bear.

Joxe Mari, asmo berrjak sortzen, aurrelari da. Zortzi urte ditu ta Pero'n, Argentina'ko agintarien izena aipatzen du jolas orretan.

Gizon aundien bearra agertzen du:

"TIRA MAKILA TA PERON'EN ONDOAN JARRIKO NAIZ".

KEN ZAKURRA EMENDIK

Joxe Mari'k daukan beldurra ezkutatzeko gogoia salatzen du ateraldi onek. Maria Dolores'ek orrela esaten du ipuia:

"Yoanteneborda'ko Mirentxu ta Joxe Mari erritik etxera zetozen. Joxe Mari'k Zigardi'ko txakurra "Pinto" ikusita beldurtu zen. Txakurran zaunkakin, etxeko alaba Hilari agertu zen eta Joxe Mari'k erran zion: "KEN ZAKURRA EMENDIK, MIRENTXU IZITZEN DA TA NIK EZIN DET KORRITU".

Joxe Mari'k sei urte zituen.

EZ DUZU FUNTXIKAN

Joxemari'n nortasun bizia azaltzen du onek.

"Joanajoxepa mandatoak ezin ekarriz eldu zen. Joxemari'k topo egi-ten du ta erraten dio: "KEN ORTIK, EZ DUZU FUNTXIKAN MANDA-TOAK ERAMATEKO". Kendu zizkion eta bizkarrean eraman".

MARIA, MARIA EZ DAKIZU

Joxemari'k den dena esan nai du ta ezin.
(Sei urteko mutikoa da).

"Joxemari'k Zigardibere'ko Maria ikusten du ta erraten dio: "MARIA, MARIA, EZ DAKIZU ZE PASATZEN DEN? -AITA ESPIRITU SANTUA IL DA". "AITA SANTUA IZANGO ZEN?", dio Maria'k.

BA' ZUZI?

Joxemari aurrari egiten zioten agur xamurra auxe da:

"BA ZUZI JOXEMARI? ETORRI IGANDEAN YOSTETARA".

AMAYA

Lan onetan garbi jkusten dugu nolako aozko literatura daukagun gurre baserrietan; zarra ta berria, dena bildu bearra. Gaur agertzen duguna berexia da ta Maria Dolores Errandonea, Zigardjbere'ko etxekoandreaki zor diogu. Erriaren aozko literaturaren indarra ta garrantzia eskuratzen digu. Orrelako aberastasuna ezin dugu galtzen utzi. Jaso bearra dago.

ERASKIÑA

Zerbait geiago esan bearra dugu: Julio Caro Baroja'k erriko lurgintza giroa agertuz, Bera delako erriari Naparroa'n, liburu bat, erderaz, eskeñi zion. Ara, emen, xeetasunak:

Izena - "LA VIDA RURAL EN VERA DE BIDASOA (NAVARRA)".

Argitaratzailea - "Consejo Superior de Investigaciones Científicas - Madrid 1944".

Bi oar egin bearrak ditugu. **Bat;** Bera'ko baserrien izenak ez ditu ematen. Erriko etxeen izenak bai, Lesaka'ko baserrien izenak baita ere.

Bi; nere lan onetan, euskaraz aipatzen ditudan berriak ez dakarcki bere ljburu ortan, bat ezik "ZIRRISTI, MIRRISTI" (135 or.) delakoa. Gure idazki onetan beste aldaketa baten laburpena eman dugu.

Gaiñera, liburu ori irakurriaz, beste gauza bategaz oartu gera: euskal kultura euskaraz egin bear dela. Euskal gaiak artuaz eta erderaz idazten ditugula, euskara gutxiezten dugu. Euskaraz idatzi ezkeru, gure izkuntza gora daramagu.

LATXAGA



EUSKAL ITZAK ANDOLA'N (ANDOSILLA) NAPARROA'N

Orain dela gutti, Andola'ko euskal giroa agertzen genuen, "DIARIO DE NAVARRA" izparringian (1995-1-22). Gaur berriz bertze zerbait erran nai dugu.

Ba dago gizon eldua, Jesus Pagola, Andola'tarra, bertan jaioa ta azia, asmo on bat izan duena. Berez sortu zaio, errian entzundako euskal erroko itzak bil-tzea, eguneroko erdal elkarizketan erabilliak. Aspaldi asitako lana da, poliki poliki egina. Aurtzaroon erraten ziren itzak gogoratu bear eta gainera, baita jakin eus-kara izkuntzatik datoztela; gero itzek zerrenda batean banaka jaso, aztu gabe. Lana benetan polita ta etorkizun aundikoa.

Andola erria, naiz lbero ibai nagusitik urbil izan, ba ditu sendi aunitz euskal abi-zenekin. Sarrera gisa, erranen dugu urrutizkinako liburuan agertzen diren Andola'ko euskal sendien izenak; den denak 704 dire, euskaldunak aitaren edo amaren aldetik 350, eundik berrogeitabederatzi. Ikusten dugunez sendi askok ba dauzkate euskal aztarnak.

Asieran aipatutako euskal erroko itzen zerrenda ementxen datorkigu:

TOKI IZENAK

"cuesta de la AMONA" = erri gainean

"UNSON" = Mendia Lerin aldera

"ZUBIRTE" = Iturria Falces aldera

GIZAGAIAK

"AMONA" = aur txikiei beldurra emateko erabilia

"ARREBUCHA" = nastua

"CHANDRIO" = gaizki egina

"CHIRGO" = gaiztakeria

"CHURI" = ilean eramaten den zapi zuria

"NACO" = gizon ustela

"NARRO" = Itxura txarrekoa

"NORRO" = Gaizki ikusia

"PAÑTASMA" = Ameskari

"ZAMINA" = Zigorrada

BIZIDUNEN GAIAK

- "BIZQUE" = Suge mingaina
- "CIRRIA" = Ardi zikina
- "ARDACHO" = Muskerra
- "GARDAMA" = Arrak
- "MICHARRA" = Muxar
- "SARANDILLA" = Muskerkume

LANDAREGAIAK

- "ARAGOLLA" = Landarea arantzez betea
- "ARANON" = Baxaranak
- "BARDA" = Sasia
- "CORRUSCO" = Ogi zatiaren ertzea
- "COSCORRO" = Artalepoa
- "CHARADA" = Su andia
- "CHINCHORRA" = Koipearen zati lodiak
- "JUNZA" = Alkiak egiteko landarea
- "LAGA" = Arantzazko sasiala
- "MARAGOLLA" = Landarea igali gorriekin
- "MARANON" = Basakarana
- "OLLAGA" = Sasiala
- "SARDON" = Landare adarrez betea
- "ZABORRA" = Landare galduak
- "ZARRIA" = Aberen ille zikina
- "ZURRAPA" = Uraren zikina

GAUZAK

- "ESPONDON" = Arpea
- "GARRAIÑCHA" = Sare itxia arrantzarako
- "ZACURRO" = Egur zatia
- "ZACUTO" = Pardela
- "ZAMBULLO" = Zambulua (columpio)
- "ZARATA" = Loi mea

AURREN JOLASAK

- "LURIQUI" = Zapi bilduarekin jotzeko jolasa.
- "ZURRUN BUTUN BUTA BUTERA ZURRIKI FUERA" = (Aukeratzeko, izendatzeko edo ordaintzeko jolasak)

Euskal itzen erroak ditugu emen, euskara biziaren aztarnak, gaur arte iraun dutenak.

Nor dugu Jesus Pagola/itz zerrenda onen egilea? Andola'n jaio da 1929'garren urtean. Emen bizi zen amabi urteak bete arte (1942). Ikasketak egin ondotik, Iruna'n asi zen lanean eta an bizi da geroztik.

Jesus Pagola, euskalzalea dugu: Kanpion osorik irakurri du.

Lan onen ereduak, Nafarro'ko toki aunitzetako argi andia ematen du.

AUGUSTIN ZUBIKARAI / EUSKAL IDAZLEEN ARTEAN ERRALDOIA

Oraintxe bertan, azkeneko liburua agertzen zigula Augustin Zubikarai idazleak, garaia etorri zaio esateko, euskal idazleen artean, erraldoi baten aurrean gaudela. Benetan, lana egokia dauka egiña, gañera ugaria, eskua or barrenean sartzen dula, nunaitik bitxi borobilla ateratzen zaio.

LIBURU BERRIA

Liburu berexi berexia ta mardula azken une onetan argitaratua:

Izena - "333 OROIPEN ETA IKUSPEGI".

Tokia - BILBAO, 1994.

Orain arte, egunkari ta izparringietan millaka idazlan dauzka argitaratuak. Paper guzti oiek egunkarian, bein agertuta, berealaxe galtzen dire. Artikulu egokienetakioek in liburu bat argitaratzea bidezkoa iduritu zaio.

Liburu onetan, izparringietan azaldutako idazlanen bilduma berexia eskuratzeko zaigu. Augustin Zubikarai, izparringilari trebe, euskaldun argi ta langille baten antzera gelditzen da. Txalogarria orrenbesterañoko lana egiña ikusita.

Gaurko egokerari buruz, berri asko ematen dizkigu. Gai berexiak sortzen dituzte, indar aundiarekin. Danez gairik euskal gizona agertzen da kementsu, bereixten den nortasunarekin. Berexiki azpimarraztuak daude Aguirre, Loidi, Bilintx, Nemesio Etxaniz, Lino Akesolo ta Xalbador. Batez ere euskalzaleak eta aberzaleak gogoz aipatzen ditu. Ba daki ondo xamar nolako zorrak dauzkan gizon oiekin euskeraren iraupenak.

Auteskundeak gogotik astintzen ditu. Ortzen ikusten du aberriaren etorkizuna. Gidari bezala Sabino Arana dabilki. Argi ori itzaltzea ez luke nai.

Argitasun aundia ematen dio euskera izkuntzari gaur. Araba'n aurrera dijoala ikusten du. Euskeraren udaberrian sartu gerala deritzaio. Euskerazaleak begi onez artzen ditu.

Bizkaia gai nagusia bezala erabiltzen du. Ortik sortu da dirua Euskalerrian. Gure LEGE ZARRAK ondo azpimarratzen ditu, baita bizkaiko euskera, bertako aditza aztu gabe. Ba daki berexitasun aundia daukala Bizkaiko aditzak.

Itsasoa ere gairik berexia bezala dabilki. Ikus "URAK ANDI" delako iru lanak. Arraiak bezala, bizitzeko itsasoa bear du. Ondarru'ko itsas ertze orrek ba du zerbait, baita jendarra.

Bizkaia'n oso ezaguna da, lurralde orretaz asko idatzi dulako, baita bertako euskeraren alde.

IDAZLE LANGILLEA

Erruz egin du lana Augustin Zubikarai idazleak. Paper asko idatzi ditu, baita lan ona utzi. Gaiak azpimarratuz, ara zerrenda luzea.

ANTZERKIAK

38 izenburu dauzka argitaratuak. 1934'garren urtean asi zen agertzen antzerkiak EUSKADI egunkarian. Azkena 1987'garren urtekoa da.

"ITSASORA".- 1945 (Biarritz'eko Euskal Lore jokoetan saritua).

"SEASKA INGURUAN".- 1956 (Donostia'n saritua).

"IRU ALABA".- 1963 (Toribio Alzaga saria).

"GIZON ON ETA ANDRE ERRE".- 1967 (Gipuzkoa sarian aipamena).

"LURRUNPEAN".- 1968 (Gipuzkoa saria).

"ERREKONDUAN".- 1969 (Gipuzkoa saria).

"MENDU ZARRAK".- 1969 (Toribio Alzaga saria).

"MENDI TA ITSASO".- 1983 (Markina'ko Lore Jokoetan saria).

"ARTEA'KO ITSUA".- 1986 (Bizkai Foru Aldundiko Saria).

KONDAIRAK

13 liburu (1969'garren urtean asi "MOTRIKU" delakoekin eta 1993'garren urtean "ONDARRU" delakoekin amaia).

KONTAKIZUNAK

Sei liburu (1979-1991).

"ESAN ETA ESANGO" (Azkue saria, Bjlbao'n, 1979).

ELEBERRIAK

Zortzi liburu (1978-1986).

"BALE DENBORAK".- (Estatuto Kritika Saria, 1978).

"ANTON GUZURRETXE".- (Txomin Aguirre Saria, Bilbao, 1979).

"LAIÑOAK MUNDAKAN".- (Etxeita Saria, 1980).

"IRA USAIÑA".- (Etxeita Saria, 1981).

"MON-DAKA".- (Etxeita bigarren saria, 1981).

BIOGRAFIA

Liburu bat:

"BALENDIN BERRIO-TXOA DEUNA", 1988.

BIOGRAFIA-EUSKERATUAK

Lau liburu (1980-1987).

OLERTI

Zazpi sarituak. "OLERTI" aldizkarian argitaratuak.

IPUIÑAK

Zazpi sarituak.

KAZETARITZA

1933.- asi "Jaungoiko-zale"en, "EUSKADI'N" jarraitu, "EGUNA"an zuzendariordeko.

1981.- "ARRANONDO'N" zuzendariorde gaur arte.

Asieratik, "EUSKERAZAINTZA" aldizkariaren zuzendariorde gaur arte.

Lan guztiz eder onen laburpen bat aurreratuko dugu. Dena dela: 71 liburu, 4.000 idazlan (artikulu), 25 lan sarituak. AZKEN SARIA: SABINO ARAÑA'RENA, 1995.

IDAZLEAREN ESKUA

Lan eder oiek irakurri ezkerok, idazle eldu baten eskua agertzen zaigu. Gertakizunak ondo esaten ditu, garbi ematen berrirak. Ba daki itzak neurtzen, baita kementsu idazten. Yayoa da ikusten. Giroa, sua bezala bizitasunez pixten du. Garai berdinean xamurtasuna nunai agertzen digu bere lanetan. Bear denean piperemiña sartzen alegintzen da.

Giro errikoia atsegin zaio. Eguneroko gertakizunei belarria erne luzatzen die. Oituren idazlea dugu. Arrantza inguru ortan, gogotik arduratzen da. Gaurko gizonaren ateraldiak berealaxe, buruan egosten ditu ta idazten. Gauzak garratz eta gordin esaten ba daki. Idazteko labea ortxen arkitzen du bere Ondarru inguru ortan. Itsasoa ta itsas-gizona begitik sartzen zaizkio.

Errex idazten du, itz garbi ta soilekin. Zerbat argitaratzen dula, erriko giza-semeak, berealaxe, errex ulertzekotan egiten du. Orrela erriari, irakurtzeko gogoaz sartzen dio. Erri xeak gogotik ulertzen du euskera ori. Maila ortako euskera dabilki. Bere lanei, erri giro ori ematen arduratzen da bat batean.

Gaiak ez ditu utsean asmatzen. Erabillitako eredu denak eta nortasun bere-
xiak, egitan, noizbait ikusitakoak dire. Adibidez, antzerkietako ON MARKOS;
EZUR AZAL EZAGUTU ZUEN NORBAIT DA. Berexitasun aundiren bat naba-
rijzen dio, ta bere idazketan sartzen du. Adibidez, azaltzen digun neskazarra-
ri buruz, beste orrenbeste esan dezakegu. Ez du berez asmatu, nunbait ikusi
bai. Eredu den denekin, berdin gertatzen zaio. Orregatik begi ernea daukala
esan dugu, bai ta sugur luzea.

Goiz nabaritu zuen idazteko deia. Txomin Aguirrer'ren "KRESALA" delako
liburuak, apaiztegian gazterik esnatu zuen. Euskera garbi, eder eta erriko ura,
barrenerano sartu zitzaion, baita idazteko gogoaz sortu.

Gero "ORIXE" artu zuen maixutzat. Maiz eta eten gabe irakurtzen zuen.

IKERKETAKO ARROBIA

Augustin Zubikarai'aren emaitzak, liburu pila ederra egiten du. Euskalerriko
alderdi aberats asko azaltzen dire or; gizanortasuna dela, baita aberzaletasu-
na, edo gaur agertzen diren asmoak, nola ez?, euskeraren giroa ulertzeko, ala
izkuntzaren osasuna, elkarteko gallurrak edo gaitzak. Ugaritasun aundi oneta-
tik, zerna; berri atera diteke. Aberastasun aundi onek geroari, ikertzeko bideak
eskeintzen dizkio. Ainbeste paper idatzirik ikusita, Euskalerriko bizitza osoa
murgiltzen du ta beste aldetik luzaro zorretan gelditzen da. Euskera berriz ira-
bazle ateratzen zaigu. Ainbesterañoko berri politikak izparringietako paperetan
atera direla, erri xeak irakurri ta ausnartu ditu, baita aixturrekin maiz ebaki gor-
detzeko, eta ondo gorde noizbeinka irakurtzeko, aldiro atsegina zaiolako. Bai,
euskerak irabazi du. Millaka euskaldunak irakurri dituzte lan oiek, gañera eus-
keraren sua pixtu da.

Ez da arritzekoa, gaur, goi-maileko ikasleak, gizon bakar baten idazlan ugari
auetan, dotoraduak, IKASTETXE Nagusietan antolatzeko, mami eder ta ugari
arkitzea or. Augustin Zubikarai'en idazlanak, ikerketak egiteko arrobia dugu.

Idazleak esanta ba dakigu Roberto Mielgo Merino jauna, euskal nortasuna-
ren izatea aztertzen ari dela, idazlan auetan oñarrituz.

ANAI-ARTEKO GUDAN MURGILDUA

Augustin Zubikarai idazlearen bizitzan, euskal zaletasuna, anai-arte-
ko guda oso lotua dago. Euskadi'n alde lana egiteagatik gorriak ikusi zituen.
Jasotako jipoiak erne ibiltzen erakutsi zion eta zutik irauten. Euskera landutze-
tik aberria sortzea zetorrela ulertu zuen, baita gogotik erantzun.

Ikus ditzagun Augustin Zubikarai idazlearen egun eta gaba illunak. Gaia
aberatsa, naikoa liburu mardul bat betetzeko. Laburpen bat naikoa neretzat.

Gudak Ondarru'n arrapatu zuen. Urontzi bat artuta Donibane Lohitzun'era
joan zen: egun gutxirako. Zortzi egun geroago, atzera, Bilbo'ra zijoan. "EUS-
KADI" aldizkarian sartu zuten. Ogeitabi urte zeuzkan. Jaurlaritzaren arloan

asmogarbitzaile izendatu nai zuten. Lan ori ez zuen ontzaz artu. "EGUNA" delako izparringia sortuta, zuzendaritzan sartu zuten. Orduan Ajuria-Guerra, Zubikarai ezagutzera etorri zen.

Gudan galtzen zijoaztela, Santoña'ra aldatu zen, eta andik Asturias'era. Gero Laredo'ra itzulita, antxen eskubitarrak arrapatu zuten.

Zigorrezko lanetara bidalita zuzen zuzenean zijoan; Aranda de Duero'ra lendabizi, gero Miranda de Ebro'ra, andik Oteiza de la Solana'ra Naparroa'n. Mutil atzilotuak ikusita, emen esaten zuten: "Gu bezelakoak dire". Andik Guadalajara'ra bidali zituzten. Ustekabean, Donosti'ko espetxean sartu zuten. Izparringilari-atxilotuen artean truke bat sortuta, alde batekoak bestekoekin aldatzekotan zebiltzan. Ezkertiarrek, zeuzkaten eskubitar batzuen ordezkari izaten eta beste aldekoekin berdinduta eta ojetako bat, Augustin Zubikarai izaki. Donibane Lohitzun'era ateratzen utzi zuten. Zibur eta Landes'etan bizitu zen. Guda amaitzerakoan (1939), etxera sartzea eskatu zuen, baita etorri ere.

Etxean sartuta, berealaxe, expetxera eraman zuten: Figueras'era lendabizi, gero Madrid'era, andik Algeziras'era. Azkenean 1941'garren urtean etxera bidali zuten. Nekabide ori luzea izan zen eta arantzez josia, baita aberriaren miña sakontzeko gaia guztiz berexja.

NOR DUGU GURE IDAZLEA?

1941'garren urtean Ondarru'n jaio zen. Aita Xalbador, eta ama Franziska Ana Bediauneta, biyek Ondarru'tarrak ziren. Bederatzi seme-alaba euki zituzten, zazpi mutil eta bi neska.

Augustin, Saturraran'en eta Gazteiz'ko apaiztegia ibillia da. Guda garaian etxera etorrita, gora bera galantak agertu ditugu.

Espetxetik etxera etorrita 1941'garren urtean, Motriku'n lana arkitu zuen, ARRUTI delako lantokian. Bertan berrogeitabi urte egin ditu lanean.

1942'garren urtean, Maria Jesus Erkiaga, Ea'tar neskakin ezkontzen da. Sei seme-alaba dituzte, lau mutil eta bi neska; mutil bat "DEIA" egunkariko izparringilaria da, bi neskak berriz andereñoak dire, bat Ondarru'n, bestea Markina'n.

Euskalzaletasuna ta giroa, na; aña apaiztegia eta errian euki zuen. Ezkondu ezkeru, iru zatitan banatzen du bere bizitza: sendia, lana ta idazten.

Norbera-maisu (autodidakta) baten aurrean gaude. Berez ikasi ditu gauzak. Bizitzak berri aundiak eman dizkio, beste aunitz berriz, berez jakin ditu. Begiak erne dauzka ata erria iturri.

1960'garren urtean, berriz, EUSKERAZAINTZA'n sartzen da eta geroztik illero billeretara dator. Taldeko lagunak begiramen aundia diote.

Alaxekoa da gure gizona; euskerari laguntzen erraldoia, Euskalerrarentzat emaitza galanta. Oraindik unte askotan idazten ikusi nai genuke.

LATXAGA

PAULIN SOLOZABAL EUSKERAREN URREZKO LANGILLEA

Berri berria dugu Solozabal'dar Paulin idazlearen azken liburua, amabigarrena ain zuzen:

"ARRAITZ (OLERKIAK) - Bilbao 1995".

Liburu onek 361 orrialde ditu. Gaiak ataletan jarriak dauzka. 616 olerki daude barrenean. Euskera ta Euskalerrria asko ta asko goratzeko egiñak daude. Izadia gai berexia bezala maiz agertzen da, baita zugaitza, mendiak, eta nola ez?, gure baserriak. Euskalnortasuna ta gizonak ats beroakin aipatzen ditu. Gure edestia ez du azten, batez ere azken aldia, anaiarteko erioa. Ort xen agertzen da Lauaxeta, olerkari abertzale, erri opari bezela.

Jaingoikoa goresten ez da nekatzen gure Paulin. Zeru-lur Egillea, danez gain agertzen du.

Itz neurtuak garbi, ugari ta arin ateratzen zaizkio. Erriarentzat ulertzeko errex egiten zaio; goizeko ogi beroa jaten den bezala, maiz irakurriko dituzte, Idatz Deunaren antzera, galerarik gabe.

Gaiñera, esanai aundiko argazkiekin liburua dago apaindua: txistulariak aurre-ra, euskal idazleak, Euskerazaintza osorik eta bukaeran bi erraldoi, Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona, Euskalerrri'ko biotzaren otsak.

Ezin dugu aztu Martin Olazar'en itzaurrea, betiko esku onakin egiña. Ondo aztertzen du liburu berriaren mezua.

Idazlearen lan guzien izenen zerranda, bukaeran dakar; ain gutxik egiten dutena eta zoritxarrez beste askok aztutzen.

Omenaldia Mungia'n

Uztaila'ren lenengo egunean, larunbatean, Mungia'n, enparantza nagusian, Paulin Solozabal idazleari, omenaldi bat eskeñi diote, liburu berriaren aitzakiarekin.

Bost bersolari on onak zeuden omenaldia berotzen: Azpillaga, Lopetegi, Mañukorta, Xabier Amuritza ta Leyre Bilbao, neska Ondarru'tarra.

Pipermiña nasten zutelarik, gure idazlearen trebetasuna goratu zuten. Apaizaren gaiak ondo aztertu zituzten.

Enparantza gizasemez bete betea zegoen; belarriak bersoetan txintxilik jarrita zeuzkaten, den denak barrena lasaitzen.

Ondotik, opari ederrak eskeñi zizkioten: lore xorta zoragarrjak ikastolako aurrak, makil liraña aurreneko kristau bataiatuk gaur 51 urteko gizonak, zillarrezko azpillak bersolarien ikastolak. Opariak amaitzerakoan dantzaria agertu zitzaion eta idazlearen naia betetzearren erriaren aurrean egin zuen Auresku bikotea, jauzi egoki ta ikusgarriekin, txistulariak doñuakin laguntzen ziola.

Azkenean, Paulin Solozabal'ek, liburu berria, erriari doai banatu zion. Besazpian liburua zutela, eunka gizaseme joan ziren etxeruntz. Gero anaiarteko bazkaria zegoen, asieran bezalaxe, bukaeran, danen aurretik trikitrixa zijoan bazterrak alaitzen.

Zorionak, bersolarien ikastolarentzat. Omenaldiaren asmoa ortxen bertan jaioren, baita sei illabeteko lana omenaldia antolatzen. Adore betea, lan eder ortan, Asier Lejarreta'k jarri zuen.

Euskera, irabazle atera zen, baita Euskalerrri'ko ats ederra, Bizkai'ko bazter ortan. Euskal kultura sendotzeko bide egokia arkitu zen. Ortxen ikusi genuen eredu bat azitzen joango dena: idazlea aurretik, bersolariak, dantzari ta txistua, erria zoratzen. Orrela idazten dire Euskalerrri'ko egun yoriak.

Gizon langillea

Oso idazle langille dugula Paulin Solozabal ezin dugu ukatu. 1960'garren urtean, lenengo liburua argitaratzen zuen "USKERIAK" izenekoa. Gaur arte amabi liburu idatzi ditu.

Ementxen agertzen dugu liburu guzien zerrenda:

"USKERIAK"	1960
"URRE-BITSA"	1961
"GIZONETAN"	1969
"GIZADIAN"	1972
"DEIKA"	1974
"ERRI ARNASA"	1977
"EDER MIÑL IAN"	1986
"ALDATZ GORA"	1987
"ALDATZ MALKARRETAN TA GERNIKA ERRETAN"	1987
"URRATS"	1991
"ITZA"	1993

Lan geienak olerkiak dire. Ba ditu ere itzlauzko lanak, elizitzaldien kutsua daukatenak, adibidez, "ITZA" liburuan, Jainkoari buruz gogoasmaketa asko biltzen ditu.

Gure idazlearentzat, liburutik ederrena azkena da, "ARRAITZ" delakoa. Itsasoa, izarrak, izadia abesten ez da agortzen, "gorostola" ere maiz aipatzen du. Bere jaioterriko mendiak, bereziki "MAXA" delakoa agertzen digu.

Indar aundiko olerkiak dire euskal gudariei eskeñitakoak: Urbasa mendiko erailketak gogoan ditu, baita Gernika'ko erretzea ta Mañaria'ko guda-mutillak. Euskalerrri'ko bñotzaren miña darabil. Eredu oiek erriak gogoan ditu. Liburu ori urterterdiko lana da.

Itzaurrea Martin Olazar'ek egiten dio, indar aundiko begiekin. Bizkai'ko atsa ta garra ortxen entzuten da.

Liburu ojetaz gañera, parrokieko eliz-orrietan, AGUR, KARMEI, EUSKERA-ZAINTZA aldizkarietan, noizbeinka idazlan batzuek idazten ditu.

Aspaldi onetan, ia aldiro, erri kutsuzko esaera batzuk eta berriak, EUSKERA-ZAINTZA ALDIZKARIAÑ argitaratzen ditu. Ortxen arkitzen du euskeraren sena. Entzun bezin aguro idazten ditu papertxoan, aldizkarira eramateko.

Garrantzi aundiko itzaldia

Mungia'ko Billela Dorre kultura etxean, 1994'ko Orrilla'ren 28'an, bein entzun nion itzaldi bat. "Euskera izkuntza Jatorra, Jakintsua ta Ederra", zeukan

Izenburua. Lan orrekin aulki berexia irabazi zuen Euskerazaintza delako elkar-tean.

Paulin egun artan, euskeraren zaindari ta aldezlari gartsua bezala agertzen ziztaigun: Euskeraren "APOLOGISTA" bezala zetorkigun. Zerabilkin gaia auxe zen, "EUSKERAREN EGOKITASUNA". Euskera goraiatu nai zigun.

Ara asmo mardulenak: Euskera jatorra ta ederra da. "Dialektoa" deitzen diotenean, barrena lertzen zaio. Ezagutzen dugun izkuntzetatik zarrena dela ondo azpimarratzen du.

Euskeraren berexitasuna ontzaz ematen du. Euskeraren jatortasunik aundiena bere aditza dela erakusten digu. Euskal erri-elertia oso gora jasotzen du, baita gure idazle ezagunenak.

Paulin Solozabal'ek, bere lana ulertzeko giltza, itzaldi onetan ematen digu. Euskeraren edertasuna, danez gain, al den obekiena nai luke abestu. Orixe bera da egiten duna, bere lan guztian, asieratik bukaera arte. Orixe bera da gure erri xearen oitura. Erriarekin bat egiten du ta orrek ematen dio atsegiña. Erritik sortua, erriaren atsa darabilki.

"ARRAITZ" liburu berria, erriko semeak etxera daramakitela ta an irikita, naiko atsegiña artuko dute irakurtzen, bizkaieraz euskeraren zoria.

Nola neurtu idazlearen lan?

Amabi liburu oietan itz asko daude euskeraz ta galdera bat datorkigu burura: Lan orren garra zertan datza? Galdera bera egin genion idazle berberari. Paulino kezkatu rik zegoen asmo orrekin. Gizon apala da ta "Orixe" il aurretik, gizon guztiz argi au ikustera joan zen, eta idatzitako azkeneko olerkiak eraman zizkion erakusteko. Paulino'k galdetu zion: "Zer diozu nere olerkietaz?" "Jainkotxikiak dire oiek", jzan zen "Orixe'ren" erantzuna. Eta jarraitu zuen: "Oraingo olerkariak galduak daude, txepelak dire". Gertakizun au maiz aipatzen du Paulin'ek.

Nere ustez, Paulin'en lana aztertzeko beste bide bat artu bear da. Elerti alde tik, jakintsu-mailan ezin dezakegu jarri. Ez da larrain ortan sartzen.

Paulin'en lanari, oso osorik, erri-elertiaren maila egokitzen zaio, eta neurri ortan zer ikusi aundia dauka; erri-alorrean jaiotzen da ta inguru ortan gelditzen zaigu. Erriaren aurrean gure izkuntzaren edertasuna aitortzen du, irule batek subazterrean oialak eskuz eiotzen ditun bezala; garbi, lirain, sendo. Maila orretan bertan sartzen da Paulin'en lana. Erriko oiva erritik jasotzen du zuzen zuzenean eta erriari itzultzen dio berriz. Lan ori atsegin zaiola gure idazleari ikusten da, garbi asko.

Gainera, itzak neurtzeko errextasuna dauka. Esaldiak eiotzen yayoa da. Lan ori egiten atsegin zaio. Bidaltzen duen mezua erriak ulertzen du berealaxe. Orrelako gizonak sortu dute gure erri-literatura aberatsa. Maila onetan dabil lela Paulin Solozabal'aren lana, ikusten da. Neurri ortan langille emankorra dugu, benetan yoria.

Nor dugu idazlea?

Etxebarria delako erriari jaio zen, Azilondo baserrian, 1912'garren urtean.

Ikasketak, Durango, Castillo-Elejabeitia eta Gazteiz'ko apaiztegian egin zituen. Bergara'n apaiztu zuten 1939'garren urtean. Apaiztu ondotik, Lauzurika'k abade berriei iru motako zinketa eginarazj zien: bat, Euzkadi'k ez dula egitan iraungo; bi, España izango dela aberri bakarra; iru, España'ren alde itz egitea.

Araba'ko Basabe erria bidali zuten eta andik Mungia'ra, 1942'garren urtean. Emen, berriz iraun du gaur arte.

Aberriaren zaletasuna errian sortu zitaion, amabost urte zitula, bere sorterrian "Kazereñoak" ikustearekin. Orduan giroa gaxo gaxorik zegoen Euskalerrria'n.

Euskeraren zaletasuna apaiztegian nabaritu zuen lenengo aldiz.

Galdetu nion bein: "Nortzuk dituzu idazle maitenak?". Au zen erantzuna: "EGUZKIZA, IBARGUTXI, LIZARDI, LAUAXETA, TXOMIN AGIRRE, AUGUSTIN ZUBIKARAI, SHAÑTI ONAINDIA, MARTIÑ OLAZAR, ANES ARRINDA". Berez talde zabala.

Idazlearen emaitza


Bizitza onen lanari, iru alderdi, ondo zamatuak, ikusten dizkiogu. Bat, euskal apologisten atala egokitzen zaio. Sartu dezakegu, gutxi gora bera, ondo ezagutzen ditugun beste batzuen artean: Gipuzkoa'n Aita Larramendi ta Kardaberaz' ekin; Bizkaia'n, Astarloa'rekin; Nafarroa'n, Aita Erroman Beratarra ta Inazio Larramendi'rekin.

Bigarren, erri mailako elertian iturri aberatsa dugu.

Irugarren, gure izkuntzaren bitxiak ugari jasotzen ditu. Bera bezalako asko bear genituzke.

Azkenean, erriak maite dula, esan dezakegu. Errotik asita euskalduna data...

LATXAGA





GURE AITA

Bein Mitxelena zanari onako au esan n̄jon: Iparraldeko "erran duen egia" bezelakoak Bizkaia'ko Arrati-aldean eta beste, Gipuzkoa'ko Goyerri-aldean eta Azpeiti'n egiten dan bezela' i eta U'ren ondorengo a letra e biurtzea besterik eztira: duan duen, nuan nuen, zuan zuen... Mitxelena'ren erantzuna: Iparraldean orrelakorik ezta gertatzen; an gertatzen dana beste au da du + en = duen, zu + en = zuen eta abarr. Ori gezurtatzeko' onako auek gogoratzea aski dugu: aiharr > aiherr; ainhara > añhera; aisatasun > aisetasun; anaia > anaie; aphirilla > apherille; arraultza > arraultze; aitzaki > aitzeki; beira > beire; bigarren > bigerren; laugarren > laugerren; seigarren > seigerren; zazpigarren > zazpigerren; bidarr > biderr; eihara > eihera; ikatz > iketz; jk(h)arr > ik(h)err; iraste > ireiste; iraz > ireiz; Iruña > Iruñe; istarr > isterr; jxa > ixte; ixardekatu > ixerdekatu; izaba > izeba; iztazain > iztezain; mugarri > migerri; oihan > oihen; oiharr > oiherr; Piarres > Pierres; zeiarra > zeharr > zeherr; seillaru > seilleru; tinka > tinke; uharr > uher; zildarr > zilderr; ziparr > ziperr; zital > zitel; zizailu > zizeilu.

Oyek guztioik ikusirik' argi ta garbi dago zer gertatu dan: Arek esan duana > arek esan duena; orduan gure auzokoek esan duena orde esan dutena esatera jo zan. Nondik atera zan t ori? Gogoratu "Refranes y Sentencias" daude (dau + de) gero daue ta azkenik dabe: (R y S. 3, 54, 85; dauenak 55, dabenak 72; 202, 243, 258, 326, 335, 351; aude 316). Iñolaz ere' leenago dude esaten zan; orduan duan orde duen esaten as; ziranek barruko d ori gogortu eta dute esaten asi ziran. Gipuzkeraz eta zubereraz due ta due > die esaten dira.

Batzu adierazteko -de atzizkia oraindik euskalki guztietan bizi da, baiña aditz bakar batean: gagode > gaode > gaude, zagode > zaode > zaude, dagode > daode > daude. Manex-euskeraz ere askotan dirade idazten da; de alperr-jakoa da, ta dirate iñork ere ezta idazten.

Gipuzkeraz askok *dute* idazten dude, baiña Lekuona "zaarrak" esan zigunez' ori Larramendi'k sartu zuan, Mendiburu'ri ikasita.

Noizpait bakarrari zu esaten as; ziranean' zu orde zuek eta zara, zera, zira orde zarade, zarae, zarie (B), zerate (G), zirate, zirezte, zaizte sortu bearrean gertatu ziran. Latinez eta gaztelaniz santificetur nomen tuum, santificado sea el tu nombre esaten dude baiña guk Jainko Jaunari ika egitea ia pekatu iduritzen zaigu: ZU esan bear, politeistak bagiña bezela. Orain arte prantzesez bakarrik Jainkoari zu vous esaten zayo, baiña laisterr euskaldunok bakarrik jokatuko dugu orrela, prantzesez ere toi esaten asi baitira. Arrigarriena ingelesez gertatzen dana; aur ttikieri ere you esaten dien arren' Jainkoari thou esaten baitie.

Padre nuestro, que estás en el cielo,
santificado sea tu Nombre;
venga a nosotros tu reino;
hágase tu voluntad en la tierra como en
el cielo.
Danos hoy nuestro pan de cada día;
perdona nuestras ofensas como también
nosotros perdonamos a los que nos ofenden;
no nos dejes caer en la tentación,
y líbranos del mal.

*(Padre nostro che (sei) nei cieli,
sin santifiato it nome tuo,
Io venta it regno hm,
sia fatta la voluntá tua
come in cielo anche su ((la) terra.
« Π. pane nostro necessario
dá a noi oggi,
12 e rimetti a noi i debiti nostri
come anche noi rimettemmo
ni nostri debitozi,
13 e non ci indurre in tentazíone,
ma liberaci dal maligno.*

9 After this manner therefore
pray ye: Our Father which art in
heaven, Hallowed be thy name.
10 Thy kingdom come. Thy will
be done in earth, as it is in heaven.
11 Give us this day our daily bread.
12 And forgive us our debts, as
we forgive our debtors.
13 And lead us not into temptation,
but deliver us from evil:
For thine is the kingdom, and the
power, and the glory, for ever.
Amen.

*.WVO'RE 'PPRR qui es aur deli;
que ton 170111 soit sanctifzé,
que ton réyrze vzenne,
que ta volonté so t faite
sir la teire comme: 111 sieL
Donne-nozss euy'oznd'fz/zzi
notre pan/ de ce jour.
Pa domze-nous nos off ases,
canmze nous paldonnons aussi
á cela qui nous ont o clisés.
Et ne nous sumets pas á la tentatmm,
mais délíve-nazis du Mal.
Car c'est mi qu 'appartze/ment
le r ane, la pzzzssanee et lagloíre
pour les szécles des s écles.
Amen!*

DUAN ETA DUEN

Bein Mitxelena zanari onako au esan nion: Iparralde'ko "erran duen egia" bezelakoak, Gipuzkoa'ko Goyerri'n eta Arratia-aldean, eta bereziki Azpeiti'n egiten dan bezela' "i" eta "u" ondorengo "a" letra "e" biurtzea besterik ez tira: mendia > mendie, burua > burue, aita > aite, eguna > egune... Mixelena'ren erantzuna: Iparraldea'n orrelakorik ezta gertatzen; an gertatzen dana beste au da: du + en = duen; zu + en = zuen, eta abarr.

Lhande-Lafitte iztegian onako auek ediren ditut:

Aiharr, aiherr; ainhara, añhera; aisatasun, aisetasun; anaia, anaie; aphirilla, aphirjle; arraultza, arraultze; aitzaki, aitzaki; beira, beire; bigarren, bigerren; laugarren, laugerrren; seigarrren, seigerren; zazpigarren, zazpigerren; bidarr, biderr; eihara, eihera; ikatz, iketz; ik(h)arr, ik(h)err; iraste, ireiste; iraz, ireiz; istarr, isterr; ixa, ixer; ixardekatü, ixerdekatu; izterr, izterr, ixterr; mugarri, mugerrri; oihan, oiheren; oiharr, oiherr; Piarres, Pierres; seillaru, seilleru; izai, izei; iztai, iztei; tinka, tinke; uharr, uherr; ukhan, ukhen; zildarr, zilderr; ziparr, ziperr; zital, zitel; zizailu, zizejlu. Eztelanziko jicara, khikera, kikera.

Orrrela garbi dago "hasi dan, hasi den; burutu dan, burutu den" eta beste orrelako asko ere nola sortu diran (diren).

Ego aldean, Gipuzkoa'n beintzat bai' onela esaten ditugu:

Onek ekarri duan liburua; oyek ekarri duen liburua. Zuberoa'n due ordez düe > die esaten da. Duan esan bearrean duen esaten dan euskalkietan duen'en ordez duten esatera jo da. ¿Nondik sortu da "t" ori? Onentzako erantzun argia aspaldiko esaera-bilduma batean dago: "Refranes y Sentencias" Urkixo'k RIEV' en agertu zuan liburuan.

3. Aberatsok jaya *daude*, txiro gaxook beti neke; auzook bere igui *daude* beti dabilena eske. (Ikusjko dugunez' *daude* ori oraingo *dabe* da).

54. Jabe bat *daude* asko baratzeak eta emazteak, ze geiago leukee gaixo.

85. Jaunak asko *daude*, geyago bear *daude*.

414. Gaxtoak *daude* huzen geyago urdebarruak bano.

316. Andra guztiok ertzeti erabiliko *aude* beti. (Orain Bizkai-aldean *abe* esaten da, Gipuzkoa'n berriz *aue*).

Letra bakarti-artean d galtzea maiz gertatzen da. Gipuzkoa'n aude ordez aue bezela' dude ordez due esatera jo dugu, Zuberoa'n berriz düde esatetik düe esatera eta ondoren die esatera.

Norbajtek d ori nere ametsa dala, edo gutxienez ere txit aspaldiko gauza dala badio d ori euskalki guztietan oraindik bizi dala esan bearko dut. Oraindik bizi da, baiña aditz batean bakarrik: egon aditzean: Banago, ba ago, badago; bagaude (bagagode, bagaode, bagaude), bazaude, badaude (badagode). Orain bazaude bakar bati esaten asi giñan ezkeror' batzuri bazaudete esatera jo dugu.

Iparraldean duan ordez bakarrari buruz duen esaten asi ziran ezkeror' aspaldiko duden aren d makaldua gogortu egin bearr edun dude, eta orrela dute sortu zan. Bizkayeraz ere d ori aspaldi galdu zan; ikus aipatu dudan liburuko esaera sorta bat:

202. Lastozko buztana *dauenak* atzera begira. (Emen ere *u* ondorengo *a* letra e biurtu da: *dauan* > *dauen*).

419. Perrau *neuen* gogoa, axeak bestera naroa. (Orain *neban* ere esaten da).

421. Beukaz Peru'k bere beiak ta nik neure zazpi zuriak. (Emen ere *d* bat galdu da: *bedukaz*, eduki bitza).

453. Diru gitxi dauenak bekaz oñak eskuan.

463. Eztai etxerik eztauenak aurrik. (Eztai = eztagi, eztau egiten).

513. Eznea, guria ta odola errean atera *neban*, ta ezer irabazi ez nezan ta ene beixua gal nezan.

503. Ezta zarra dauena zaldarra.

501. Ze egik gatxik ta ze euk bildurrik. (Euk = eduk).

440. Beluko ezkontzea deunga, goxetikoa ez oba; aldia guzak *daude*, aldiar; jarrai gakiozan.

Azkenik bakartj-arteko u ori b biurtu zan:

72. Ezin *dabenak* lazuna, jo begi abuan asuna.

Iparraldean ere entzuten eztan "d" orren orde z "t" gogorra sartzea uste genezaken bezin zaarra ezta ikusteko' "Joanes de Haraneder, Donjbaneko Jaun aphezak" euskeraz itzulitako "Philotea" liburuko VI ayekako (Lenengo irartze-urtea 1749, Haranederrek 80 urte bere zituan urtean) iruzpalau lerro birridatziko ditut:

"Har ezazue beraz, o Gure Herritar maitemaiteak, har ezazue Liburu hau eta irakhur ezazue. Zebonek frogatuko duzue zein bide zelhaia, xuxena eta segu- ra irakhasten darotzuen...".

Orañ *ezazute, duzute, darotzuten* idatziko litzake.

Bakarrari "zu" esaten asi ziranean' batzuentzako zu orde zuek esatera jo zan. Izan aditzak ni, i ta a (edo ura) eskatzen ditu, eta edun aditzak berriz nik, ik eta ak (edo arek) bakarrarentzat, eta gu, zu, aek izan aditzarekiñ, guk, zuk, ayek edun aditzarekiñ. Orain sarturik dugun zuek ori izan eta edun bi aditzekin berdin erabiltzen dugu: zuek etorri zerate, ta zuek ekarri dezue (edo duzute). Euskeraren berezitasunik aundjenetako bat ankaz gora bota dugu. Gogoratu erderazko esakerak: tú has venido, tú has traido; tu es venu, tu as porté; du bist gekommen, du hast gebracht. Euskeraz i etorri aiz, ik ekarri duk. Orrela zuek sartzeak zara (zera, zira) orde z zarade, zarae, zarie (B), zerate (G), zirate, zirezte, zaizte (Iparraldean) sortarazi ditu.

Latiñez eta gaztelaniz, italeraz eta alemanez Jainkoari *ika* itz egiten diode; guk berriz prantzesez bezela *vous, zu*, politeistak bagiña bezela:

Notre Père quió étes aux cieus, que votre nom soit sanctifié. Que votre régne arrive; que votre volonté soit faite sur la terre comme au ciel. Donnez-nous aujourd'hui le pain nécessaire á notre subs;stance Remettez-nous nos dettes, comme nous remettons les leurs á ceux qui nous doivent. Et ne nous induisez point en tentation, mais délivrez-nous du mal.

Gure Aita, zeruetan zaudena: Santifikatua izan bedi zure izena: Betorkigu zure erreinua: egin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia: ETa barka izkiguzu gure zorrak, guk ere geren zordune; barkatzen dizkiegun bezela. Eta ez gaitzazula utz; tentazioan erortzen. Baizikan libra gaitzazu gaitzetik.

Laister gu bakarrik izango gara Jainkoari zu esaten dieunak; ona "La Sainte bible traduite en franpais sous la direction de l'Ecole Biblique de Jérusalem" liburuan nola dagon:

Notre Père qui es dans les cieus, / que ton Nom soit sanctifié, / que ton Régne arrive, / que ta Volonté soit faite / sur la terre comme au ciel. /Donne-

nous aujourd'hui notre pain quotidien. / Remets-nous nos dettes / comme nous-mêmes avons remis á nos débiteurs. / Et ne nous sumets pas á la tentation, / mais délivre-nous du Mauvais.

Italeraz: Padre nostro che (sei) nei cieli, / sia santificato il nome tuo, / venga il regno tuo, / sia fatta la voluntá tua / come in cielo anche su(11a) terra. / Il pane nostro necessario / dá a noi oggi, / e rimetti a noi i debiti nostri / come anche noi rimettemmo / ai nostri debitori, e non ci indurre in tentazione, / ma liberaci dal maligno.

Doitxeraz: Vater unser, der Du bist im Himmel, / geheiligt werde Dein Name; / zu uns komme Dein Reich; / Dein Wille geschehe, / wie in Himmel also auch auf Erden! / Unser tágliches Brot gib uns heute; / und vergib uns usre Schuld, / wie auch wir vergeben unsern Schuldigern; / und führe uns nicht in Versuchung. / Sondern erlöse uns von dem Ubel.

Baiña arrigarriena ingelesak egiten dudena da: aur ttikjeri ere you esaten diede, ta Jainkoari berriz i: thou. Ona Douay'ko Biblian nola dagon: Our Father which art in heaven, Hallowed be thy name. / Thy kingdom come. Thy will be done in earth, as (it is) in heaven. / Give us this day our daily bread. / Any forgive us our debts, as we forgive our debtors. / And lead us not into temptation, but deliver us from evil: / For thine is the kingdom, and the glory, for ever. Amen.

Gaztelaniz vos esatea aaztu zudenean' apaizeri eta errespetoko pertsoneri usted esaten asi ziran. Guk ere orrela mintzatzen ikasi genuan: apaizeri berori esaten diegu, Jainkoari baiño errespetu aundiagoz. Gaztelanik Jainkoari tú ta edozein agintariri Excelentísimo e Ilustrísimo Señor. Venezuela'ko ditadore izandako Gómez'en seme bat gure etxeko goragoko bitizta baten bizi zan. Egun batean beregana igotzeko deitu zidan; ni bere etxean sartzerakoan bere bi seme irteten, eta onako au esan zien: "Vuelvan ustedes para la una, no se retrasen para comer". Etá ondoren neri: Le llamará la atención que a mis hijos les diga "ustedes"; es que en Venezuela hemos perdido el "vosotros" para hacer lo(s) plural(e)s, y tenemos que decir "ustedes". Gu ere orrelatsu gabiltza: "batzu"entzat zan zu orain bakarrarentzat esaten dugu, ta batzuentzat zuek asmatu dugu. Orrela jarraituz noizpait ni orde z gu esaten asten bagera' guiek esaten asi bearko dugu. Ni ta i, gu ta zu: orra euskera jatorra. Azkue'k iztegian dionez' Lekeitio'ko mutillek "ezer eztatizu" jatorraren orde "iek eztatiek ezer" esaten ornen zuden. Betikoa: auzoko izkuntzetan egiten diran txorakeriak gureganatzeko' euskerarekiñ astakeriak egiten ditugu.

Beste zerbait aipatzeko: UZEI'k argitaratu duan "Ekonomia hiztegia" finantziar = finantzatu. Zer da "finantziar"? Ona Real Academia Española'k zer dion: *financiar*. (Del fr. *financer*). Aportar el dinero necesario para una empresa // 2. Sufragar los gastos de una actividad, obra, etc. Ona orain Picoche'ren "Dict. étymologique de français" liburuak diona: Famille du substantif *fin*. 1. *Finir* XI s. (pop.) d'abord sous la forme *fenir*: *fenire*; (...) 2. *Finance* XIII s.: dér(ivé) de l'anc. fr. *finer* var. de *finir*, spécialisé dans le sens de "terminer une affaire en payant": *Financier*, *Financer* XVI s.; *Financement* XIX s.; *Autofinancement* XX s. Beraz itzaren jatorria *kittatu* itzaren esannai berbera zuana da. Baiña orain *kittatu* baiño zeatzago genuke *diruztatu* esatea. "Finantziar una empresa". *Baltzu bat diruztatu*.

UZEI'k oraindaño egiten duana "Nagi-euskera ad usum erdaldunum" besterik ezta.

Zatarain dar A.

SANTIAGO ETA SANTANA MAZUZTE KOLOREKO

Santiau pasau de ta
Santana geubian
mutil bi egon zasen
Morena
bentana batian.

Mutilok egon zasen
guzurrek kontetan
aitxitxe koitxedue
Morena
taluak erretan.

Amama koitxedia
gortatik negarrez
katu demoñinoa
Morena
taloa dandarrez.

Masuzte koloreko
begitxu baltzokaz
ondo engaiña iñ nona
Morena
berba labanokaz.

Arako zeuk gure ta
neuk gure nendunian
berba labanik asko
Morena
zendula miñian.

Zeuren bere Joxepa ta
neuren bere Joxe ba
ontxe konta biar kuz
Morena
amalau pezeta.

* Legarreta'tar Asier'ek, jaso eta
bildutakoak

BERANGO'KO KOPLA ZARRAK

Bizkaian oso zabalduak dagozan koplak txiki auek, gutxienez berreun urte inguru dabez ta Berango'ko errian artutakoak dira.

Oiñ edo errima biko sei koplak dira, danatan MORENA berbea ikusten dala.. Koplak geiago ere izango dira, emen agertu ez arren. Bizkaiko ainbat erritan antzeko koplak dagoz, doiñu ezberdiña badauke ere.

Esaterako, nork ez eban iñoiz entzungo:

Aitxitxe Makuletako

pipe zalje.

Pipiek erre dautso

zurren puntie.

Amoma koittadia

gortatik negarrez.

Katuak eroan dautso

taloa dandarrez.

Koplak auek neuk entzun neutsozan amomari Mungialdean umea nintzala. Beste erri batzutan doiñua eta gorpuzkera aldatuta agertan dira, esanai bardiña daukela.

Oskorrik "Katuen testamentuen", Aitxitxe Makuletako'ren koplak sartuten ditu. Mungialdekoagaz konparatu ezkerre, antzeko doiñua dauke, esanai bardiña eta apur bat baiño ez dira aldatzen gorpuzkera aldetik.

Urrengo Euskerazaintzako aldizkarian, Santa Eskeko koplak azalduko dodaz, Bizkaiko eran.

Legarreta'tar Asier

ZORTZI NOBIOAK

Eustakio "Eulie" Laukiztarrak jarritako bertsoak

Lekukoak:

Mateo Sagasti, Migel Larrauri, Felisa Otazua eta M.^a Luisa Otazua (bertsiño
au lau lekukoon bertsiñoak bateratuaz egin dogu).

1

Neska politte dago
Laukizko errien;
zortzi nobio ein deittuz
urte bi tt'erdien.
Ez ibil bazan beti
fineza garbien:
zortzigarrena deuko
inozko larden.

2

Leelengo nobioa
ei zan kuberue,
mutil galanta baina
bekoki pardue.
Agaz artu banendun
neure (i) estadue,
orain egongo nintzen
ondo ezkondu.

3

Bigarren nobioa
zan zapatarie;
koxoa ixen ezpalitz
konsolagarrie.
Neupere banjttuzen
orrotza ta arie,
baina (i) enendun gure
nik zapatarie.

4

Irugarren nobioa
dogu alargune,
baztar askon jaubie,
erederu jaune.
euki ezpazittuzen
etze bete ume,
egje da zeozer
egjngo gendune.

5

Laugarren nobioak
falta deu andrie,
alargune da eta
errentadorie.
Gizon galanta da ta
diruen jaubie,
alargun aberatsak
neu gure naudie.

6

Bosgarren nobioa
dogu (i) Eusebio;
egunen pezeta bi
deukoz diario.
Berau ixengo neuke
inor baino obago;
berak gure banendu
ni konforme nago.

7

Seigarren nobioa
Eustakio "Eulie",
prakazar inuzente,
koittedu pobrie.
Euki zendun zuk nigez
ezkondu gurie,
baina (i) eragin neutsun
erretiredie.

8

Zazpigarren nobioa
dogu Eugenio;
ari bere ixen neutsen
ainbet amodio.
Agaz ezkontzearren
larga Eustakio;
ara emen non deuketan
ainbeste nobio.

9

Zortzigarren nobioa
Jose (j) euzokoa,
amazazpi urteko
mutil ditzosoa.
Gutziz zagoz neugana
amodiosoa;
zeuk ixen berko dozu
neure (i) esposoa.

10

Zortzi nobio eta
zortzi amodio;
Josepa akorda zaittez
nor dan Eustakio.
Amaika demonina
bajagok munduen,
Josepa leengusinek
engaina nenduen.

11

Egin esamiñea
zeatz eta artez;
joan el|xara eta
konfesatu zaittez.
Nik parkatuten deutsut
neure borondatez;
inor engaina barik
ibili zaittekez.

12

Abadeak eitteko
elixatik geittu,
Bituritik papelak
ekarriak deittu.
Papelok koste dire
iru ogerleko;
Josepa presta zaitez
orrek pagateko.

13

Negu partien orain
benta deu aize otzak;
elixa asko berotu
neskazar birrotxak;
agur orain Josepa,
ez nago zuretzat!

Beartxu au ALGORTAKO BERTSOLARI Eskolak egin dau
Uribe Kostako Bertsolaritza Arduraduna dan
ASIER LEGARRETAren laguntzinoaz.

ESAKERA ZARRAK

- 1.- "Bakoitxa, bere mandataririk oberena".
- 2.- "Bearra zuurgarria, bizitzen irakasten ez dakienari".
- 3.- "Baltz guztiak ez dira ikatzak, ezta zuri guztiak edurrak".
- 4.- "Ur geldjan ez ezar oiñik ez eskurik".
- 5.- "Txarria azi etxean eta il auzoan".
- 6.- "Zezena bere, il aurretik belauniko".
- 7.- "Gizon txikiak, arrabots aundia".
- 8.- "Are, danak egin ez daiskuen barre".
- 9.- "Jaiotzak, eriotza zor du".
- 10.- "Aitiaren eta Semiaren, Felipe eta Jakearen".
- 11.- "Txarria ezta adiñaren, baizik agiñaren".
- 12.- "Txakurrak ogiagaitik buztana erabilten dau".
- 13.- "Astoak jolas bat ta bera ostikadea".
- 14.- "Alaba txarto ezkondua, etxera laster".
- 15.- "Txakur goseak, ogia amets".
- 16.- "Eskeak, solasa galdu".
- 17.- "Urte berri, bizi berri".
- 18.- "Egiok egilleari eta emaiok emajlleari".
- 19.- "Egunari dagokion gaurjk ez da".
- 20.- "Aita kanpotjk danean, gogorrena nagusi etxean".
- 21.- "Zureztat gura dozuna, besterentzat".
- 22.- "Eguberri zerekin, urtebarri arekin".
- 23.- "Olentzaroz leioan, bazkoetan sua".
- 24.- "Urrin begira ta urbil geldi".
- 25.- "Urrengoan ere, izango dira goseak eta aseak".
- 26.- "Negua: zaarren ilgarria eta gazteen zaargarria".
- 27.- "Alperrik nekatu baiño obe da geldirik egon".
- 28.- "Arian-arian, edozer zulatzen da".
- 29.- "Elgetan ogi beroa diruetan, aize otza doan".
- 30.- "Gazteak ezjakiñez, zaarrak eziñez, egitekoak doaz gaizki egiñez".
- 31.- "Il beltza, ilzuri, babea betez itzuli".
- 32.- "Oker batek, gauza oker asko".
- 33.- "Edonun dagoz txakurrak agiñak zabalik".
- 34.- "Laiñoa, uraren eta izotzaren auzoa".
- 35.- "Etxe onak, txingar ona".
- 36.- "Betiko jtojiñak arriari zuloa".
- 37.- "Nork nori? Untzak biligarroari".
- 38.- "On egjn daigula janak, ez gatzik edanak".
- 39.- "Ba zuanak, ba du".
- 40.- "Umearen zentzuna, etxean entzuna".
- 41.- "Barriketa gitxi eta eurak onak".
- 42.- "Gabiltzan, gabiltzan eta gatozan, gatozan, kontu asko jakin dogu".
- 43.- "Kandelerioz eguzki, negua dago aurretik".
- 44.- "Egiak, egjnkizunik ez".

ON JAIME KEREXETA'REN GUTUN BAT

On Jaime adiskide kutunarengandik aspaldi jasotako eskutitz bat aurkeztu nai nieke gaur nere irakurlea laguntza eske. Ona, jarraian, eskutitz orren mamia:

"Latiegi adiskide:

"Gaur, igandea dan ezkeru, nasai-nasai, barriru be "Euskerazaintza" aldizkari-ko zure idazlana irakurri dot (XXVIII). Eta 27'garren orrial dean, beeko 6'garren lerroan "... Naparroa'ko urian eta Gipuzkoa'ko Olaberri'n..." idazten dozu. Eta nire zalantza: Naparroa'ren eta Gipuz koaren azkeneko "a" ori (artikuloa ete-da, Donostia, Azpeitia eta aberrena danez. "...Donosti'ko seme-bati..." Donostiarra eta ez Donostiatarra (XXVII, 26). Egia. Baiña besteona ere artikuloa ba'da (zergaitik ez Naparro'ko eta Gipuzko'ko? Donostia'ko semea "donostiatarra Ez danez, Gipuzkoakoa be Ez "gipuzkoatarra", donostiarra eta gipuzkoarra baiño. Barriru esan: zalantzan jartzen nozu, eztabaidan ez".

(Irakurleok, Euskerazaintzako lagunok, zuen danon laguntza bear dut On Jaime'ri erantzuteko. Naparroa eta Gipuzkoa itzen azkeneko "A" ori artikuloa ote da? Nik ordea ez dut sekulan "Naparro'n" eta "Gipuzko'n" ez irakurri ez entzun; beti Naparroa'n eta Gipuzkoa'n. Naparrek ordea, Aralar-pekoeak beintzat, ez dute Naparroa'ko esaten Naparro'ko baizik: "Naparro'ko jendeak", "Naparro'ko mendiak". Baiñan ez dizute Naparro'n esango: "mendi ori Naparroa'n dago" esango dizute, eta ez "mendi ori Naparro'n dago". Inork, berriz, ez dizu "Gipuzko'ko mendi"rik esango. "Gipuzkoa'ko mendiak" baizik.

"OA" atzizki-duten toki-izenak aski ugari ditu gure euskerak: Nik orain bat batean oroitzen ditudanak, Zuberoa, Astarloa, Mutiloa, Larrinoa, Ganboa, Arbeloa, Bengoa, Garaioa, Bakaikoa... Zuek, irakurleok, ezagutuko dituzute geiago. (Izen oietan nola artzen du jendeak azkeneko "A" ori? Atzizkitzat? ala itza beraren gorpuzkitzat?


Itzuli gaitezen On Jaime'rengana:

"Begira: Euzkadi'ko oiñetxeai eta armarriai buruz idazlan luze bat egiten diardut, erderaz. Eta, jakiña, milla bidar agertzen dira Donosti, Ondarrabi, Errenderi, Azpeiti, Azkoiti, Getari, Alegi eta alakoak. Beraz, aitaturiko izenok, erderazko pasarteetan (testoan) idaztean (zelan jarriko zeukez zuk"?

Nola jarriko nituzkean nik? Ea, bá, Jaime, nere jardunkera atsegiña gertatzen zaizun:

Frantzeraz, Zaragoza, "Saragosse" idazten da. Inghlanderaz, Itali, "Italy". Gazteleraz, London, "Londres". Portugaleraz, New York, "Nova Yorke". Doixkeraz, España, "Spanien", eta euskaldunok euskeraz France, "Frantzi" esan eta idazten dugu.

Ele bakoitzak bai bait du, —baita gure euskerak ere— atzerrietako izenak bere senaren erara jaso, esan, eta idazteko eskubide sagaratu. Orregaitik, nik, gazteleraz, **Azpeiti**, "Azpeitia" esan eta idazten dut. Nere frantзера baldarrez, Naparroa, "Navarra", eta inglendera baldarragoz, Bizkai "Biskay". Beste izkuntzei, nere euskeraren eskubideentzako eskatzen dedan eraspena gordetzera bearturik nagoala iruditu izan zait b beti.



Gero Euskaltzaidiari artutako itz-zerrenda bat eskeintzen dit On Jaimek:

ALEGI. Tolosa'ren alboan dagoan eta gazteleraz "Alegria de Oriá" esaten zaion erri ortan jaiotakoari, ALEGIAR esateko agin du ornen du Euskaltzaindiak. Agindu makurra benetan, eta parragarria, Euskaltzaindi gaixo orrek emandako geienak bezala. Sekula santan ez bait zaio Alegi'n jaiotako bati, ALEGIAR, ALEGIARRA esan, ALEGITAR eta ALEGITARRA baizik.

ARRATI. "Pero nadie dice Arrati, sino Arratiya, A-rra-ti-a, Arrat!a", dio On Jaimek, une batez euskera utzita gaztelerara joz.

Nere ustez, Jaime, Arrati, ARRATE da; zuk beste inork baino obeki dakizun bezala, nekerik txikienaren legearen eraginez, euskeraz "E" oso errez biurtzen bait dugu "I".

Izen geiago ere badamaizkit On Jaime'k. "Euskerazaintz"aren urrengo zenbakian aztertuko ditudan izenak, gaur iraduz nabil b, irarkolara garaiz iritxi nairik.

Alare aipatu al dut zenbaki ontan On Jaime'k eskuetara damaigun onako arazo txit garrantzitsu auxe:

Nongotasuna eta norentasuna adierazten diguten "AR" eta "TAR" atzizkiak erabiltzerakoan (zergaitik sortzen zaigu alako ezberdintasun nekagarria?

Zerdalata ain goxo gure belarrientzako DONOSTIARRA eta alderantzizain zakar ALEGIARRA?

Ez dut erantzun ziurrik-eta bearrezkoa dut zuen Laguntza.

Agur irakurle: jarraituko dugu gai au bera lantzen datorren zenbakian.

- Baserriak paretak oso txarrak ziztuan, ta ura BERE ARTAN utzi eta etxe berriya egin gendun.
- Ezkertiak BEGI-ZEARKA IKUSIAK DIRA eta ALA-OLAKO gizakiak dirudite.

50 urte dituan batek:

- Ni ORAINTXE BERTAN jubilatuko nintzake!
- A gizarajoa! Ez daukak IKUSIRIK...!
- IRABAZI-ALA dana kastatu bear duan oyetakoa da.
- Belarra ERAMATE-ALDERA eman nai, ta iñork ez du nai.

Mutil batek zerbait egin duala, ta bere amak!

- Orain ere OKERRA EGIN al dek?

Irrati-gallu ttiki batean KATE-JAKIN bat aurkitu eziñk dabillela:

- Au da ARRAYOKERIYA! *Iñola ere* ezin arrapatu...
- Ez ARRITU! Ni ere atzo EZIÑEAN JARDUN NINTZAN.
- Ori, BERE-BEREA DU; beti BEREAREKIN Atera nai izaten du.
- Olioa EMAN BERRITAN, obeto ebiltzen da (berebilla).

(Xeetasun geiegi eman dituanari):

- Orixe ESANBEARRA...
- Nora zoaz? IÑORA EZ.

Aur biurriaren EGON-EZIÑA ikusiz:

- GAIXTOALDIKOA DAGO.

ASARRE! ALDI baten ondoren:

- ESAN BEARREKOAK esan ditut.
- Ez du EZETZIK esan.
- Agintariak ez du erregutzen.
- Gaur berandu jeiki zera; ONDOEZIK ALA?
- BAI ZERA! ESNATU EZIN, GIZONA!

Izketaldj gogor baten ondoren, baretu ta esandako itz goxoak entzundakoan:

- Ori BESTERIK DA.

- Nagusiya etxean al da?
- Ez-ba! Mendjra joana da ta PUSKA BATEAN ez da etxeratuko.
- Ez naiz beñere orrenbeste nekatu, NOIZ GAUR.
- Edozer ondo zuzenduko ba'da, lendabizi, diran edo dituan arazoak ONDC BAÑO OBEKIAGO ikasi.
- Gauza danak, ERDI-BANA eman nizkien.
- Noiz asi bear degu?
- LAISTER-BATEAN asiko gera.

Baserriko Joxe'rekin TOPO EGIN, ta euntalako lotsa eramana nauk; noski, baztar guztiak SASIAK ARTZEN ARI OMEN DEK!

- Bere LUR-SALLETAN SARTU NINTZALA ta AURRIAN BIDALI nindun.
- BEARRENEKOZ-BEARRENEKORA (jerarquía de valores)
- Karteroa ETORRIA AL DA?
- Ez! Oraindik ETORRI GABEA DA.
- (Aurrak txertoa artu ondoren):
- Ez du IKUTZERIK NAI; nunbait, MIÑ ARTZEN DU.
- Ezertan ASI-AURRETIK.

Ogetik jeiki aurretik:

- Zer eguraldi degu gaur?
- EUDIA DANIK ez dirudi.
- Ez dirudi EUDIA ARI DUANIK.
- Azkar batean dana ondatu zuten.
- Kolore au ZIKIN-ESTALKIYA DA.
- EBAKI-EBAKI EGIN NUEN.
- BEREALAKO BATEAN azalduko naiz.
- Ekintza au orrela egitea, ILL EDO BIZIKOA DA!
- Yulen aberatsa al da?
- Aberatsa? ABERATS-PURRAKATUA!
- ORAINDIK-AIZTINTXE egin die.
- Artutako erabakia danentzat pozgarria izan al da?
- Danak ez ditu ASE-BETE.

Lan eske joan eta lanean asi ta bereala, besteak baño zama aundiagoa eramana zuala ta besteen parean jarri arte eserita aurkituta, nagusiak galde:

- LAN-OTSEAN ontara etorri al zera?
- Automobillean sartu, ta TXIMISTAK ARTURIK BATEKOIK-BESTEKO eramango ginduan.